

Sexu-indarkeriazko jarrereri eta toki-administrazioaren hurbilketari eta eskuhartzeari buruzko ikerlana



Financiado por
la Unión Europea

NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



FEDERACION ESPAÑOLA DE
MUNICIPIOS Y PROVINCIAS





Sexu-indarkeriazko jarrereri eta toki-administrazioaren hurbilketari eta esku-hartzeari buruzko ikerlana. 1^a edizioa 2023.

Federación Mujeres Jóvenes-ek eginda, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren (FEMP) enkarguz.

Federación Mujeres Jóvenesen koordinazioa

Mónica Saiz Martínez

Ikertaldeko koordinazioa

Tania Sordo Ruz

Idazketa

Violeta Assiego Cruz, Hebe Bonilla Rodríguez eta Tania Sordo Ruz

Ikertaldea

Violeta Assiego Cruz, Hebe Bonilla Rodríguez eta Tania Sordo Ruz

Itzulpena

Naiara Bitorika Sánchez

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	15. orr.
2.	HELBURUAK	19. orr.
3.	METODOLOGIA	26. orr.
4.	ALDEZ AURRETIKO GOGOETAK	33. orr.
5.	ATENPRO ZERBITZUAZ	36. orr.
6.	EMAKUMEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIAK	42. orr.
7.	SEXU-INDARKERIEEN ESPAINIAKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	48. orr.
a.	SEXU-ASKATASUN ETA SEXU-UKIGABETASUNAREN AURKAKO DELITUEN TESTUINGURU OROKORRA 2019-2021	49. orr.
i.	Delitu-egitate sexual ezagunak, sexu-delitu erregistratuak eta biktimizazioak (2019-2021)	49. orr.
	1. Delitu-egitate sexual ezagunak (2019-2021)	49. orr.
	a. Lurralde-errepresentazioa: delitu-egitate sexual ezagunak (2021)	52. orr.
	2. Argitutako delitu-egitate sexualak (2019-2021)	55. orr.
	a. Lurralde-errepresentazioa: argitutako sexu-delituak (2021)	56. orr.
	3. Delitu-egitate sexual ezagunen eta argitutako sexu-delituen arteko konparaketa (2021)	57. orr.
	4. Biktimizazioak (2019-2021)	58. orr.
	a. Lurralde-errepresentazioa: biktimizazioak (2021)	63. orr.
ii.	Bi edo hiru gizonetako bako bako burututako sexu-	64. orr.

erasoak (2021). Abusua eta erasoak

1. Sexu-indarkeria anizkoitzeko egitate ezagun eta erregistratuen lurralde-errepresentazioa (2016-2021) 69. orr.
- b. **SEXU-JAZARPENA, STALKINGA, SEXU-ERASOA ETA SEXU-ABUSUA 2019, 2021 ETA 2015-2019 ALDIA** 70. orr.
 - i. **Emakumeen biktimizazioen profila: sexu-abusua eta sexu-erasoa (sarketarekin edo gabe), sexu-jazarpena eta *stalkinga*** 70. orr.
 1. Emakumeen biktimizazio-kopurua sexu-askatasunaren aurkako delituengatik: sexu-abusua eta sexu-erasoa (sarketarekin edo gabe) eta sexu-jazarpena (2021) 70. orr.
 - a. Bikotetik kanpoko sexu-indarkeria. 2019ko Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkestak: prebalentzia, maiztasuna eta indarkeria-motak (sexu-abusua eta sexu-erasoa) 71. orr.
 - b. Sexu-jazarpena. 2019ko Makroinkestak: prebalentzia, maiztasuna eta sexu-jazarpen motak 74. orr.
 - c. Jazarpen errepikakorra edo *stalkinga*. 2019ko Makroinkestak: prebalentzia, maiztasuna eta *stalking* motak 77. orr.
 - d. Bikotekideak edo bikotekide ohiak burututako sexu-indarkeria. 2019ko Makroinkestak: prebalentzia, maiztasuna eta sexu-indarkeria motak 79. orr.

2. Emakumeen biktimizazioen adina sexu-askatasunaren aurkako delituengatik: sexu-abusua eta sexu-erasoa (sarketarekin edo gabe) eta sexu-jazarpena (2019) 84. orr.
 - a. Bikotetik kanpoko sexu-indarkeria jasan duten emakumeen adina: 2019ko makroinkesta (sexu-abusua eta sexu-erasoa) 89. orr.
 - b. Sexu-jazarpena jasan duten emakumeen adina: 2019ko Makroinkesta 90. orr.
 - c. *Stalkinga* jasan duten emakumeen adina: 2019ko Makroinkesta 90. orr.
 - d. Bikote edo bikote ohi barruko sexu-indarkeria jasan duten emakumeen adina: 2019ko Makroinkesta 91. orr.
3. Sexu-indarkeriaren biktimaren herritartasuna: sexu-abusua eta sexu-erasoa (sarketarekin edo gabe), sexu-jazarpena eta emakumeen genitalen mutilazioa (2015-2019) 92. orr.
 - a. Bikote edo bikote ohi barruko eta kanpoko sexu-indarkeria, sexu-jazarpena eta *stalkinga* jasan duten emakumezko biktimak. 2019ko Makroinkesta: jaioterria 93. orr.
4. Sexu-indarkeria jasan duten emakumeen profil soziodemografikoaren gainerako ezaugarriak. (sexu-abusua eta sexu-erasoa). 2019ko Makroinkesta 94. orr.
 - a. Sexu-indarkeria (abusua eta erasoa). 2019ko Makroinkesta: ikasketa-maila, *ezgaitasun* 94. orr.

ziurtatua eta udalerrriaren neurria

- b. Sexu-jazarpena. 2019ko Makroinkesta: 96. orr.
ikasketa-maila, *ezgaitasun ziurtatua* eta udalerrriaren neurria
 - c. *Stalkinga*. 2019ko Makroinkesta: ikasketa-maila, *ezgaitasun ziurtatua* eta udalerrriaren neurria 97. orr.
 - d. Bikote edo bikote ohi barruko sexu-indarkeria. 2019ko Makroinkesta: ikasketa-maila, *ezgaitasun ziurtatua*, udalerrriaren neurria, legezko egoera egungo bikotekidearekin eta bizikidetza egungo bikotekidearekin 99. orr.
5. Biktimizazioen banaketa egitatea gauzatu zen lekuaren arabera: sexu-abusua eta sexu-erasoa (sarketarekin edo gabe) eta sexu-jazarpena (2019) 101. orr.
- a. Sexu-indarkeria burutu zen lekua 2019ko Makroinkestako datuen arabera: sexu-abusua eta sexu-indarkeria (2019) 104. orr.
6. Harremana delitugilearekin: sexu-abusua eta sexu-erasoa (sarketarekin edo gabe), sexu-jazarpena eta *stalkinga* (2015-2019) 105. orr.
- a. Harremana sexu-indarkeria burutu zuen edo burutzen duen pertsonarekin 2019ko Makroinkestako datuen arabera: sexu-abusua eta sexu-erasoa (2019) 107. orr.
 - b. Harremana sexu-jazarpena burutu zuen edo burutzen duen pertsonarekin 2019ko Makroinkestako datuen arabera: sexu-

jazarpena (2019)	
c. Harremana <i>stalkinga</i> burutu zuen edo burutzen duen pertsonarekin 2019ko Makroinkestako datuen arabera: <i>stalkinga</i> (2019)	108. orr.
ii. Emakumeen biktimizazioen lurralde-errepresentazioa autonomia-erkidegoaren arabera: sexu-abusua eta sexu-erasoa (sarketarekin edo gabe) eta sexu-jazarpena (2019)	108. orr.
iii. Salatutako indarkeria-mota eta intentsitatea: sexu-abusua eta -erasoa (sarketarekin edo gabe) eta sexu-jazarpena (2016ko ira.-2019ko abe.)	109. orr.
iv. Sexu-erasoak taldean (2019): 2019ko Makroinkestako datuak	111. orr.
v. Lesio fisikoak sexu indarkeriaren ondorioz (sexu-erasoa eta sexu-abusua): 2019ko Makroinkesta	112. orr.
vi. Laguntza-bilaketa sexu-indarkeria, sexu-jazarpena eta <i>stalkinga</i> jasan eta gero: 2019ko Makroinkesta	113. orr.
c. INDARKERIA DIGITALA (2021 ETA 2022)	113. orr.
i. Sexu-ziberdelinkuentziaren testuinguru orokorra (2021)	113. orr.
1. Sexu-ziberdelinkuentziaren testuinguru orokorra biktimaren sexua zehaztu gabe: erregistratutako egitate ezagunak. Sexu-ziberdelinkuentzia (2021)	115. orr.
2. Biktimizazioen profila (adina eta sexua): sexu-ziberdelinkuentzia (2021)	117. orr.
a. Biktimizazioak adin-taldearen arabera: ziberdelinkuentzia (2021)	117. orr.

3.	Emakumeen biktimizazioen testuinguru orokorra sexu-ziberdelinkuentziaren ondorioz (2021)	118. orr.
a.	Emakumeen biktimizazioak sexu-ziberdelinkuentziaren ondorioz: herritartasuna (2021)	120. orr.
ii.	Online sexu-jazarpen mota desberdinen intzidentzia adinaren arabera (2019)	121. orr.
iii.	Sexu-indarkeria zita-aplikazioen bitartez: Tinder (2022)	122. orr.
d.	SEXU-ESPLOTAZIORA BIDERATUTAKO EMAKUMEEN SALEROSKETA (2019-2021)	123. orr.
i.	Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatoen salerosketaren testuingurua (2019-2021)	123. orr.
1.	Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktima-kopurua Espainian (2019-2021)	123. orr.
2.	Sexu-esplotaziora bideratutako balizko salerosketa egoerak Espainian erakundeen arabera (2021)	125. orr.
3.	Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren emakume biktimen profila Espainian: adina eta herritartasuna (2021)	126. orr.
4.	Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimentzako arreta-baliabideak Espainian (2020-2021)	128. orr.
a.	Ostatua eta arreta anbulatorioa (2021)	128. orr.
5.	Barne Ministerioko Terrorismoaren eta Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroko (CITCO) datuak (2021)	129. orr.

6. Estatuko Fiskaltza Nagusiko Atzerritarren Ataleko datuak (2021)	130. orr.
7. Epaiak (2021)	133. orr.
a. Epaien proportzioa (2021) erakundeak detektatu dituen sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa kasu-kopurutik (2021)	133. orr.
e. EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA ESPAINIAN (2021)	135. orr.
i. Emakumeen genitalen mutilazioaren testuingurua Espainian (2016-2021)	135. orr.
1. Emakumeen genitalen mutilazioa burutzen den herrialdeetatik datozen emakumezko biztanleak Espainian (2016-2021)	136. orr.
2. Emakumeen genitalen mutilazioa egiten den herrialdeetatik datozen emakumezko biztanleak autonomia-erkidegoaren arabera (2016– 2021)	140. orr.
f. BEHARTUTAKO EZKONTZA ESPAINIAN (2019)	142. orr.
i. Behartutako ezkontzen biktimen testuingurua Espainian Kataluniako gehiegizko errepresentazioarekin (2019)	142. orr.
1. Behartutako ezkontzen biktimen ezaugarri soziodemografikoak Espainian Kataluniako gehiegizko errepresentazioarekin (2019)	142. orr.
a. Behartutako ezkontzen biktimen ezaugarri soziodemografikoak: adina (2019)	142. orr.
b. Behartutako ezkontzen biktimen ezaugarri soziodemografikoak: herritartasuna (2019)	143. orr.
c. Behartutako ezkontzen biktimen ezaugarri	144. orr.

soziodemografikoak: komunitatea edo etnia
(2019)

Behartutako ezkontzen biktimen ezaugarri 144. orr.
soziodemografikoak: erlijioa (2019)

e. Behartutako ezkontzen biktimen ezaugarri 145. orr.
soziodemografikoak: egoera zibila
behartutako ezkontza kasua detektatzen
denean (2019)

**ii. Espainian behartutako ezkontzen biktimen kopurua 145. orr.
ezagutzen duten erakundeak Kataluniako gehiegizko
errepresentazioarekin (2019)**

1. Behartutako ezkontza kasuak detektatzen edo 146. orr.
esku hartzen duen erakundearen jardura-
esparrua (2019)

2. Nola ezagutzen dituzte erakundeek behartutako 146. orr.
ezkontza kasuak (2019)

3. Erakundeak behartutako ezkontza detektatu zuen 147. orr.
unea: ezkondu baino lehenago edo beranduago
(2019)

4. Erakundeei behartutako ezkontza jakinarazten 147. orr.
dien pertsona (2019)

5. Identifikatutako biktimaren legezko egoera 148. orr.
erakundeak esku hartzen duen unean (2019)

**g. SEXU-INDARKERIEN AURREAN ZAURGARRITASUN EGOERAN 148. orr.
DAUDEN PERTSONAK**

i. Haur eta nerabeen aurkako sexu-indarkeriak (2021) 148. orr.

1. Haur eta nerabeen aurkako indarkeriak: Barne 150. orr.
Ministerioko estatistika (2021)

a. Biktimizazioen eboluzioa (2019-2021)	151. orr.
b. Delituak burutzen diren lurraldea: autonomia-erkidegoak (2021)	153. orr.
2. Haurren aurkako sexu-indarkeriak Espainian emandako epaien azterketaren bidez 2010-2019 aldian.	154. orr.
a. Haurren ezaugarri soziodemografikoak epaien arabera (2010-2019)	154. orr.
b. Erasotzaileen sexua epaien arabera (2010-2019)	155. orr.
c. Biktimaren eta erasotzailearen edo erasotzaileen arteko harremana epaien arabera (2010-2019)	155. orr.
d. Egitateen eta salaketaren arteko tarteak epaien arabera (2010-2019)	156. orr.
e. Salatzen duen pertsona edo erakundea epaien arabera (2010-2019)	157. orr.
f. Erasoa gertalekua epaien arabera (2010-2019)	157. orr.
g. Erasoa jarraipena epaien arabera (2010-2019)	157. orr.
ii. Nerabeen aurkako sexu-indarkeriak (2021)	158. orr.
iii. Sexu-indarkeriak eta emakume gazteak (2019)	162. orr.
1. Bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-erasoa eta sexu-abusua emakume gazteen artean (2019)	163. orr.
2. Sexu-jazarpena emakumeen artean (2019)	164. orr.
3. Sexu-jazarpen errepikakorra edo <i>stalkinga</i> emakumeen artean (2019)	164. orr.

iv. Sexu-indarkeriak eta 65 urtetik gorako emakumeak (2019-2021)	164. orr.
v. Sexu-indarkeriak eta dibertsitate funtzional mota eta mailaren bat duten emakumeak (2019-2020)	168. orr.
1. Bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-indarkeriaren prebalentzia dibertsitate funtzional motaren bat duten emakumeen artean (2020)	168. orr.
2. Bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-erasoa eta sexu-abusua dibertsitate funtzional motaren bat duten emakumeen artean (2019)	169. orr.
3. Sexu-jazarpena dibertsitate funtzional motaren bat duten emakumeen artean (2020)	170. orr.
4. Sexu-jazarpen errepikakorra edo <i>stalkinga</i> dibertsitate funtzional motaren bat duten emakumeen artean (2020)	171. orr.
vi. Sexu-indarkeriak eta atzerrian jaiotako emakumeak (2019)	171. orr.
1. Bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-erasoa eta sexu-abusua emakume atzerritarren artean (2019)	171. orr.
2. Sexu-jazarpena emakume atzerritarren artean (2019)	172. orr.
3. Sexu-jazarpen errepikakorra edo <i>stalkinga</i> emakume atzerritarren artean (2019)	173. orr.
vii. Sexu-indarkeriak eta udalergi txikietan bizi diren emakumeak (2019)	173. orr.
1. Bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-erasoa eta sexu-abusua udalergi txikietan bizi diren emakumeen artean (2019)	173. orr.
2. Sexu-jazarpena udalergi txikietan bizi diren emakumeen artean (2019)	174. orr.

	3. Sexu-jazarpen errepikakorra edo <i>stalkinga</i> udalerritxikietan bizi diren emakumeen artean (2019)	175. orr.
	h. EMAKUMEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIEEN INGURUKO PERTZEPZIOA: SEXU-ERASOA ETA SEXU-ABUSUA, SEXU-JAZARPENA, SEXU-INDARKERIA DIGITALA (2023) ETA BEHARTUTAKO EZKONTZAK (2018)	175. orr.
	i. Gaurkotasun-gaiei buruzko inkesta: emakumeen aurkako sexu-indarkeria. Datu-aurrerapena (2023ko urtarrila): Ikerketa Soziologikoen Zentroa	175. orr.
	ii. «No acepto». Aproximación a los matrimonios forzados en España desde la mirada de las profesionales y los profesionales de la Comunidad de Madrid y Cataluña inkesta. (2018): Federación de Mujeres Progresistas	180. orr.
	i. FEMINIZIDIO SEXUALA (2022)	181. orr.
	i. Feminizidioen arteko konparazioa: feminizidio sexuala (2022)	181. orr.
8.	TOKI-ERAKUNDEEN HURBILKETA ETA ESKU-HARTZEA SEXU-INDARKERIEI BURUZ	182. orr.
	a. UDALEN BETEBEHARRAK SEXU-INDARKERIEI BURUZ	182. orr.
	b. SEXU-INDARKERIEEN EMAKUME BIKTIMA EDO BIZIRAULEAK ARTATU, ESKU HARTU ETA BABESTEKO ZERBITZU PROPIOAK	186. orr.
	c. SEXU-INDARKERIEI BURUZKO ESKU-HARTZE ETA PREBENTZIO EKINTZAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK	199. orr.
	d. EBALUAZIO-SISTEMARAKO PROPOSAMENAK	202. orr.
9.	SEXU-INDARKERIEEN ERANSKETA ATENPRO ZERBITZUAN	205. orr.
	a. TESTUINGURUA	205. orr.
	b. SEXU-INDARKERIAK ATENPRO ZERBITZUAN SARTZEKO IRADOKIZUN OROKORRAK	206. orr.
	c. BERARIAZKO IRADOKIZUNAK	213. orr.

i.	Sexu-indarkeriak artatzeko protokolo proposamena	213. orr.
ii.	Ikerlanaren xedearen biktimak diren eta ATENPRO erabiltzen duten emakumeei laguntzen dieten profesionalaren gainbegiratze tekniko, etengabeko trebakuntza eta espezializazioa sustatzeko neurri zehatzen proposamenak	214. orr.
1.	Trebakuntza-ibilbidea	214. orr.
2.	Ebaluazio-sistema	217. orr.
10.	ONDORIOAK	219. orr.
11.	BIBLIOGRAFIA	222. orr.
12.	1. ERANSKINA-GALDETEGIA	239. orr.

1. SARRERA

Osasunaren Munduko Erakundearen (OME) arabera, sexu-indarkeria da: «edozein sexu-ekintza, sexu-ekintza burutzeko saialdiak, nahi gabeko sexu-iruzkinak edo sexu-intsinuazioak, edo pertsona baten sexualitatea merkaturatzeko edo beste edozein modutan erabiltzeko ekintzak beste pertsona batek derrigortuta, alde batera honek biktimarekin duen harremana, edozein esparrutan, bizilekua eta lantokia barne»¹.

Emakumeen aurkako sexu-indarkeriari dagokionez, haien aurkako generoagatiko indarkeriaren agerpen bat da. Hori dela eta, giza diskriminazio mota bat da eta giza eskubideak urratzen ditu². Sexu-indarkeriak zenbait mota edo agerpen dituzenez, sexu-indarkeriez mintzatuko gara, pluralean. Emakume guztiek dute sexu-indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea. Eskubide hau interdependentea da eta beste giza eskubideekin lotzen da; horrez gain, berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubideekin lotura estua du, interseksionala barne³. Emakumeek emakumeak izateagatik edo neurritz kanpo⁴ jasaten dituzten sexu-indarkeriek honako hauek hartzen dituzte: sexu-erasoa; sexu-jazarpena; sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa; emakumeen genitalen mutilazioa (EGM); behartutako ezkontza (BE), eta esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak, sexu-indarkeriazko ekintzen hedapena, baimenik gabeko pornografia eta ingurune teknologikoen bitarteko sexu-estortsioa barne.

¹ Osasunaren Munduko Erakunde. Datarik gabe. «Violencia contra la mujer: violencia de pareja y violencia sexual contra la mujer». 239. ohar deskriptiboa.

² «Emakumeen aurkako generoagatiko indarkeria» erabiltzen dugu Emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko Batzordearen 35. gomendio orokorra, *Emakumearen aurkako generoagatiko indarkeriari buruzkoa*, 2017ko 19. Gomendio orokorra eguneratzen duenari jarraituz.

Emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko Batzordea. 2017. 35. gomendio orokorra, *Emakumearen aurkako generoagatiko indarkeriari buruzkoa*, 2017ko 19. Gomendio orokorra eguneratzen duena.

³Aurrekoa, giza eskubideei buruzko nazioarteko eta Europako esparruaren arabera. Zentzu honetan, Estatu espainolak hurrengoak berretsi ditu Giza Eskubideak Babesteko Sistema Unibertsalaren baitan: Eskubide zibil eta politikoen Nazioarteko Ituna; Eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen Nazioarteko Ituna; Emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa, Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa; Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa; Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa; Ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa, eta Derrigorreko desagertzeen aurka pertsona guztiak babesteko Nazioarteko Konbentzioa. OITari dagokionez, 189 eta 190 hitzarmenak. Europako Kontseiluaren baitan, Giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteko Hitzarmena eta 12. protokoloa, diskriminazioa orokorrean debekatzeari buruzkoa; Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeria aurreikusi eta aurre egiteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena); Gizakien salerosketaren aurkako ekintzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Varsoviako Hitzarmena); Ziberdelinkuentziari buruzko Hitzarmena (Budapesteko Hitzarmena), eta Haurrak sexu-esplotazioaren eta sexu-abusuaren aurka babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Lanzaroteko Hitzarmena). Europar Batasunaren baitan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratua eta Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna; horrez gain, diskriminazioaren aurkako eta delituen biktimei buruzko zenbait zuzentarau. Gainera, genero-indarkeriaren aurkako zuzentaraua egiten ari da eta, duela gutxi, Europar Batasunak bat egin du Istanbulgo Hitzarmenarekin.

⁴ Ikusi: Emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko Batzordea. 1992. 19. gomendio orokorra (1992) *emakumearen aurkako indarkeriari buruzkoa* eta «35. gomendio orokorra...», *Op. cit.*

Espainian, ikerlan honetan sakonduko dugun moduan, 2019ko Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkestaren (2019ko EIM) arabera, bi emakumetik batek indarkeria matxista motaren bat jasan du bizitzan zehar. Gainera, Espainian bizi diren 16 urtetik gorako emakume guztietatik, 1.322.052k (% 6,5) sexu-indarkeria jasan dute harremana ez duten eta inoiz izan ez duten pertsona baten partetik bizitzako uneraren batean, eta 103.487 emakumek (% 0,5) azken 12 hilabeteetan⁵. Ulertzen dugu emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko datuak gutxi gorabeherakoak direla indarkeria honen ezaugarriak direla eta. Halaber, ikerlan honetan garatuko dugun moduan, sexu-indarkeriaren agerpen batzuei arreta handiagoa jarri zaie eta beste batzuei gutxiago.

Datuok erakusten digute oraindik zenbait neurri hartu eta garatu behar direla emakumeen aurkako sexu-indarkeria mota, agerpen eta esparru guztiak desagerrarazteko. Estatu espainolak behar adinako arretaz jokatu behar du prebenitu, ikertu, zigortu eta biktimak edo bizirauleak osorik ordaintzeko. Zentzu honetan, «Estatuak behar adinako arretaz jarduten duela aintzakotzat hartzeko, ezin du indarkeria matxistei buruzko ez mitorik ez genero-urreiritzirik ez genero-estereotiporik izan, eta genero-ikuspegia eta interseksionalitate-ikuspegia aplikatu beharko ditu. Bestela, ezin izango da aintzakotzat hartu»⁶. Halaber, Estatuak sexu-indarkerien biktimetarako eta bizirauleentzako osoko zerbitzu espezializatuak izan behar dituzte. Horrez gain, datuak bildu, sexu-indarkeriei buruzko ikerketak garatu, prebentzio-kanpainak burutu eta kasuotan esku hartzen duten profesionalak trebatu behar dituzte. Ikerlan honetan jorratuko dugunez, sexu-indarkerien aurreko eginbeharrek ez dute soilik hartzen Estatuak edo erkidegoko esparrua, baizik eta tokikoa ere⁷. Toki-erakundeek, ahalmen publikoak izanik, Estatuak giza eskubideei buruz dituzten nazioarteko eginbeharren ondorioz dagozkien betebeharrak bete behar dituzte. Honek esan nahi du toki-erakundeek kontuan hartu eta errespetatu behar dituztela giza eskubideei buruzko arauak eta nazioarteko estandarrak bere laneko esparru guztietan, bertako eskumenek eskubide jakin bat sustatzeko ardura zuzena hartzen dutenean ere.⁸

Autonomia-erkidegoetako legediek indarkeria matxistaren forma ezberdinak hartu arren, bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-indarkeriak barne, estatu-mailan 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa, bikotekideak edo bikotekide ohiak burututako generoagatiko indarkeriara bideratu da, eta baztertu ditu bikotekidea, bikotekide ohiak edo ezagunak ez direnak burututako sexu-indarkeriak. Hori dela eta, Espainiak estatu-mailan ez dauka sexu-indarkerien biktima edo biziraule guztiak babesteko esparru egokirik. Hala ere, azken

⁵Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. 2019. *Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkesta*. Berdintasun Ministerioa. Espainia.

⁶Tania Sordo Ruz. 2022. *Prácticas de reparación de violencias machistas. Análisis y propuestas*. Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza. Berdintasun Ministerioa, 25. orr.

⁷Toki-erakundeek emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruz dituzten eginbeharrez, ikusi: María Naredo Molero. «La responsabilidad municipal frente a las violencias sexuales. La experiencia local a la luz del marco internacional de derechos humanos». Maria Freixanet Mateo (koord.)-en. 2020. *Violències sexuals: política pública perseguint-ne l'erradicació*. Bartzelona. Politika eta Gizarte Zientzien Institutua, 170-195 orr.

⁸Giza Eskubideen Aldeko Nazio Batuen Goi-Komisarioaren txostena. 2022. *La administración local y los derechos humanos*.

urteotan sexu-indarkerietara bideratutako zenbait neurri hartu dira, ikerlan honetan zehaztuko dugun moduan (adibidez, 016 zerbitzua indarkeria matxista mota desberdinetara zabaltzea, feminizidio sexuala zenbaketetan feminizidio motatzat hartzea edo sexu-indarkeriak artatzeko berriazko 24/7/365 osoko baliabide espezializatuak sustatu eta finantzatzea).

Estatu-mailan dagoen arau-hutsunea betetzeko, indarrean jarri zen 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa (LOGILS). Honetarako, zerikusi handia izan zuen mugimendu feministen erreakzioak emakumeen aurkako sexu-indarkeria kasu paradigmaticoei eta erantzun judizialari, eta baita ere Estatu espainolak Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeria aurreikusi eta aurre egiteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena, 2011) berretsi izanak 2014an, indarrean jarri zen urtean bertan.

LOGILSak, zioen azalpenean dioenez, sexu-indarkerien prebentzioa sustatu eta biktimen edo biziraileen eskubideak bermatzeko asmoa dauka. Halaber, horrela definitzen ditu sexu-indarkeriak 3.1 artikuluan, aplikazio-eremuan:

«1. Lege organiko honen aplikazio-eremuak sexu-indarkeriak hartzen ditu barne. Sexu-indarkeriatzat hartuko da izaera sexuala duen edozein ekintza, baimenik gabea bada edo sexu-bizitzaren garapen askea baldintzatzen badu, edozein esparru publiko edo pribatutan, esparru digitala barne. Aplikazio-eremuak barne hartzen du, estatistikari eta ordainari dagokienez, feminizidio sexuala. Feminizidio sexuala izango da emakumeen eta neskatoen homizidioa edo erailketa, baldin eta hurrengo paragrafoan sexu-indarkeriak barne hartzen dituen jarrereri lotuta badago.

Sexu-indarkeriatzat hartuko dira 10/1995 Lege Organikoan, azaroaren 23koan, Zigor Kodeari buruzkoaren II. Liburuaren VIII. Tituluan aurreikusten diren delituak, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontza, sexu-konnotazioa duen jazarpena eta sexu-esplotazioa bideratutako salerosketa. Arreta berezia jarriko zaie esparru digitalean burututako sexu-indarkeriei, zeinak sexu-indarkeriazko ekintzak zabaltzea, baimenik gabeko pornografia eta haurrena batez ere, eta ingurune teknologikoen bidezko sexu-estortzioa hartzen dituen»⁹.

Testuinguru honetan eta sexu-indarkeriei buruzko Espainiako egoerari buruzko ezagutza genero- eta giza eskubideen ikuspegitik eta ikuspegi intersektorialetik zabaltzeko asmoz, arreta berezia jarriko da tokiko esparruari, baita Genero-indarkeriaren biktimentzat telefono bitarteko arreta eta babes zerbitzuan (ATENPRO) sexu-indarkeriak eransteko asmoz, Federación Mujeres Jóvenes (FMJ), Udalerrien eta Probintzien Federazioaren (FEMP) enkarguz, ikerlan hau egin dugu, «Sexu-indarkeriazko jarrereri eta toki-administrazioaren hurbilketari eta esku-hartzeari buruzko ikerlana» izenekoa.

⁹10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa, 3.1 artikulua.

Horretarako, lehenik eta behin azalduko ditugu helburuak, metodologia eta aurretiko gogoeta batzuk, gure ustez kontuan hartu behar direnak sexu-indarkeriei heltzen dieten lanak egitean Espainiako testuinguruan. Gero, azalduko dugu zer den ATENPRO eta helduko diegu emakumeen aurkako sexu-indarkeriei, arreta berezia jarriz Estatuak giza eskubideak babesteko dituzten eginbeharrei nazioartean eta Europaren baitan. Ondoren, sexu-indarkerien Espainiako egoerari buruzko diagnostikoa egingo dugu, paregabatzat jotzen duguna sexu-indarkeria mota desberdinei heltzeko egiten duen bilketagatik. Izan ere, hurrengoetan zentratzen gara ikerlan honetan: sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE eta esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak.

Ikerlana jarraituko dugu toki-erakundeen sexu-indarkeriei buruzko hurbilketa eta esku-hartzea garatuz. Horretarako, adieraziko ditugu toki-erakundeen eginbeharrak sexu-indarkeriei dagokienez; helduko diegu sexu-indarkerien emakume biktima edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko toki-zerbitzuei; ezarriko ditugu sexu-indarkeriei buruzko esku-hartze eta prebentzio ekintzak hobetzeko proposamenak, eta egingo ditugu ebaluazio-sistemarako proposamenak. Gero, aztertuko dugu ATENPROn sexu-indarkeriak eranstearekin lotutako guztia, eransketa honen testuingurua barne, eta iradokizun orokorrak eta berariazkoak, azken hauek sexu-indarkeriak artatzeko protokoloetan eta ikerlanaren xedearen biktimak diren eta ATENPRO erabiltzen duten emakumeei laguntzen dien talde profesionalaren gainbegiratze teknikoak, etengabeko trebakuntza eta espezializazioa sustatzeko neurri zehatzen proposamenetan zentratuta, arreta berezia jarriz trebakuntza-ibilbideari eta ebaluazio-sistemari. Azkenik, ikerlanaren ondorioak azalduko ditugu.

Sarrera amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu ikerlanerako diseinatu genuen galdetegiari erantzun zioten profesional guztiei eta egin genituen elkarrizketa sakonetan eskuzabaltasun osoz bere esperientzia partekatu zutenei sexu-indarkerien biktima edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko toki-zerbitzuak aztertzeko; hala nola ahalbidetu zuten erakunde eta elkarteei, besteak beste: Inmaculada Moreno, Laura Ocaña eta Macarena Repetto, AMUVI elkartekoak; Goizane Mota Gago, Bilboko Udaleko Emakume, osasun eta indarkeria programakoa; Silvia Pauls, Mataróko Udaleko Berdintasun eta Hiritarren Dibertsitate Zerbitzukoak; Ester Pagès Arenas eta Naxheli Beas, Bartzelonako Associació d'Assistència a Dones Agredides Sexualment (AADAS) elkartekoak; Blanca Torres Ecay eta Pilar Baigorri Lerga, Iruñeko Udaleko Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzukoak (SMAM); Inmaculada Sánchez, Albaceteko Udalekoa; Natalia Alcázar Ruiz, Madrilgo Udaleko eta ASPACIA fundazioko Benita Pastrana Sexu-indarkeriaren aurkako arreta osorako zentrokoak; Yolanda Ibáñez Gómez, Portugaleteko Udalekoa; Ana García Barbeito eta Constanza Funez, Madrilgo Udaleko eta TRABE elkarteko Mariana Pineda Salerosketa eta prostituzio testuinguruan giza eskubideen aurkako beste abusuen biktimentzako larrialdietarako zentrokoak, Yolanda Mar Calle Pomar, Boadilla del Monteko Udaleko Genero-indarkeriaren aurkako eskualdeko behatokiaren udalgunekoa; María José Álvarez Martínez, Sagardoaren Eskualdeko Mankomunitateko Emakumearen laguntza zentrokoa; Belén Martín, Madrilgo Udaleko eta ASPACIA Fundazioko Pilar Estebáñez Sexu-indarkeriaren aurkako krisi zentrokoa; Ana Gaspar

Cabrero, Zaragozako Udaleko Berdintasun Zerbitzuko; Silvia García Varona, Madrilgo Udaleko eta TRABE elkarteko Concepción Arenal Emakumeentzako arreta-zentrokoa; Mariti Pereira, Asturiasko CAVASYM Sexu-erasoen eta tratu txarren biktimantzako arreta-zentrokoa; Carolina Conrado Medina eta Lina Esther Ramos Carrillo, Tenerifeko Sexu-indarkeriaren biktimantzako arreta-zentrokoa (CAVIS); María Francisca Tray Botiri eta Dunia Suárez Rodríguez, Kanariar Uharteetako Sexu-indarkeriaren Prebentzio eta Biktimantzako Osoko Esku-hartze Zerbitzukoak; Gemma Uix Carrión, Bartzelonako Udaleko SARA Arreta, Suspertze eta Harrera Zerbitzuko; María Paz Amores Sepúlveda, Campo de Criptanako Emakumearen Zentrokoa; Ana Laura Iglesias, Vigoko Udalekoa, eta Mar Rodríguez, Emakumeen Eskubideen Informaziorako Udal Zentrokoa; Victoria Carbajal Fernández, Asturiasko Sexu-erasoen biktimantzako krisi zentrokoa; María Pilar Fernández Jiménez eta Cristina Cuevas, Gaztela-Mantxako Emakumearen Institutuko Contigo programa, bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-erasoen emakume biktimantzako arreta psikologikorako programakoak; Marina Cobas, Mallorcako Kontseiluko Emakumearen Informazio Zentrokoa; Ana Lidia Fernández-Layos Fernández, Opciónate, Kanaria Handiko Kabildoko Ziberindarkeria Matxisten Prebentzio eta Arreta Uharteetako Zerbitzuko (SIPACM); Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza; ATENPRO; 016 Zerbitzua; Emakumearen Andaluziako Institutua; Sevillako Diputazioa; Madrilgo Udala; Gurutze Gorria; ASPACIA fundazioa; TRABE elkartea; Delitu Informatikoen Espainiako Behatokia; Marta González Manchón eta Carmen Bruñó Moya; ESPERANZA-Adoratrices proiektukoak; Nerea Sancho Sánchez, UNAF Familia Elkarteen Batasuna, EGMtik Bizirik Atera diren Emakumeentzako Prebentzio eta Osoko Arreta Zerbitzua; Hodan Sulaman Youssouf, Munduko Medikuetakoak; Carme Vinyoles Casas, Gironako Valentès i Acompanyades elkarteko; Ana Delgado Hernando, APRAMPekoa; Beatriz Escaño Valentí, WASSU-Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa (UAB) fundaziokoa; Laia Serra, sexu-indarkerietan espezializatutako abokatua; Noemí Pereda, doktorea Psikologia klinikoan eta Osasunaren psikologian eta Biktimologia irakasle titularra UABn, haurren aurkako sexu-indarkerian espezializatuta; María Naredo, indarkeria matxistan espezializatutako jurista eta Berdintasun Ministerioko aholkularia; Maria Barcons, UABko Antígona taldekidea eta doktorea Zuzenbidean «Los matrimonios forzados en el Estado español: un análisis socio-jurídico desde la perspectiva de género» izeneko tesiarekin (2018).

2. HELBURUAK

«Sexu-indarkeriazko jarrerei eta toki-administrazioaren hurbilketari eta esku-hartzeari buruzko ikerlana»ren **helburu nagusia** da Espainian emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko diagnostikoa egitea, sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE edo esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak barne; eta toki-administrazioak gaiaren gainean egiten dituen hurbilketa eta esku-hartzea aztertzea, sexu-indarkeriei buruzko betebeharrak kontutan hartuz, zenbait proposamen egiteko, arreta berezia jarriz ATENPROn sexu-indarkerien eransketari.

Ikerlanaren **berriazko helburuak** hurrengoak dira:

- Emakumeen aurkako sexu-indarkeriei dagokienez Estatu espainolak dituen eginbeharrei buruzko nazioarteko eta Europako esparrua ezartzea, bereziki toki-betebeharrei buruz, kontuan hartuz batez ere kasu hauetan prebenitu, babestu, ikertu, zigortu eta osorik ordaintzeko behar adinako arreta.
- ATENPRO zer den eta bere ezaugarriak azaltzea.
- Espainian emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko diagnostikoa egitea, hurrengo sexu-indarkeria formak kontuan hartuz: sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotazioa bideratutako salerosketa, EGM, BE eta esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak.
- Sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko toki-zerbitzuei buruzko analisia egitea gaiari buruzko betebeharrak betetzen dituzten aztertu eta bere esperientzietatik ikasteko.
- Sexu-indarkeriei buruzko esku-hartze eta prebentzio ekintzak hobetzeko eta ebaluazio-sistema bati buruzko proposamenak garatzea.
- ATENPROn sexu-indarkerien eransketaren testuingurua ezartzea, iradokizun orokorrak eta berariazkoak barne, azken hauek sexu-indarkeriak artatzeko protokoloetan eta ikerlanaren xedearen biktimak diren eta ATENPRO erabiltzen duten emakumeei laguntzen dieten profesionalen gainbegiratze teknikoak, etengabeko trebakuntza eta espezializazioa sustatzeko neurri zehatzen proposamenetan zentratuta, arreta berezia jarriz trebakuntza-ibilbideari eta ebaluazio-sistemari.

2023ko martxoaren 17tik aurrera hurrengo **egin da**:

- Espainian sexu-indarkeriaren egoera aztertu gaiari buruzko diziplina desberdinetako zenbait iturri aztertuz.
- Emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko nazioarteko, Europako, estatuko eta erkidegoetako arauak berrikusi eta aztertu.
- Toki-erakundeek emakumeen aurkako sexu-indarkerien gainean dituzten eginbeharrak berrikusi eta aztertu.
- ATENPRO zer den eta bere ezaugarriak aztertu.
- Lehen eta bigarren mailako informazio- eta kontsulta-iturriak berrikusi eta aztertu, besteak beste:

- Gaur egun eskura daitezkeen genero-indarkeriari buruzko datu estatistiko ofizialak sexu-indarkeria aztertu ahal izateko: 2019ko EIM, Emakumearen aurkako indarkeriaren estatu behatokiaren urteko txostena, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak sustatutako azken ikerlanak, EIGE (*Genero Berdintasunerako Europako Institutua*) eta gai honi buruzko nazioarteko edo akademia-esparruko erakundeak, giza eskubideetan espezializatutako nazioarteko erakundeak, eta erakunde eta elkarte feministak.
- Berdintasun Ministerioko Emakumearen aurkako Gobernu Ordezkaritzaren urteko eta hilabeteko estatistika-buletinak, estatistikak, inkestak, ikerlanak eta ikerketak.
- Berdintasun Ministerioko Emakumearen aurkako Gobernu Ordezkaritzaren Autonomia-erkidegoek emakumearen aurkako indarkeriari dagokionez dituzten baliabideei buruzko estatistika (DERA 2020).
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren emakumearen aurkako indarkeriari buruzko datuak eta Espainiako botere judizialaren epai-estatistikak, ikerlanak eta txostenak.
- Etxeko eta genero-indarkeriaren aurkako behatokia.
- Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko Teknologia eta gizartearen nazio behatokiak (ONTSI), Digitalizazioaren eta Adimen Artifizialaren Estatuko Idazkaritzaren bitartez, argitaratutako datuak, eta genero-indarkeria digitalari buruzko *Policy Brief* segidaren baitako txosten batean argitaratutako datuak.
- Kriminalitate Estatistika Atariko datuak, Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko txostena (2015-2019), Sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txostena (2021), eta Barne Ministerioko beste artxibo eta dokumentu batzuk.
- Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko argitalpenak eta berriak.
- Osasun Ministerioko argitalpenak eta Osasuna datuetan.
- Osasun Ministerioko Emakumeen Osasunaren Behatokia. Iturri honetatik, besteak beste:
 - Jardunbide egokiak Espainiako Osasun Sistemaren osasun-jarduketaren baitan genero-indarkeriaren aurrean, 2012tik aurrera.

- Urteko txostenak osasun-jarduketari buruz Espainiako Osasun Sistemaren genero-indarkeriaren aurrean, 2005tik aurrera.
 - Espainiako Osasun Sistemaren protokoloak, gidak eta tresna komunak osasun-jarduketarako genero-indarkeriaren aurrean, 2007tik aurrera.
 - Espainiako Osasun Sistemaren kalitate-adierazleak eta irizpide komunak osasun-jarduketarako genero-indarkeriaren aurrean, 2007tik aurrera.
- Next Generation EU funtsen jarraipen-txostena. 3. eranskina: Indarkeria matxistaren biktimak artatu eta babesteko gailuak modernizatu eta zabaltzeko proiektua PRTR planaren baitan. ATENPRO zerbitzua. Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresistentzia Plana
 - «Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko politika eta zerbitzuen katalogoa giza eskubideen nazioarteko estandarren arabera», Berdintasunerako Konferentzia Sektorialean onartu zena, eta *2023ko martxoaren 16ko ebazpena, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Idazkaritzarena, Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren Akordioa, 2023ko martxoaren 3koa, hainbat urterako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko plan bateratua onartzen duena (2023-2027), argitaratzen duenaren 1. eranskina dena.*
 - Nazioarteko Estatistika Institutua (INE).
 - Ikerketa Soziologikoen Zentroa (CIS).
 - Langile Komisioak (CCOO) sindikatuaren ikerlanak eta argitalpenak.
 - CCOOren generoagatiko jazarpenaren eta sexu-jazarpenaren behatokia.
 - «Emakume eta neskatoen aurkako indarkeriarik gabeko hiri seguruak» (NBE Emakumeak) munduko programa sexu-jazarpena eta emakumeen eta neskatoen aurkako jendaurreko beste sexu-indarkeria motak prebenitu eta artatzeko osoko ikuspegiak egin, ezarri eta ebaluatzen dituena.
 - Indarkeria Digitalaren Behatokia.
 - Delitu Informatikoen Espainiako Behatokia.
 - Mujeres Fundazioaren Indarkeriaren Behatokia.

- «Apps sin violencia» [«Indarkeriarik gabeko aplikazioak»] (2022), emakumeek zita-aplikazioetan sufritzen duten sexu-indarkeriei buruzko ikerketaren txosten kuantitatiboa.
- Federación Mujeres Jóvenes en I. eta II. «Noches seguras para todas» txostenak (2020 eta 2021), emakumeek gau-aisian jasaten dituzten sexu-indarkerien inguruan.
- Calala Fondo de Mujeres.
- Femicidio.net.
- FemBloc.
- ANAR Fundazioa (arriskuan dauden haurrak eta nerabeak laguntzeko fundazioa).
- CERMI Mujeres Fundazioa.
- Aspacía Fundazioa.
- Fernando Pombo Fundazioa.
- UAB-Wassu Fundazioa.
- Geoviolencia Sexual.
- Hybridas.
- Parlamentu arteko Batasuna.
- Munduko Medikak.
- Pikara Magazine.
- Save a Girl Save a Generation.
- Save the Children.
- Themis.
- Gaiarekin lotutako artikulua, ikerlan eta argitalpenetan agertzen diren estatistikak, eta erakunde publiko zein pribatuek aurretik egindako ikerketak.

- Dialnet.
- Epdata, Europa Press.
- Eurostat – European Statistics.
- Statista.
- UAB.
- Barcons Campmajó, Maria. 2018. «Los matrimonios forzados en el Estado español: un análisis socio-jurídico desde la perspectiva de género». *Doktore-tesia*. UAB.
- *Frequency, Types, and Manifestations of Partner Sexual Violence, Non- Partner Sexual Violence and Sexual Harassment: A Population Study in Spain* ikerlana. 2022. Epidemiologia eta Osasun Publikoko Ikerketa Biomediko Zentroa Sarean Partzuergoa (CIBERESP) eta Osasun Publikoaren Andaluziako Eskola, Madrilgo Complutense Unibertsitatearekin batera.
- Federación Mujeres Progresistas. 2018. «"NO ACEPTO". Aproximación a los matrimonios forzados en España desde la mirada de las y los profesionales de la Comunidad de Madrid y Cataluña».
- Save a Girl Save a Generation. 2022. «Intervención en casos de mutilación genital femenina y matrimonio forzado. Orientaciones para profesionales que aborden la prevención de las MGF y los MF». CHAIN proiektua
- EIGERen Europar Batasunan (Danimarka, Espainia, Luxenburgo eta Suedia) emakumeen genitalen mutilazio arriskuan dauden neskato-kopuruaren balioespenari buruzko txostena. 2021.
- Madrilgo Complutense Unibertsitateko (UCM) Sexviol sexu-indarkeriak ikertzeko lantaldearen ikerketak eta artikulu zientifikoak.
- Salud y Familia elkarte. 2018. «ESCOGE: Evolución Intercultural de las Mujeres Jóvenes Pakistanís y sus familias».
- Naredo Molero, María. «La responsabilidad municipal frente a las violencias sexuales. La experiencia local a la luz del marco internacional de derechos humanos». Maria Freixanet Mateo (koord.)-en. 2020. *Violències sexuals: política pública perseguint-ne l'erradicació*. Bartzelona. Politika eta Gizarte Zientzien Institutua, 170-195 orr.

- Villacampa Estiarte, Carolina. 2019. «Aproximación al matrimonio forzados desde la óptica de las víctimas».
 - Villacampa, Carolina eta Torres, Nuria. 2019. «El matrimonio forzado en España».
 - Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitateko Aldizkari Zientifikoaren Ataria.
 - Revista CIDOB d’Afers Internacionals.
 - Revista Electrónica de Ciencia Penal y Criminología.
 - Revista Española de Investigación Criminológica.
 - Nazio Batuak.
 - Europako Kontseilua.
 - Europar Batasuna.
 - Europako Parlamentua.
 - Unicef.
- Gutxienez 25 toki-erakunderen mapatu, sexu-indarkerien emakume biktimak artatu, esku hartu eta babesteko zerbitzu propioak dituztenak, sare asoziatibo, zibil, sozial eta unibertsitatekoak barne, sexu-indarkerien emakume biktimentzako arretari buruzko informazioa biltzeko asmoz. Toki-erakundearen mapaketa egin eta egokitu, hurrengoak egin eta gero: harremanetan jarri; erantzun, baldintzak eta erabilgarritasuna baieztatu, egokitu eta zabaldu ikerlanean parte hartzeko helburuekin bat datozen baldintzak betetzen zituzten gutxienez 25 toki-erakunde biltzeko. Parte hartzeko udal edo institutuen bati baimena eskatu behar izan denean, horrela egin dugu.
 - 60 galderaz osatutako galdetegia diseinatu, toki-erakundeei zuzenduta, ordenagailutik edo mugikorretik linean erraz erantzuteko moduko tresnan (zenbait aztertu eta gero egokiena aukeratzeko) (1. eranskina), eta erakundeekin harremanetan jarri eta jarraipena egin galdetegiari erantzun ziezaioten.
 - Elkarrizketa sakona diseinatu, erakundearen esperientziaz ikasteko, informazioa biltzeko eta balioesteko, besteak beste, hurrengo adierazleak: arreta-prozedura sexu-indarkeria kasuetan; premiazko arreta-prozedurak sexu-indarkeria kasuetan; lehen esku-hartzea eta laguntza; jarraipena eta esku-hartze prozesuaren amaiera; arreta-prozedurak sexu-

indarkeria kasu zaharretan; udalen arreta- eta informazio-prozeduren berrikuspena eta eguneratzea sexu-indarkeria kasuen aurrean; ebaluazio-prozedura; zerbitzuen kalitateari buruzko adierazleak, eta erakundeen arteko koordinazioaren azterketa. Halaber, elkarrizketarako gidoia. Elkarrizketaren eta ematen zen informazioaren arabera, gida egokitu zen eta baimenei eta datuak babesteko agiriak egin ziren.

- Erakundeez gain, adituak identifikatu, haiekin ere elkarrizketa sakonak izatea beharrezkoa iruditu zitzaigulako. Horrez gain, garrantzitsua iruditu zitzaigun hitz egitea Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarekin, ATENPRO zerbitzuarekin berarekin eta 016 zerbitzuarekin bere esperientzia ezagutzeko zerbitzua emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria motetara zabaldu zutenean.
- Erakundeak, adituak eta beste identifikatuak elkarrizketatu.
- Jasotako informazio guztia aztertu.
- Ikerketa eta egikaritze-laburpena diseinatu eta idatzi.
- Ikerketa ingelesera, frantsesera, katalanera, galizierara eta euskarara itzuli.

3. METODOLOGIA

Ikerlanerako metodologia kuantitatiboa, kualitatiboa eta triangulatua baliatu dugu. Kuantitatiboa emakumeen aurkako sexu-indarkeriei heltzeko, arreta berezia jarriz Estatuaren betebeharrei, batez ere toki-esparrutik, giza eskubideak babesteko nazioartean eta Europaren baitan; ATENPROren ezaugarriak deskribatu eta ezartzeko, eta Espainian sexu-indarkerien egoeraren diagnostikoa egiteko, Espainian sexu-indarkeriei buruz indarrean dagoen material estatistikoa berrikusi, bildu eta, batzuetan, sortuz, egoera datuetan adierazteko moduko informazio estatistikoaren laburpena egin ahal izateko. Halaber, galdetegiko galdera batzuetan eta, beraz, hauen erantzunen bidez jasotako informazioan. Kualitatiboa elkarrizketa sakonen bidez. Eta triangulatuta ikerlanaren xedearen irudi holistikoagoa eskuratzeko asmoz. Horretarako, bildutako datu kuantitatiboek bat egiten dute elkarrizketa sakonen bidez egindako aurkikuntza kualitatiboekin, eta hauek ulermena eta gizatasuna ematen diete datu estatistikoaren orokortasunari.

Horrez gain, genero- eta eskubideen ikuspegia eta ikuspegi interseksionala aplikatu ditugu, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasotzeko zein ikerlan hau diseinatu eta burutzeko. Honek hurrengo esan nahi du:

- **Genero-ikuspegia:** Botere-harreman historiko eta asimetrikoak aintzatesten ditu eta gizarte orotan eraikitako rola, jarrerak, jarduerak eta atribuzioak identifikatzen ditu

eraldatzeko asmoz¹⁰. Indarrean dauden isuriak ezabatzen ditu, hauek emakumeen giza eskubideak urratzen dituztenez gero, bereziki berdintasunerako eta ez bereizteko eskubidea eta sexu-indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea.

- **Ikuspegi interseksionala:** Kontuan hartzen du emakume guztiak ez dituztela esperientzia, arrisku eta eragin berak sexu-indarkerien aurrean, ezta giza eskubideen urraketa berak ere. Izan ere, zapalkuntza-sistema edo desberdinkeria-ardatzen interseksioa dela eta (matxismoa, arrazakeria, klasismoa, kapazitismoa, helduzentrismoa, zisheterosexismoa, besteak beste), emakume batzuk aurre egin behar diete sexu-indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea baliatzeko trabei, haiei buruzko genero-estereotipo zehatzei eta diskriminazio interseksionalari¹¹.
- **Giza eskubideen ikuspegia:** Erdigunean jartzen ditu sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak, edozein mota, agerpen edo esparrutan gertatu direla ere, berdintasunerako eta diskriminazioa, interseksionala barne, ekiditeko eskubidea errespetatuz, bermatuz eta babestuz; genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala aplikatzen ditu, eta kontuan hartzen du behar adinako arreta sexu-indarkeria kasuak prebenitu, ikertu, zigortu eta osorik ordaintzeko, baita giza eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako esparruak ere.

Gure metodologiaren parte gisa, zenbait iturri aztertu ditugu, ikerlanaren Helburuetan aurretik adierazitakoak besteak beste (*supra.*), eta hurrengo **lan-faseak** jarraitu ditugu:

- **1. fasea:** Testuinguruan kokatzeko, Espainian sexu-indarkeriei buruzko egoera aztertu dugu esparruko zenbait diziplinari buruzko iturri desberdinak analizatu eta gero; emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko nazioarteko, Europako, estatuko eta erkidegoetako arauak berrikusi eta aztertu ditugu, baita toki-eginbeharrak emakumeen aurkako sexu-indarkeriei dagokienez. Jarraian, lehen eta bigarren mailako informazio- eta kontsulta-iturriak berrikusi eta aztertu ditugu, bildu ditugun informazio eta datu hauekin guztiarekin Espainian sexu-indarkeriei buruzko diagnostikoa egiteko. Horrez gain, ATENPROren ezaugarriak ikertu ditugu. Lehen fase honetan, halaber, gutxienez 25 toki-erakunde mapatu ditugu, sexu-indarkerien emakume biktimak hartu, esku hartu eta babesteko zerbitzu propioak dituztenak, sare asoziatibo, zibil, sozial eta unibertsitatekoak barne. Halaber, toki-erakundeen mapatzea egokitu eta zabaldu dugu ikerlanean parte

¹⁰Ikusi Istanbulgo Hitzarmenaren 3. artikulua.

¹¹Garrantzitsua iruditzen zaigu ikuspegi interseksionala anizkoitzaren desberdina dela zehaztea, diskriminazio interseksionala eta anizkoitza ere desberdinak diren moduan. Anizkoitzaren eta interseksionalaren arteko bereizketaz, ikusi: Tania Sordo Ruz. 2021. «La interseccionalidad en el derecho de las mujeres a una vida libre de violencias por razón de género y discriminación». Karlos A. Castilla Juárez (koord.)-en. *Derechos humanos desde una perspectiva interseccional*. Kataluniako Giza Eskubideen Institutua, 90-101 orr. Halaber, 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, tratu-berdintasunerako eta diskriminazioa ekiditekoak, hurrengo seinatzen du: «Diskriminazio anizkoitza ematen da pertsona batek lege honetan aurreikusten diren arrazoi birengatik edo gehiagorengatik diskriminazioa jasaten badu. b) Diskriminazio interseksionala ematen da lege honetan aurreikusten diren zerbait arrazoi aldi berean ematen direnean, edo elkarri eragiten diotenean, diskriminazio mota zehatz bat sortuz» (6.3 artikulua).

hartzeko helburuekin bat datozen baldintzak betetzen zituzten gutxienez 25 toki-erakunde biltzeko.

- **2. fasea:** Fase honetan 60 galderaz osatutako galdetegia diseinatu genuen, toki-erakundeei zuzenduta, ordenagailutik edo mugikorretik linean erraz erantzuteko moduko tresnan gauzatu genuen, eta erakundeekin harremanetan jarri eta jarraipena egin genien galdetegiari erantzun ziezaioten. Galdetegiari hurrengo erakundeek erantzun zioten¹²:

(1) AMUVI elkarte, Sexu-indarkeriaren emakume biktimentzako laguntza-zerbitzua Andaluzian. Biktima dagoen lekura doaz.

(2) Bilboko Udala, Emakume, osasun eta indarkeria programa. EGM eta BE prebenitzeko egiten dute lan.

(3) Mallorcako Kontseilua, Emakumearen informazio zentroa.

(4) Mataróko Udala, Emakumeentzako informazio eta sexu- eta genero-aniztasunerako arreta-zentroa.

(5) Bartzelonako Associació d'Assistència a Dones Agredides Sexualment (AADAS) elkarte.

(6) Iruñeko Udala, Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzua.

(7) ESPERANZA-Adoratrices proiektua, esplotaziora bideratutako salerosketaren emakume biktimentzako osoko arreta.

(8) Albaceteko Udala.

(9) Madrilgo Udala-ASPACIA fundazioa, Benita Pastrana Sexu-indarkeriaren aurkako osoko arreta-zentroa.

(10) Madrilgo Udala-ASPACIA fundazioa, Pilar Estebáñez Sexu-indarkeriaren aurkako krisi zentroa.

(11) Madrilgo Udala-TRABE elkarte, Mariana Pineda Salerosketa eta prostituzio testuinguruan giza eskubideen aurkako beste abusuen biktimentzako larrialdietarako zentroa.

(12) Madrilgo Udala-TRABE elkarte, Concepción Arenal Emakumeentzako arreta-zentroa, prostituzioan jarduten duten emakumeentzako osoko arreta.

¹²Kontuan hartzen ditugu baita ere toki-esparruan zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeak, galdetegiko erantzunetarako zein elkarriketa sakonetarako.

- (13) Portugaleteko Udala, Gizarte-zerbitzu eta Berdintasun Saila.
- (14) Vigoko Udala, Emakumeen Eskubideen Informaziorako Udal Zentroa.
- (15) Boadilla del Monteko Udala, Udaleko Genero-indarkeriaren aurkako eskualdeko behatokiaren udalgunea.
- (16) UNAF, EGMaren bizirauleentzako osoko arreta zerbitzua.
- (17) Sagardoaren Eskualdeko Mankomunitatea, Emakumearen laguntza zentroa.
- (18) Zaragozako Udala, Indarkeria sexisten emakume biktimentzako arreta psikologiko zerbitzua.
- (19) Munduko Medikiak, Madril, sexu- eta ugalketa-eskubide programa, EGM eta BE desagerrarazteko helburua duena.
- (20) Valentés i Acompañades, Girona/Salt, BE prebenitzeko egiten du lan eta biktimentzako indarberritzarako osoko arreta eskaintzen du.
- (21) Tenerifeko Sexu-indarkeriaren biktimentzako arreta-zentroa (CAVIS).
- (22) APRAMP.
- (23) Kanariar Uharteetako Sexu-indarkeriaren Prebentzio eta Biktimentzako Osoko Esku-hartze Zerbitzua, Gurutze Gorria, Las Palmas.
- (24) Bartzelonako Udala, SARA Arreta, Suspertze eta Harrera Zerbitzua.
- (25) Sevillako probintziako 20.000 biztanletik beherako udalerrietan indarkeria matxistaren emakume eta adingabe biktimentzako arreta psikologiko indibidualizatu eta zuzenerako zerbitzua, Sevillako Diputazioa.
- (26) Opciónate, Ziberindarkeria Matxisten Prebentzio eta Arretarako Uharteetako Zerbitzua (SIPACM), Kanaria Handiko Kabildoa. 2023ko irailean irekiko da, baina prebentzio- eta aholkularitza-lana egiten du jada.

Horrez gain, zerbitzu edo programa honen ezaugarriengatik eta bere esperientziatik ikasteko, erkidego-esparruko bi baliabidek erantzun zioten galdetegiari: Contigo programa, bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-erasoen emakume biktimentzako arreta psikologikorako programa, Gaztela-Mantxa (27) eta CAVASYM-Asturias Sexu-erasoen eta tratu txarren biktimentzako arreta-zentroa (28).

Bigarren fasearen baitan, elkarrizketa sakona diseinatu genuen baita ere, erakundeen esperentziaz ikasteko, informazioa biltzeko eta balioesteko, besteak beste, hurrengo adierazleak: arreta-prozedura sexu-indarkeria kasuetan; premiazko arreta-prozedurak sexu-indarkeria kasuetan; lehen esku-hartzea eta laguntza; jarraipena eta esku-hartze prozesuaren amaiera; arreta-prozedurak sexu-indarkeria kasu zaharretan; udalen arreta- eta informazio-prozeduren berrikuspena eta eguneratzea sexu-indarkeria kasuen aurrean; ebaluazio-prozedura; zerbitzuen kalitateari buruzko adierazleak, eta erakundeen arteko koordinazioaren azterketa. Halaber, elkarrizketarako gidoia. Elkarrizketaren eta ematen zen informazioaren arabera, gida egokitu zen eta baimenei eta datuak babesteko agiriak egin ziren.

Halaber, elkarrizketa sakonak egiteko beharrezkoak iruditu zitzaizkigun adituak identifikatu genuen eta garrantzitsua iruditu zitzaigun hitz egitea Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzarekin, ATENPRO zerbitzuarekin berarekin eta 016 zerbitzuarekin bere esperentzia ezagutzeko zerbitzua emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria motetara zabaltzean. Asturiasko Sexu-erasoen biktimenzako krisi zentroarekin elkarrizketa egitea erabaki genuen bere esperentziaz ikasteko. Izan ere, Espainian ireki zen bigarrena da, Madrilgo Udalak ireki zuenaren ondoren. Hurrengo erakunde, aditu eta besteei egin genien elkarrizketa:

- (1) AMUVI elkarte, Sexu-indarkeriaren emakume biktimenzako laguntza-zerbitzua Andaluzian.
- (2) Bilboko Udala, Emakume, osasun eta indarkeria programa. EGM eta BE lantzen ditu.
- (3) Mallorcako Kontseilua, Emakumearen informazio zentroa.
- (4) Mataróko Udala, Emakumeentzako informazio eta sexu- eta genero-aniztasunerako arreta-zentroa.
- (5) Bartzelonako Associació d'Assistència a Dones Agredides Sexualment (AADAS) elkarte.
- (6) Iruñeko Udala, Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzua.
- (7) ESPERANZA - Adoratrices proiektua, esplotaziora bideratutako salerosketaren emakume biktimenzako osoko arreta.
- (8) Albaceteko Udala.

(9) Madrilgo Udala - ASPACIA fundazioa, Benita Pastrana Sexu-indarkeriaren aurkako osoko arreta-zentroa.

(10) Madrilgo Udala - ASPACIA fundazioa, Pilar Estebáñez Sexu-indarkeriaren aurkako krisi zentroa.

(11) Madrilgo Udala - TRABE elkarte, Mariana Pineda Salerosketa eta prostituzio testuinguruan giza eskubideen aurkako beste abusuen biktimenzako larrialdietarako zentroa.

(12) Madrilgo Udala - TRABE elkarte, Concepción Arenal Emakumeentzako arreta-zentroa, prostituzioan jarduten duten emakumeentzako osoko arreta.

(13) Portugaleteko Udala, Gizarte-zerbitzu eta berdintasun Saila.

(14) Vigoko Udala, Emakumeen Eskubideen Infomaziorako Udal Zentroa.

(15) Boadilla del Monteko Udala, Udaleko Genero-indarkeriaren aurkako eskualdeko behatokiaren udalgunea.

(16) UNAF, EGMaren Emakume Bizirauleentzako Prebentzio eta Osoko Arreta Zerbitzua.

(17) Sagardoaren Eskualdeko Mankomunitatea, Emakumearen laguntza zentroa.

(18) Zaragozako Udala, Indarkeria sexisten emakume biktimenzako arreta psikologiko zerbitzua.

(19) Valentès i Acompanyades, Girona/Salt, BE prebenitzeko egiten du lan eta biktimenzako indarberritzarako osoko arreta eskaintzen du.

(20) Tenerifeko Sexu-indarkeriaren biktimenzako arreta-zentroa (CAVIS).

(21) APRAMP.

(22) Kanariar Uharteetako Sexu-indarkeriaren prebentzio eta biktimenzako osoko esku-hartze zerbitzua, Gurutze Gorria, Las Palmas.

(23) Bartzelonako Udala, SARA Arreta, Suspertze eta Harrera Zerbitzua.

(24) Sevillako probintziako 20.000 biztanletik beherako udalerrietan indarkeria matxistaren emakume eta adingabe biktimenzako arreta psikologiko indibidualizatu eta zuzenerako zerbitzua, Sevillako Diputazioa.

(25) CAVASYM - Asturias Sexu-erasoen eta tratu txarren biktimenzako arreta-zentroa.

(26) Campo de Criptanako Udala, Emakumearen Zentroa.

(27) Gaztela-Mantxako Emakumearen Institutua, Contigo programa, bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-erasoen emakume biktimenzako arreta psikologikorako programa.

(28) Asturiasko Sexu-erasoen biktimenzako krisi zentroa.

(29) Opciónate, Ziberindarkeria Matxisten Prebentzio eta Arreta Uhartetako Zerbitzukoa (SIPACM), Kanaria Handiko Kabildoak.

(30) UAB-WASSU Fundazioa.

(31) Delitu Informatikoen Espainiako Behatokia.

(32) ATENPRO.

(33) Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza.

(34) 016 zerbitzua.

(35) Laia Serra, sexu-indarkerietan espezializatutako abokatua.

(36) Noemí Pereda, doktorea Psikologia klinikoan eta Osasunaren psikologian eta Biktimologia irakasle titularra UABn, haurren aurkako sexu-indarkerian espezializatuta.

(37) María Naredo, indarkeria matxistan espezializatutako jurista eta berdintasun Ministerioko aholkularia.

(38) Maria Barcons, UABko Antígona taldekidea eta doktorea Zuzenbidean «Los matrimonios forzados en el Estado español: un análisis socio-jurídico desde la perspectiva de género» izeneko tesiarekin (2018).

- **3. fasea:** 1. fasean jasotako informazioarekin Espainian sexu-indarkerien egoerari, sexu-indarkeriei buruzko eginbeharrei buruz, bereziki udaletan, eta Espainian sexu-indarkeriei buruzko diagnostikotik eta ATENPROren ezaugarriei buruz ikertutakotik aurrera, eta 2. fasean galdetegietako erantzunetan eta elkarrizketetan bildutako informazioaz gero, ikerlanaren azken txostena garatu dugu, sexu-indarkeriei buruzko esku-hartze eta

prebentzio ekintzak hobetzeko eta ebaluazio-sistema bat garatzeko proposamenak gehitu ditugu, baita ATENPROn sexu-indarkeriak eransteko ere, sexu-indarkeriak artatzeko protokoloan, trebakuntzan eta ebaluazioan zentratuz. Halaber, egikaritze-laburpena egin da eta ikerlana zein laburpena ingelesera, frantsesera, katalanera, galizierara eta euskarara itzultzeko eskatu da.

4. ALDEZ AURRETIKO GOGOETAK

Ikerketa hau diseinatu eta garatzeko orduan, zenbait eztabaida agertu dira eta garrantzitsua iruditzen zaigu alde zuriaren gogoetak azaltzea. Gogoetok lotura dute, orokorrean, emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko analisi eta ikerketekin eta, bereziki, «Sexu-indarkeriazko jarrerari eta toki-administrazioaren hurbilketari eta esku-hartzeari buruzko ikerlana»ren helburuekin.

Hasteko, adierazgarria iruditzen zaigu ikerketa egin den testuingurua kontuan hartzea, sarreran azaldu dugunez (*supra.*). LOMPIVGak genero-indarkeriatzat jotzen duenez bikotekideak edo bikotekide ohiak bakarrik egiten burutzen duena, eta LOGILS berriki onartu denez, eta kontuan hartuz autonomia-erkidegoek indarkeria matxista mota, agerpen edo esparru desberdinak hartzen dituzten legeak dituztela, honek eragin du estatuko arauak Espainian indarkeria matxista desagerrarazteko borrokari dagokionez, duela gutxira arte, genero-indarkeria LOMPIVGak ulertzen duen moduan zentratu izana. Hori dela eta, ez dira babestu sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak ezezagunen partetik edo harremana ez duten edo inoiz izan ez duten eta ezezagunen partetik jasan dituztenean. Honek eragina izan du, halaber, bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-indarkerien biktimetzako edo bizirauleentzako osoko zerbitzu edo baliabideetan.

Amnistia Internazionalak 2018ko «Ya es hora de que me creas. Un sistema que cuestiona y desprotege a las víctimas» [«Sinets iezadazun garaia da. Biktimak eztabaidatzen eta babesgabekten dituen sistema»] txostenean adierazten zuenez, «hogeita hamar urtez ez da ez politika publikorik ez ekintza-planik egon sexu-indarkeria estatuan modu espezializatuan borrokatzeko»¹³. Modu berean, Amnistia Internazionalak baieztatu zuen sexu-indarkeriaren biktimetzako osoko arreta zerbitzuen eskasia eta gomendatu zuen «autonomia erkidego guztietan halaberrez gutxieneko osoko laguntza eta arreta zerbitzuak (zentro espezializatuak eta krisi-zentroak) ezartzea, sexu-indarkeriaren biktima eta biziraule guztiek, eta haien senideek —nonahi bizi direla ere—, jaso dezaten osoko arreta talde espezializatu baten partetik, giza eskubideen gutxieneko estandarrek ezartzen dutenaren arabera laguntza espezializatuari buruz», eta zehaztu zuen zentroek erabilgarritasun, irisgarritasun eta ez diskriminaziorako gutxieneko estandarrek bermatu behar zituztela¹⁴.

¹³Amnistia Internazionala. 2018. *Ya es hora de que me creas. Un sistema que cuestiona y desprotege a las víctimas*. Espainia, 14. orr.

¹⁴ *Ibidem*, 69. orr.

Modu berean, Europako Kontseiluaren baitan, Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxe- indarkeriaren aurkako borrokako adituen taldeak (GREVIO) hurrengo adierazi zuen Espainiaren lehen ebaluazio txostenean (2020): «Espainiak eskualde- eta toki-autonomia handia izan arren, desberdintasun handiak daude eskualdeen artean Hitzarmena ezartzerako orduan. Nahiz eta Espainiako agintariek zenbait koordinazio-neurri hartu, ez dira bermatzen antzeko babes eta laguntza mailak emakumeek jasan ditzaketen genero-indarkeria mota desberdinen aurrean. Hau bereziki esanguratsua da bikotetik eta bikote ohitik kanpo ematen diren indarkeria formen kasuan. Oso autonomia-erkidego gutxik eskaintzen dituzte sexu- erasoaren eta bortxaketaren biktimentzako zerbitzu espezializatuak, eta behartutako ezkontza, emakumeen genitalen mutilazioa, jazarpena eta behartutako esterilizazioa/abortua sufritzeko arriskua duten emakumeentzako babes-zerbitzu espezializatuak are eskasagoak dira, existitzen diren kasuetan»¹⁵.

Halaber, GREVIOk hurrengo adierazi zuen sexu-indarkeriaren biktimentzako babesaz: «Espainiako hiri handi batzuetan badaude bortxaketen eta sexu-indarkerien biktimentzako premia- zko laguntza-zentroak, batez ere probintzia-hiriburuetan. Zerbitzu hauek ospitale- eremuetan edo unitate espezializatuak eman ditzakete, hala nola CIMASCAMEk Madrilen eta AMUVIK Andaluzian. Hala eta guztiz ere, kopurua ez da inondik inora nahikoa herrialde osoan azterketa mediko eta forentseak egitea bermatzeko, ezta biktimei laguntzeko trauma kasuetan edo aholkatzeko ere. 17 autonomia-erkidegoetatik, zazpi bakarrik dute sexu- erasoaren eta bortxaketen biktimei zuzendutako zerbitzu espezializatuak; beraz, Espainiako zati handi bat babesgabe geratzen da, landa-esparruetan bereziki. Bortxaketen biktimentzako zerbitzu forentseak, aholkularitza eta trauma kasuetan laguntza eskaintzen dituzten premia- zko laguntza-zentroak ia ez dira existitzen»¹⁶. Hori dela eta, Espainiako agintariak neurriak hartzera premia- ztu zituen, «sexu-indarkeriaren biktimentzako larrialdietarako laguntza-zentro nahikoa» ezar zitzaten. «Zentro hauek biktimen behar guztiak hartu behar dituzte epe labur, ertain eta luzean, eta eskaini behar dituzte berehalako laguntza medikoa, kalitate handiko azterketa forentseak, laguntza psikologiko eta legala eta erakunde espezializatu- etara bideratzea»¹⁷.

Oraindik asko dago egiteke emakumeen aurkako sexu-indarkeriak desagerrarazteko, baina Espainian indarkerioi heltzeko modua aldatuz joan da mugimendu feministen borrokari esker eta sexu-indarkeria kasu entzutetsu batzuen aurreko erantzunari esker. Hori dela eta, sustatu eta finantzatu dira sexu-indarkeriak artatzeko berariazko 24/7/365 osoko baliabide espezializatuak, «krisi-zentroak» direlakoak; sexu-indarkerien aurreko jarduketa-protokoloak sortu dira; 016 indarkeria matxista mota desberdinetara zabaldu da eta feminizidio sexuala zenbaketetan feminizidio motatzat hartzea, besteak beste, gerora LOGILSan bildu ziren zenbait neurri. Horretarako, Istanbulgo Hitzarmena indarrean sartzea erabakigarria da ere bai. Estatu mailan, oso garrantzitsuak izan dira Genero-Indarkeriaren aurkako Estatu-ituna eta

¹⁵ GREVIO. 2020. *Primer Informe de Evaluación a España*. Europako Kontseilua, 10. orr.

¹⁶ *Ibidem*, 170. paragrafoa.

¹⁷ *Ibidem*, 174. paragrafoa.

Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresistentzia Plana; izan ere, honen ondorio dira aurretik adierazitako zenbait neurri.

Honela, uste dugu haxe dela ikerlan hau irakurri beharreko testuingurua, kontuan hartuta nondik gatozen eta aldaketa-unean gaudela. Une honetan autonomia-erkidegoak martxan jartzen ari dira sexu-indarkeriak artatzeko berariazko 24/7/365 osoko baliabide espezializatuak eta LOGILSaren neurriak ezartzen ari dira, hala nola sexu-indarkerien biktimen ziurtapena. Hauek funtsezkoak izango dira ATENPROn sexu-indarkeriak eransteko, bideratzeko eta erakundeen arteko koordinaziorako.

Bestalde, azpimarratu nahiko genuke, Espainian sexu-indarkeriei buruzko datuei eta estatistikei dagokienez, iturri ofizialak duela gutxi hasi zirela zenbatzen bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-indarkeria, eta horrek lotura duela datuak biltzeko egin dugun lanarekin eta jaso ditugun emaitzekin. Aurrekoarekin lotuta, ez dago sexu-indarkeria mota guztiak biltzen dituen iturri ofizialik; izan ere, mota batzuk biltzen dira eta bakoitza bere metodologiari jarraituz, nagusiki Emakumearen aurkako Indarkeriaren Makroinkestak eta Barne Ministerioak ematen duen informazioa, eta beste iturri batzuk kopiatzen dituzte gaiari buruzko estatistika eta ikerlan gehienetan¹⁸. Gainera, egokia iruditzen zaigu aintzat hartzea iturri bakoitzak jaso dezakeela sexu-indarkeriatzat jotzen duena, ez baitago definizio bateraturik (hau konpondu da LOGILSak emandako definizioarekin), eta ez direla kontuan hartzen halabeharrez ikerlan honetan hausnartzen ditugun sexu-indarkeriaren mota, agerpen eta esparru desberdinak edo jarrerak.

Horrez gain, seinalatu nahiko genuke iturri bakoitzak hizkera jakin bat erabiltzen duela. Guk batzuetan erabiltzen ditugu, iturria jarraituz, eta beste batzuetan aldatu dugu giza eskubideekiko egokiagoa iruditzen zaigun batengatik. Adibidez, nahiago dugu «haurrak eta nerabeak» «adingabeak» baino, «zaugarritasun egoeran» edo «zaugarritasuna» «zaugarriak» baino, eta «dibertsitate funtzionala» «ezgaitasuna» baino.

Halaber, adierazi nahiko genuke kontuan hartu behar dela sexu-indarkeriak lantzean, emakumeen aurkako generoagatiko indarkeriaren ezaugarriak direla eta, kopuruak hurbilketa izan ohi direla. Gainera, gure ustez, ikerketa-iturri nagusitzat ofizialak hartzen ditugunean, ez dugu baztertu behar praktikan gerta daitekeena edo zer adierazten duten estatistikek, legeek, politika publikoek edo baliabideek sexu-indarkerien emakume biktima edo biziraule baten bizitzan eta eskubideak bermatzean.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu ikerlan hau egiteko arreta berezia ipini diogula LOGILSari, dakartzan aldaketa guztiei eta oraindik ezarri behar diren neurriei; 8/2021 Lege Organikoari, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa

¹⁸Azpimarratu behar da 2023ko ekainean ezagutu zela Barne Ministerioako 2023-2027 Sexu-indarkerien prebentziorako plan estrategikoa. Besteak beste, Sexu-indarkeriak erregistratu, jarraitu eta prebenitzeko Sistemaren (Viosex) garapena eta inplementazioa ezartzen ditu. Ikusi: <https://de-pol.es/wp-content/uploads/2023/06/NUEVO-SUPUESTO.pdf>

(LOPIVI), eta 2022-2025 Indarkeria matxistari aurre egiteko Estatu-estrategiari. Halaber, emakumeek sexu-indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea beste eskubide batzuekin lotuta dagoenez, aintzat hartu dugu 1/2023 Lege Organikoa, otsailaren 28koa, 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa, aldatzen duena.

5. ATENPRO ZERBITZUAZ

ATENPRO martxan jarri zen 2004an «Genero indarkeriaren biktimetzako telelaguntza mugikorra» izenarekin, Ministroen Kontseiluak Genero-indarkeria prebenitzeko presako neurrien plana onartu zuenean, LOMPIVG indarrean jarri aurretik. Plan hau ministerio-sail askoren mende zegoen, eta Laneko eta Gizarte-gaietako Ministerioari zegokion —zehazki, orduko Gizarte Zerbitzu, Familia eta Ezgaitasunaren Estatu Idazkaritzari, IMSERSOaren bitartez— «babes agindua zuten genero-indarkeriaren biktimei telelaguntza zerbitzua ematea». Agindu hau betetzeko, IMSERSOak zabaldu zuen FEMParakin sinatu zuen telelaguntzarako hitzarmena, genero-indarkeriaren emakume biktimei (LOMPIVGak jasotakoaren arabera) berehalako eta urrutiko arreta eskaintzeko asmoz, eguneko 24 orduetan, eta urteko egun guztietan, zeuden lekuan zeudela ere. Zabalkuntza honek aurrerapauso esanguratsua suposatu zuen indarkeria matxista mota honen emakume biktimetzat¹⁹.

Bost urte beranduago, 2009an, Berdintasun Ministeriotik akordio bat sinatu zen FEMParakin, zerbitzua kudeatzeko mandatuarekin, eta 2010ean «Genero Indarkeriaren biktimetzat Telefono bitarteko Arreta eta Babesa Zerbitzua (ATENPRO)» izena jasotzera pasatu zen. Beraz, organikoki Berdintasun Ministerioa da, DGCVGren bitartez, ATENPROren titulartasuna duen erakundea, eta FEMP kudeaketaz arduratzen da. FEMPeke Berdintasunerako batzordeburuaren arabera, Federazioari hurrengo eskatzen zaio:

- Genero-indarkeriaren biktimei telelaguntza mugikor zerbitzua kudeatzea.
- Toki-erakundeak aholkatzea atxikitzeke eta baliabidea erabiltzeko baldintzei buruz.
- Toki-erakundeekin ATENPRO zerbitzuarekin gertakari arruntak egunero jarraitzea.
- Emakume biktimen alten eta bajen kudeaketa kontrolatzea eta jarraitzea.
- Ezohiko altak egunero balioestea eta tramitatzea.
- Zerbitzuari atxikitako toki-erakundeekin datu-basea egitea eta eguneratuta mantentzea.
- Zerbitzuaren kalitateko auditoretzak egitea osotasunean, kalitate-baldintzak eta zerbitzuaren maila ebaluatzeke.

¹⁹3. eranskina: Indarkeria matxistaren biktimak artatu eta babesteko gailuak modernizatu eta zabaltzeko proiektua PRTR planaren baitan. ATENPRO zerbitzua. NEXT GENERATION EU FUNTSEN JARRAIPEN-TXOSTENA.

- Berdintasun Ministerioari zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko informazioa hileroko ematea, xede estatistikoekin mikrodatuen fitxategi-informatikoa emanez²⁰.

Gaur egun eta 2012tik aurrera, lehiaketa-prozesu baten bitartez, Gurutze Gorriari dagokio zerbitzu hau ematea. Erakunde honek 2012ko agiriak eta jarduketa-protokoloa baliatzen ditu, eta ordutik luzatuta dago. Hala ere, 2010etik ATENPRO zerbitzurako bi jarduketa-protokolo egin dira FEMP eta dagokion ministerio-sailaren artean: bata 2010eko ekainaren 8an eta beste bat, indarrean dagoena, 2012ko uztailaren 27an. Data hortik aurrera ez da berriz eguneratu, baina, jakin dugunez, oso aurreratuta daude une honetan protokolo berri bat eguneratzeko lanak.

ATENPROren azken urteko memorian jasotzen ziren azalpenen arabera, honek «laguntza psikosoziala eta babes eskaintzen die emakumei eta bere seme-alabei, segurtasun-sentsazioa areagotuz, gune segurua sustatuz, eta konfiantzazko harremana sortuz esku-hartze eraginkor eta ordaingarriak ahalbidetzeko» edozein beharren aurreko arreta espezializatuaren bitartez, eta baliabideak berehala mobilizatuz, beharrezkoa bada, eguneko 24 orduetan, eta urteko egun guztietan²¹.

Praktikan, ATENPRO terminal mugikor bat ematean datza, emakume biktima arretazentzuekin harremanetan jar dadin edozein momentutan botoi bakar bat sakatuz, eta langileak edozein lekutik erantzuna eman diezaion biktimen egoerari. Zerbitzua ez da genero-indarkeriaren biktima erabiltzaileen noizbehinkako eskaerei erantzutera mugatzen; aldiz, jarduketak ere antolatzen ditu jarraipen iraunkorra egiteko xedearekin. DGCVGak aldizka argitaratzen ditu ATENPROko erabiltzaile-kopuruari buruzko datuak, hilabete, urte, probintzia eta autonomia-erkidegoaren arabera xehatuz²².

2005etik aurrera erabiltzaile aktiboen kopurua etengabe igo da, % 528era heldu arte; 2020an bakarrik 22.219 emakume artatu zituen eta 23.000 txosten baino gehiago kudeatu zituen, pandemia egoerarengatik urte berezia izan arren. 2022an, ATENPROk 25.666 emakume biktima artatu zituen eta urtea itxi zuen 17.062 emakume erabiltzaile aktiborekin. Emakume erabiltzaile aktiboen kopuruak % 2 egin zuen gora 2021arekin alderatuz, 2013tik aurrera urteko batez bestekotik behera. Batez beste, 19 hilabete ematen zituzten zerbitzuan. 2023ko ekainean, txostena egitean argitaratu zituzten azken datuen arabera, ATENPROn 17.499 erabiltzaile aktibo daude. Hilabete horretan bakarrik 903 alta erregistratu ziren, hau da,

²⁰FEMPeke Berdintasunerako batzordeburu den María Eugenia Rufino Morales andrearen agertzea, Estatu-tunaren baitan onartutako genero-indarkeriaren aurkako estrategiari buruzko Senatuaren Txostenetan jasotako akordioak jarraitu eta ebaluatzeko batzorde bereziaren aurrean, genero-indarkeriaren egungo egoera aztertzeko. 2021eko otsailak 17. Ikusi: https://www.congreso.es/public_oficiales/L14/SEN/DS/CO/DS_C_14_137.PDF

²¹ Urteko memoria. 2020. *Genero-indarkeriaren biktimentzat telefono bitarteko arreta eta babes zerbitzua (ATENPRO)*. Gurutze Gorria. Ikusi: <https://create.piktochart.com/output/60523234-memoria-atenpro-2022>

²²Datuak DGCVGaren Estatistika-atarian eta urteko eta hileko estatistika-buletinetan kontsultatu daitezke hurrengo esteken bitartez: <http://estadisticasviolenciagenero.igualdad.mpr.gob.es> eta <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/boletines/home.htm>

aurreko urtean baino % 6,2 gehiago. Beraz, bikote barruko indarkeria matxistaren emakume biktimak babestu eta artatzeko zerbitzuaren eskaerak goranzko joera jarraitzen du.

Zerbitzua plataforma teknologiko baten bidez eskaintzen da, adierazi dugunez, Gurutze Gorriaren partetik. ATENPROn alta arrunta eskatu dezakete genero-indarkeriaren emakume biktimek, indarrean dagoen azken Jarduketa-protokoloaren arabera (2012), baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- Tratu txarra eman dien pertsonarekin edo pertsonekin ez bizizea.
- Bere lurralde-mugapean dauden genero-indarkeriaren emakume biktimentzako arreta espezializatuko programetan parte hartzea.
- Indarrean dagoen babes-agindua edo urruntzeko neurria izatea, baldin eta igorri zuen epai-agintariak ez badu zerbitzu hau erabiltzailearen segurtasunerako kaltegarritzat hartzen (zerbitzu espezializatuen txosten teknikoek baldintza hau saihestu lezakete).

Alta arrunta bezala tramitatuko dira, baita ere, babes-agindua edo urruntzeko neurria indarrean ez duten eskaerek, baldin eta zigorraren iraupena edo urruntzeko neurriarena amaitu bada edo epai-prozesuan adostu ez bada.

Ezohiko altatzat jotzen dira oraindik salaketa jarri ez duten genero-indarkeriaren emakume biktimen eskaerak. Kasu hauetan, ATENPRO arduratuko da, salbuespenez eta aldi baterako, zerbitzua erabiltzeko eskatzen diren baldintzak ziurtatzen dituzten emakumez, baldin eta dagokion erkidegoko edo toki-administrazio publikoko gizarte-zerbitzuek/berdintasun zerbitzuek txosten bat igorri badute.


ATENPROn alta ematea udal gizarte-zerbitzuetatik tramitatzen da kasu zehatz bakoitza balioetsi eta gero, eta orain Gurutze Gorriak kudeatzen duen arreta-zentrorantz bidaltzen dute eskaera. Alta tramitatu eta gero, emakumeak zerbitzuan sartzen dira eta zazpi egun naturaleko epean terminala ematen eta zerbitzuaren funtzionamendua azaltzen diete. Terminala normalean ATENPRO zerbitzua ematen den Gurutze Gorriaren bulegoan ematen da eta, ezohiko kasuetan (erabiltzailea herri batean bizi bada eta ez badu hiriburura inola joateko modurik), dagokion gizarte-zerbitzuen zentroan.

Zerbitzu telefonikoak bi aukera ematen ditu bakarrik, geolokalizazioaz gain: arreta-zentroari dei egitea eta deiak jasotzea. Emakume biktimak soinean eraman behar du beti terminala larrialdietan erabili ahal izateko, eta behar adina dei egin ditzake, larrialdien aurreko alarmak zein arreta psikosoziala eskatzeko²³. Bere aldetik, arreta-zentroa harremanetan jarriko da bi astean edo hilean behin jarraipen-agenda deritzonean. Jarduketa-protokoloak adierazten du

²³Ikusteko edota entzuteko ezgaitasuna duten pertsonentzako terminal espezifiko bat dago. Bigarren kasu honetan, komunikazioak testu-mezuen bitartez egingo dira.

«emakumeak ezin badie deiei erantzun, lehenbailehen bueltatu behar ditu, bestela, zerbitzuan baja tramitatuko zaio»²⁴.

1. irudia




*Zerbitzuen oinarriko funtzionamendua — 2012ko Jarduketa-protokoloa

Pertsona arteko komunikazioen kasuetan, deiak bideratzen dira emakumearen egoera fisikoa zein gogo-aldarteaz interesatzera bideratutako arreta, laguntza eta pertsona arteko komunikaziora. Hauek emakumearekin berarekin adosten dira. Larrialdiengatik egindako komunikazioen kasuan, zentroak gehienez zortzi segundotan erantzungo du. Krisi-egoeran, egoera konpondu arte mantentzen da harremana emakumearekin²⁵.

2. irudia

²⁴Osasun, Gizarte-Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. 2012. *Protocolo de Actuación del Servicio Telefónico de Atención y Protección para Víctimas de la Violencias de Género (ATENPRO)*. II. eranskina.

²⁵Arreta-zentroak fitxategi eguneratua izan behar du, non bere udaleko eta eraginpeko eremuko larrialdietarako arreta-baliabideak agertzen diren, jarduketa-protokoloa aktibatzeke beharrezkoa izanez gero. Hori dela eta, garrantzitsua da erabiltzaileek arreta-zentroari jakinaraztea bere probintziatik ateratzen badira, helmuga berrian baliabideak bilatu eta bere segurtasuna bermatu ahal izateko.



*2012ko Jarduketa-protokoloa

Larrialdi-deiak lau motatan sailkatzen dira jarduketa-protokoloaren arabera:

- Alarmaurrekoa: Dei hauetan erabiltzaileak jakinarazten du erasotzailea gertu dagoela edo arriskutsua izan daitekeen egoera.
- Eraso-alarma: Dei hauetan erabiltzaileak jakinarazten du eraso gertatzen ari dela edo berehala gerta daitekeela.
- Osasun-larrialdia: Dei hauetan arreta eskatzen da jarduketa bizkorra behar duen osasun-arazo baten aurrean.
- Arreta psikosozial eskaera: Dei hauetan arreta eskatzen da krisi-egoerengatik, larritasun-egoerengatik, komunikatzeko beharragatik, eta abar.

Adierazi behar da zerbitzuaren esku-hartzeak grabatzen direla eta froga gisa erabil daitezkeela genero-indarkeriagatiko epai-prozesuetan.

2022an zehar, arreta-zentroak 291.626 alarma jaso zituen genero-indarkeriaren emakume biktimekin partetik. Hauetatik, nabarmenak dira bere babesarekin eta segurtasunarekin edo une jakin batean behar dezaketen laguntza psikosozialarekin lotura zuzena dutenak. Arreta psikosozial eskaeretatik, urteko memoriak azpimarratzen du ideia gintza edo jarrera suizidengatik alarmek %115 egin dutela gora aurreko urtearekin alderatuta. Urteko memoriak adierazten du genero-indarkeriaren emakume biktimek jakinarazten dituzten eraso-alarmerk, erasotzaileek edo honi buruzkoek gauzatu dezaketen indarkeria fisikoaz edota sexu-indarkeriaz gain, beste bikote edo bikote ohien partetik, edo familian, gizartean, lanean edo are ezezagunen partetik jaso ditzaketen indarkeria guztiak ere hartzen dituztela barne. Honek esan nahi du genero-indarkeriaren emakume biktimek artatzen dituztela baita ere erasoek, honen emaitza zuzena ez izan arren, emakumea dagoen zaurgarritasun-egoerarekin lotura badute, «ATENPRO zerbitzuko erabiltzaileek duten biktimizazio-arriskuagatik,

emakumeak izateagatik, bikote edo bikotetik kanpoko indarkeriaz haratago, eta sufritu dezaketen muturreko zaurgarritasun egoeran»²⁶.

ATENPROko egonaldia urte batekoa da. Ondoren, jarraipena ebaluatzen da ohiko prozesua jarraituz, baldin eta baldintza orokorrak betetzen baditu. Hala ere, arretak bi urteko egonaldiko muga du emakume biktimak salatu gabe sartzen direnean zerbitzuan, eta hiru urtekoa salaketa dagoenean. Dena den, urtero jarraipena egiten da emakumeak baldintzak betetzen jarraitzen duen eta oraindik erabiltzeko baimena ematen duen baieztatzeko. Behar ez badu, borondatezko baja eskatu dezake eta terminala bueltatuko du beste erabiltzaile batek baliatu dezan.

Zerbitzuan baja emateko kausak 2012ko Jarduketa-protokoloan jasotzen dira, gainerako prozedura bezala:

- Erabiltzaileak zerbitzua uztea erabakitzea, baja-eskaera formal baten bidez.
- Arrisku-egoeraren aldaketa edo emaitza negatiboa aldizkako balioespenean, zerbitzuan jarraitzea ez dela egokia iritziz.
- Biktimari tratu txarra eman dion pertsonarekin edo pertsonekin berriz bizitzen hastea.
- Zerbitzua eman ahal izateko lankidetzaren eginbeharrak behin eta berriz ez betetzea erabiltzailearen partetik eta, zehazki, jarraipen-deiei ez erantzutea hilabete bateko epean.

2022ko urteko memoriaren arabera, zerbitzuko bajen erdia baino gehiago (% 55) eman ziren erabiltzaileek zentroarekin harremana ez betetzeagatik edo urteko jarraipena ez baieztatzeagatik.

6. EMAKUMEEN AURKAKO SEXU-INDARKERIAK

Sarreran (*supra.*) adierazi dugunez, OMEk seinalatzen du sexu-indarkeria hurrengo dela: «edozein sexu-ekintza, sexu-ekintza burutzeko saialdiak, nahi gabeko sexu-iruzkinak edo sexu-intsinuazioak, edo pertsona baten sexualitatea merkaturatzeko edo beste edozein modutan erabiltzeko ekintzak beste pertsona batek derrigortuta, alde batera honek biktimarekin duen harremana, edozein esparrutan, bizilekua eta lantokia barne»²⁷. Horrez gain, ezarri dugu emakumeen aurkako sexu-indarkeriei dagokienez, haien aurkako generoagatiko indarkeriaren agerpena direla. Hori dela eta, diskriminazio-mota bat dira eta giza eskubideak urratzen dituzte²⁸. Halaber, emakumeek sexu-indarkeriak jasaten dituzte emakumeak izateagatik edo neurritz kanpo, hala nola sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-

²⁶ Urteko memoria. 2020. «*Servicio telefónico...*», *Op. Cit.*, 25. orr

²⁷ Osasunaren Munduko Erakundea. Datarik gabe. «*Violencia contra la mujer...*», *Op. cit.*

²⁸ Ikusi 3. oin-oharra.

esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE eta esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak²⁹.

Zentzu honetan, giza eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako esparruan Estatu espainolarekiko zenbait betebeharrak garatu dira emakumeen aurkako sexu-indarkeriei dagokienez, eta honek errespetatu, babestu eta bermatu behar du emakume guztiak diskriminaziorik gabe eta sexu-indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea, zeinahi mota, agerpen edo esparrutan. Horretarako, hurrengoak egin behar ditu: genero-ikuspegia ezarri; ikuspegi interseksionala ezarri; emakumei gizonak bere aurka burutzen duten sexu-indarkeriaren ardura leporatzen dieten dituzten bortxaketari buruzko mitoak, genero-aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazi; biktimak edo bizirauleak erdigunean jarri; sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak artatzeko nahikoa osoko zerbitzu eskuragarri eta espezializatu izan; trebakuntza espezializatua eman; legeak, politikak eta programak ebaluatu; biktimen edo bizirauleen eta gizarte zibileko erakundeen parte-hartzea aintzat hartu; besteak beste. Honek guztiak berdintasunerako eta ez diskriminaziorako eskubidea errespetatzea, babestea eta bermatzea eta behar adinako arretaz jardutea dakar, kasu hauek prebenitu, babestu, ikertu, zigortu eta ordaintzeko³⁰.

Sexu-indarkeriak emakumeen aurkako generoagatiko indarkeria desagerrarazteko eta emakumeen aurkako diskriminazio oro desagerrarazteko adierazpen eta nazioarteko eta eskualdeko tresna nagusietan sartu dituzte, hala nola, Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpenean (Nazio Batuak, 1993); Beijingeko Adierazpena eta Ekintza Plataforman (Nazio Batuak, 1995); Emakumeen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeari buruzko konbentzioaren (CEDAW) aplikazioa ikuskatzen duen Emakumearen aurkako diskriminazioa ezabatzeko batzordearen (CEDAW batzordea) 19. eta 35. gomendio orokorretan, konbentzioa dinamikoa izanik, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen eboluziora egokitzen baita CEDAW Batzordearen Gomendioen bitartez (Estatu espainolak berretsi ditu CEDAW eta bere aukerako protokoloa, Nazio Batuetakoa)³¹, edo Istanbulgo Hitzarmenean (Europako Kontseilua, 2011 eta indarrean 2014tik, Estatu espainolak berretsi zuen urte bera). Modu berean, Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) 5. helburuan, genero-berdintasuna lortu eta emakume eta neskatok guztiak ahalduntzea bilatzen duena, emakumeen aurkako generoagatiko indarkeriaren aurkako borroka jasotzen da, sexu-indarkeriak barne.

²⁹ Ikusi: Emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko Batzordea. 1992. «19. gomendio orokorra...» eta «35. gomendio orokorra...», *Op. cit.*

³⁰Sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak ordaintzea esparru ekonomikoaz haratago doa, eta osokoa izan behar du. Indibiduala, taldekoa, materiala edo sinbolikoa izan daiteke. Osoko ordainak asmo eraldatzailea izan behar du eta genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala aplikatu behar ditu. Halaber, erdigunean kokatu behar ditu biktimak edo bizirauleak eta bere nahiak eta beharrak. Kontuan izan behar da biktima edo biziraule batentzat ordaingarria izan daitekeena, beste batentzat izan ez litekeela. Ikusi: Tania Sordo Ruz. 2021. «*Prácticas de reparación de violencias machistas. Análisis y propuestas*» ikerlana. Berdintasun Ministerioa.

³¹CEDAW batzordeak emakumeen aurkako generoagatiko indarkeriei heltzen die 19. eta 35. gomendio orokorretan, emakumeen aurkako generoagatiko indarkeria diskriminazio-mota bat dela ezarri.

CEDAW batzordearen «Emakumeen aurkako generoagatiko indarkeriari buruzko 35. gomendio orokorrak, 19. gomendio orokorra eguneratzen duena» (35. GO), bere izenak adierazten duenez, 19.a eguneratzen du hogeita bost urte geroago eta osatzen du. Bi gomendioak aldi berean irakurri behar dira. 35. GOak sexu-indarkeriak hartzen ditu, behar adinako arretaren betebeharra berresten du eta ezartzen du, besteak beste, Estatuak emakumeen aurkako generoagatiko indarkeria-mota guztiak debekatzen dituen eta biktima edo bizirauleei eskubideak bermatzen dituzten legeak onartu behar dituztela eta zerbitzu irisgarriak, egokiak eta eskuragarriak eman behar dituztela emakumeak generoagatiko indarkeriez babesteko, sexu-indarkeriak barne, berriz gertatzea ekiditeko eta biktimenzako edo bizirauleentzako ordainak bermatzeko. Halaber, xedatzen du Estatuak hurrengo betebeharrak dituztela: biktimen pribatutasuna eta segurtasuna babestu; zerbitzu psikosozialak erabili ahal izatea ziurtatu; osasun-arreta zerbitzuek trauma ondoko susperraldia ahalbidetzea eta osasun mentalerako, sexu-osasunerako eta ugalketa-osasunerako dagozkion zerbitzu zabalak gehitu; emakumeentzako laguntza-zerbitzu espezializatuak eman, hala nola, laguntzarako telefono-lineak 24 orduko arretarekin eta nahikoa krisi-zentro, seguruak eta behar bezala hornituak, laguntza- eta bideratze-zentroak, eta harrera-zentro egokiak, eta erabil daitezkeen baliabideei buruzko informazio irisgarria egin eta zabaltu behar dute. Horrez gain, zehazten du biktimak edo bizirauleak artatzen dituztenek trebakuntza jaso behar dutela, nahitaezkoa, aldizkakoa eta eraginkorra³².

Bestalde, Istanbulgo Hitzarmenak sexu-indarkeriak hartzen ditu bere aplikazio-eremuan eta sexu-indarkerien aurreko erantzun-sistema exijitzen du. Gainera, adierazten du erdigunean kokatu behar direla biktimen edo bizirauleen giza eskubideak. Horrez gain, ezartzen ditu Estatuaren betebeharrak eta behar adinako arreta (5. artikulua); sexu-indarkeriaren biktimenzako babesa (25. artikulua); sexu-indarkeriaren aurreko betebeharrak, bortxaketa barne (36. artikulua); BEei (37. artikulua) eta EGMei buruzkoak (37. artikulua), eta sexu-jazarpenari buruzkoak (40. artikulua)³³. Era berean, adierazten du Estatuak neurri legegileak edo beharrezkoak direnak hartuko dituztela mekanismo egokiak bermatzeko, dagozkion estatu-organo guztien arteko lankidetzara eraginkorra indarrean jartzeko, tokiko eta eskualdeko agintariak barne, Hitzarmeneko aplikazio-eremuan jasotzen diren indarkeria-formen biktimak eta lekukoak babesteko (18.1 artikulua). Eta profesionalen trebakuntzari buruzkoa ezartzen du (15. artikulua).

Istanbulgo Hitzarmenaren lau oinarriak prebentzioa, babesa, epaitzea eta koordinazioa dira, jarraian aurkeztuko dugun moduan ASPACIA Fundazioaren «Violadas y discriminadas. Protección, Atención y Justicia de las Mujeres Migrantes Supervivientes de Violencia Sexual en España» [«Bortxatuta eta diskriminatuta. Sexu-indarkeriaren emakume biziraule etorkinen babesa, artapena eta justizia Espainian»] txostenari (2022) jarraituz, sexu-indarkerietan eta Estatuaren betebeharratan zentratuz:

³²Emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko batzordea. 2017. «35. gomendio orokorra...», *Op. cit.*

³³Europako Kontseilua. 2011. *Convenio del Consejo de Europa sobre prevención y lucha contra la violencia contra las mujeres.*

- Prebentzioa:
 - Komunikabideak eta sektore pribatua adoretu errespetuzko genero-rolak sustatzeko eta emakumeen aurkako sexu-indarkeriak zurriz dituzten jarrerak eztabaidatzeko arauak ezar ditzaten.
 - Sexu-indarkeriei, bere jatorriari eta eraginari buruzko kontzientziazio-kanpainak.
 - Indarkeria ezan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean hezi.
 - Genero-estereotipoak eztabaidatu.
 - Emakumeen ahalduntzea sustatu giza eskubideen ikuspuntutik zaugarritasun egoeran dauden emakumeen berariazko beharrei helduz.
 - Ekintzen egileentzako programak.
 - Gizonen eta mutikoen parte-hartze aktiboa eta ekarpenak sustatu sexu-indarkeriaren prebentzioan.
 - Profesionalak trebatu.
- Babesa:
 - Sexu-indarkeriaren biktimak edo bizirauleak bere eskubideez informatu eta jakinarazi non eta nola jaso dezaketen laguntza ulertzen duten hizkuntzan.
 - Zerbitzu orokorrak, gutxienez osasuna, gizarte-zerbitzuak, lege-aholkularitza, laguntza psikologikoa, ostatua, hezkuntza, trebakuntza eta lana bilatzeko laguntza hartzen dituztenak. Sexu-erasoen biktimentzat, bereziki garrantzitsua izango da osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak eta laguntza psikologikoa baliatu ahal izatea.
 - Sexu-indarkeriaren biktima edo bizirauleentzako zerbitzu espezializatuak: krisi-zentroak (*rape crisis centres*) edo bideratze-zentroak (*sexual violence referral centres*).
 - Sexu-indarkerien biktima edo bizirauleei informazioa eta eskualdeko eta nazioarteko mekanismoak baliatzeko laguntza eman.
 - Agintarien aurrean indarkeria kasuak salatzeri adoretu.

- Babes-neurriak edo urruntze-aginduak.
- Laguntzarako telefono-lineak, 24/7 irisgarriak eta aholkulari adituekin.
- Epaitzea:
 - Sexu-indarkeriak burutzen dituztenentzako disuasio-zigorak.
 - Ofiziozko prozedura eraginkorrak sexu-indarkeria delituetan.
 - Inguruabar astungarriak kontuan hartu.
 - Emakumeen aurkako sexu-indarkeriak (sexu-jazarpena eta EGM barne) delitu gisa tipifikatzen dituzten legeak.
 - Sexu-indarkeriei buruzko ikerketa polizial eraginkorrak.
 - Arriskuaren balioespen koordinatuak.
 - Sexu-indarkerien biktima edo bizirauleari errua ez leporatu.
 - Sexu-indarkerien biktima edo bizirauleari pribatutasunerako eskubidea.
 - Biktima edo biziraulearen pribatutasuna eta irudia babesten direla bermatu.
 - Sexu-indarkerien biktima edo bizirauleen eta ustezko errudunaren arteko kontaktua saihestu ahal den neurrian.
 - Sexu-indarkerien biktima edo bizirauleei ahalbidetuko zaie baldin eta froga-elementuak eta beharrak eta kexuak adierazten badituzte zuzenean edo artekari baten bitartez.
 - Biktima edo bizirauleek auzitegian deklaratu ahal izango dute komunikazioaren teknologien bitartez edo gutxienez ustezko egilearen aurrean egon gabe.
 - Sexu-indarkerien biktima edo biziraule baten sexu-aurrekariak soilik onartuko dira prozedura zibil edo penaletan baldin eta egokitzat eta beharrezkotzat jotzen bada.
 - Biktima edo bizirauleen informazioa eta babesa jasotzeko eskubidea.
 - Bere kasuaren aurrerapenaren eta emaitzaren berri emateko eskubidea.

- Sexu-indarkerien biktima edo bizirauleen eskubideei buruzko informazioa eman eta eskubideok eta interesak ordezkatzeko laguntza-zerbitzu egokiak baliatu.
 - Gobernu-erakundeen eta gobernuz kanpoko erakundeen babes eta laguntza.
 - Aholkularitza juridikoa jasotzeko eskubidea, baita doako aholkularitza juridikoa ere.
 - Interprete independente eta adituak eskaini.
 - Sexu-indarkerien egileei ordaina eskatzeko eta, prebenitzeko edo babesteko neurriak hartzeko eginbeharra bete ez badute, estatuko agintariak salatzeko legezko babesa eman.
 - Sexu-indarkerien biktima edo bizirauleak babestu ikerketa eta epaiketa-prozedurak iraun bitartean.
- Koordinazioa:
 - Sexu-indarkerietan erakundeen arteko lankidetzak.
 - Gizarte zibilarekin eta gizarte zibileko erakundeekin lagundu eta lan egin.
 - Estatuko organismo bat sortu edo diseinatu Istanbulgo Hitzarmena koordinatu, ezarri, jarraitu eta ebaluatzeko.
 - Giza eskubideetan oinarritutako politikak, sexu-indarkeriei aurre egitekoekin lotutakoak barne.
 - Erabateko gizarte-erantzuna. Pertsona guztiek ulertu behar dute emakumeen aurkako sexu-indarkeriak ez direla onartuko.
 - Sexu-indarkeriekin lotutako politikak eta zerbitzuak finantzatu.
 - Emakumeen aurkako sexu-indarkeriak prebenitzeko legeak eta babes-neurriak sartu.
 - Emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko ikerketak eta datu-bilketak³⁴.

³⁴ASPACIA Fundazioa. 2022. *Violadas y discriminadas. Protección, Atención y Justicia de las Mujeres Migrantes Supervivientes de Violencia Sexual en España*, 23. eta 24. orr.

Giza eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako esparrutik eratorritako eginbeharrek emakumeen aurkako sexu-indarkeriei dagokienez, Sarreran ere azaldu dugunez (*supra.*), toki-esparrua hartzen dute barne, aurrerago garatuko dugun moduan, 9.1 atalean, sexu-indarkerien gaineko toki-eginbeharrei buruzkoa (*infra.*). Zentzu honetan, nabarmendu nahiko genuke Estatuan «Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko politika eta zerbitzuen katalogoa giza eskubideen nazioarteko estandarren arabera» dagoela, Berdintasunerako Konferentzia Sektorialean onartu zena, eta 2023ko martxoaren 16ko ebazpena, *Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Idazkaritzarena, Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren Akordioa, 2023ko martxoaren 3koa, hainbat urterako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko plan bateratua onartzen duena (2023-2027), argitaratzen duenaren 1. eranskina dena.*

Katalogo honek gutxieneko estandarrak eta erreferentziazko politikak ezartzen ditu emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak prebenitu eta artatzeko, sexu-indarkeriak barne, toki-erakundeen lankidetzarekin hala badagokio. Hurrengo puntuak jasotzen ditu: (1) Emakumeen aurkako indarkeria mota guztien aurreko prebentzioa eta sentsibilizazioa, hurrengoak hartuz: datuak, estatistikak, inkestak, ikerlanak eta ikerketak; hezkuntza berdintasunean; informazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziaztea; komunikazioa; profesionalen trebakuntza eta sentsibilizazioa, eta bigarren mailako prebentzioa, goiz antzematea; (2) Osoko gizarte-laguntza eta ordaina, hurrengoak hartzen dituena: osoko babes, laguntza eta ordainerako zerbitzu espezializatuak; ekonomia- eta lan-autonomia; osoko osasun- eta ordain-zerbitzuak; (3) Babesa eta justizia baliatu ahal izatea, babesa eta justizia baliatu ahal izatea aintzat hartzen dituena; eta (4) Koordinazioa, parte-hartzea eta zeharkakotasuna sustatzea, hurrengoak hartzen dituena: koordinazioa eta lankidetzaren organoak; koordinazio-tresnak edo tresnak eta sektore-protokoloak; zeharkakotasun-mekanismoak eta parte-hartze mekanismoak. Katalogoak Informazio eta Ebaluazio Sistema bat dauka³⁵.

7. SEXU-INDARKERIEN ESPAINIAKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Jarraian, hurrengo sexu-indarkeria jarrerei buruzko datu-bilketaren emaitzak aurkezten ditugu: sexu-erasoa (sexu-abusua barne, datu gehienak sexu-abusua ezabatzen duen LOGILS onartu aurretikoak direlako), sexu-jazarpena eta *stalkinga*, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE, sexu-indarkeria digitala eta feminizidio sexualak, hurrengoak ezarriz: (a) sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen testuinguru orokorra (2019-2021); (b) sexu-jazarpena, *stalkinga*, sexu-erasoa eta sexu-abusua 2019, 2021 eta 2015-2019 tartean; (c) indarkeria digitala (2021 eta 2022); (d) sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen salerosketa (2019-2021); (e) EGM; (f) BE Espainian (2019); (G) sexu-indarkerien aurrean zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak, eta (h) emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko pertzepzioa: sexu-erasoa eta sexu-abusua, sexu-jazarpena, sexu-indarkeria digitala (2023) eta BE (2018).

³⁵ Ikusi: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2023-7326

Diagnostikoaren datak Barne Ministerioako Segurtasunaren Estatuko Idazkaritzak egiten duen Kriminaltasun-balantzeari zor zaizkio. Izan ere, hiru hilean behin argitaratzen ditu Espainian gertatutako delituen balantzea. Sexu-askatasunaren aurkako delituen atala banatzen da «sexu-eraso delituak sarketarekin» eta «sexu-askatasunaren aurkako gainerako delituak», gehiago azaldu gabe. Beste tipologia penalei dagozkien datuak ez argitaratzeaz gain, adibidez, ministerioak berak 2021ean, 2022an eta 2023an argitaratutako txostenek aintzatesten duten sexu-abusua, besteak beste, aipatutako azpikategoriak ez dira ez sexuaren ez urtearen arabera zehazten. Hori dela eta, txosten hau 2021. urteko datuekin egin da, honetan agertzen direlako sexu-abusua (txosten honen analisirako eskatzen den tipologia) eta sexu-indarkeriaren analisia sexuka zenbatzen dituen informazio estatistiko berriena, emakumeen aurkako sexu-indarkeriak aztertu ahal izateko. Dena den, jarraian aurkezten dira 2022ko eta 2023ko lehen hiruhilekoko zenbakiak bi sexuei dagozkien «sexu-erasoa sarketarekin» eta «sexu-askatasunaren aurkako gainerako» delituei buruzkoak: 2023ko lehen hiruhilekoan, askatasunaren aurkako 4303 delitu zenbatu ziren guztira, 2022ko lehen hiruhilekoan baino 112 gehiago, non 4191 delitu zenbatu ziren. «Sexu-erasoa sarketarekin» delituari dagokionez, 2023ko lehen hiruhilekoan Barne Ministerioak 1021 erregistratu zituen, 2022ko lehen hiruhilekoan baino 477 gehiago, non 544 delitu zenbatu ziren. Azkenik, «sexu-askatasunerako gainerako delituen» azpikategorian, 2023ko lehen hiruhilekoan 3282 erregistratu ziren, 2022ko lehen hiruhilekoan baino 365 gutxiago, non 3647 erregistratu ziren.

a. **SEXU-ASKATASUN ETA SEXU-UKIGABETASUNAREN AURKAKO DELITUEN TESTUINGURU OROKORRA 2019-2021**

i. **Delitu-egitate sexual ezagunak, sexu-delitu erregistratuak eta biktimizazioak (2019-2021)**

1. **Delitu-egitate sexual ezagunak (2019-2021)**

Hurrengo datu estatistikoek erakusten dute Espainiako sexu-indarkeriaren testuingurua eta atariko modu orokorrean adierazten dira, pertsonen sexuari jaramon egin gabe, Barne Ministerioako 2021eko «Sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituei buruzko txosteneko» (IDLIS, 2021) «Eboluzio orokorra» eta «Lurralde-errepresentazioa» lehen eta bigarren atalek aurkezten duten moduan. Ministerioak, bere aldetik, hurrengo tipologia penalen arabera sistematizatzen du, Zigor Kodearen II. Liburuaren VIII. Tituluan jasotakoak (178. artikulutik 194.era), sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak hartzen dituztenak, LOGILSak Zigor Kodea aldatu aurretik. Beraz, sexu-indarkeria kontzeptualizatzen da hurrengoia kontuan hartuz: sexu-erasoa (178 eta 183.2), sexu-eraso sarketarekin (179), sexu-abusua (181, 183.1), sexu-abusua sarketarekin (182), sexura bideratutako kontaktu bidezko delituak teknologiaren bitartez 16 urtetik beherakoekin (183 ter, 189 bis), sexu-

jazarpena (184), exhibizionismoa (185, 189 bis), sexu-probokazioa (186, 189 bis), adingabeak edo ezgaitasuna duten pertsonak galbideratzea (183 bis, 189 bis), prostituzioarekin lotutako delituak (187 eta 188, 189 bis) eta adingabeen pornografia (189-1, 2, 3, 4, 5, 189 bis).

Barne Ministerioko 2021eko IDLISa egiten duen Kriminalitate Estatistika Sistemaren (SEC) arabera, «egitate ezaguntzat hartuko dira Segurtasun Indar eta Kidego desberdinek ezagutu dituzten arau-hauste administratibo eta penalak, salaketa jartzeagatik edo poliziak bere kabuz egindako jarduketengatik (prebentzio- edo ikerketa-lana)».

Egitate ezagunak burutu ziren lekuaren arabera delitu-banaketak erakusten du 2021. urtean erregistratutako egitate ezagunen erdia baino pixka bat gehiago (% 56,2) etxebizitzetan edo eranskinetan gertatu zirela. Aldiz, garraioak ia ez dira azaltzen.

Tipologia penalaren arabera erregistratutako delitu-egitate sexual ezagunei dagokienez (Barne Ministerioaren sailkapenaren arabera), sexu-abusua sarketarekin eta gabe eta sexu-erasoa sarketarekin eta gabe dira 2021eko IDLISean gehien azaltzen diren lau tipologia definituak. Guztira, lau tipologiak argitalpenean aztertutako hamaika tipologiaren % 81,4 osatzen dute.

Autonomia-erkidegoka eta hiri autonomoka sailkatuz, Katalunia da, Andaluzia, Madrilgo Erkidegoa eta Valentziako Erkidegoarekin batera, egitate erregistratu gehien dituen lurraldea. Hurrenez hurren, guztien % 19,5, % 15,8, % 14,2 eta % 12,8. Aldiz, delitu-egitate ezagunen tasari³⁶ kasu eginez gero, Balear Uharteak eta Ceuta dira 2021ean tasa handienak erregistratu zituzten lurraldeak txostenean³⁷ aztertzen diren tipologia penalei dagokienez: % 6,6 eta % 5,6, hurrenez hurren.

T1. SEXU-DELITUAK BURUTUTAKO LEKUAREN ARABERAKO BANAKETA (URTEKO SEGIDA)

	(%)		
	2019	2020	2021
ETXEBIZITZAK ETA ERANSKINAK	% 41,5	% 58,8	% 56,2
GUNE IREKIAK	% 24,3	% 6,1	% 6,5
KOMUNIKAZIO-BIDEAK	% 15,9	% 17,0	% 18,8
INSTALAZIOAK ETA ESPARRUAK	% 8,7	% 9,8	% 9,5
ESTABLEZIMENDUAK	% 7,8	% 6,7	% 7,6
GARRAIOBIDEAK	% 1,7	% 1,6	% 1,5

³⁶Tasak adierazten du delitu ezagunen kopuruaren eta jurisdikzioaren biztanle guztien arteko lotura 10.000 biztanleko.

- Bikotekidea nahi gabeko sexu-harremanak izatera behartzea onartezina da eta legez zigortu behar da beti gehiengoaren ustez (% 76). Sexuka banatuz, ehunekoak oso antzekoak dira: % 76,5 emakumeentzat eta % 75,5 gizonentzat. Bigarren balio esanguratsua bosten batek adierazten du (% 20,3). Hauentzat, onartezina da, baina ez dira legez zigortu behar (kasu honetan, aurreko gaietan antzematen den emakumeen ehuneko handiagoaren joera aldatzen da, eta gizonena da ehuneko handiena, % 21,2, eta atzetik emakumeen % 19,4). Bitartean, adin-tarteka, 75 urtetik gorakoak % 64,9k uste du, onartezina izateaz gain, indarreko legediak zigortu behar duela; kopuru handienak baino ehuneko 20 puntu gutxiago, hau da, 35 eta 44 urte artekoak % 84,8k.
- Emakume bati nahi gabeko iruzkinak eta iradokizunak egitea onartezina da % 48,8rentzat, baina ez da legez zigortu behar (emakumeen % 50,1 eta gizonen % 47,5en ustez). Proporzio honetatik gertu, pertsonen % 43,9k, onartezina izateaz gain, legez zigortu behar dela uste du (emakumeen % 43,3k eta gizonen % 44,4k). Bestalde, 75 urtetik gorakoak dira egitate hau arauen bidez zigortzeko aldean daudenak, % 53,9; aldiz, 25 eta 34 urte artekoak dira ez zigortzearen alde dauden gehienak, % 54,2.
- Emakume bati bere borondatearen kontra musu ematea onartezina da eta legez zigortu behar da % 68,9rentzat; gizonen % 72,7ren ustez, emakumeek baino gehiago (% 65,3). Honekin bat datozen pertsona gehienek 18 eta 24 urte artean dituzte, % 79. Indize hau jaisten da adinak gora egin ahala.
- Emakume bat bere borondatearen kontra ukitzea onartezina da eta legez zigortu behar da % 88,1entzat: emakumeen (% 88,7) eta gizonen (% 87,8) arteko desberdintasuna apenas % 0,9koa da. Adin-taldeka, 18 eta 24 urte arteko gazteak dira honekin bat datozen gehienak (% 93,8); aldiz, 65 eta 74 urte artekoak eta 75 urtetik gorakoak dira gutxien datozenak (% 77,4 eta % 78,7 hurrenez hurren).
- Emakume bati alkohola edo drogak nahita ematea, honek jakin gabe, berarekin sexu-harremanak izateko onartezina da eta legez zigortu behar da beti % 98,3rentzat (emakumeen % 98,6ren eta gizonen % 97,8ren ustez). Adin-taldeka, ehunekoak 75 urtetik gorakoak % 94,8tik 45 eta 54 urte artekoak % 99,4ra doaz.
- Emakume bati sexu-harremanak izateko asmoz ordaintzeari buruzko iritziak % 30 inguruko tartean dago: gehienek (ia heren batek) uste du onartezina dela, baina ez dela legez zigortu behar (% 32,2); jarraian, ia ehuneko berak, % 32k, uste du, onartezina izateaz gain, legez zigortu behar dela, eta handik gertu, % 28,1ek onargarriztat jotzen du baldintza jakinetan. Ehunekoak aldatzen dira sexuaren arabera. Emakume gehienentzat (% 35,7) zigorgarria izan beharko luke; jarraian, % 28,7 ez dator bat, baina onartezina dela

iruditzen zaio, eta % 27,4k onargarritzat jotzen du baldintza jakinetan. Aldiz, gizon gehiagok (% 35,9) onartezina dela uste dute, baina ez dela zigortu behar; jarraian, % 28,1i onargarria iruditzen zaio, eta onartezina eta zigorgarria % 28,1entzat. Adinaren arabera, balioak % 30aren inguruan mantentzen dira gutxi gorabehera.

Gaur egun emakumeen aurka burutzen den sexu-indarkeriari buruzko berrien kopuru handiagoa egoteko arrazoa da, erdia baino gehiagoren ustez (guztien % 65,8), komunikabideetan ikusgaitasun handiagoaren pertzepzioa (gizonen % 70,3 eta emakumeen % 61,6). Bitartean, laurden batek baino pixka bat gehiagoren ustez (% 26,7), sexu-erasoek gora egitearen ondorio da: emakumeen % 30,4 eta gizonen % 22,7.

Emakumeen artean, gizon batzuk emakumeei sexualki erasotzeko arrazoi nagusia da, inkestatuen % 11rentzat, erasotzaileak izan ditzakeen osasun mentaleko arazoak; % 10entzat, erasotzen duen gizonaren hezkuntza, printzipio eta balore gabezia, eta % 9,4rentzat, gailentasun-, botere- eta eskubide-sentsazioa.

Lan esparruan sexu-jazarpenera existitzen den pertzepzioari dagokionez, inkestatuek hurrengoak uste dute:

- Lan esparruan emakumeei buruzko txiste edo txantxa iraingarriak egitea sexu-jazarpenera da % 49ren ustez (emakumeen % 54,1 eta gizonen % 43,7). Alderantziz, % 46,7k aurkakoa uste du (gizonen % 51,6 eta emakumeen % 42). Adinaren arabera, 18 eta 24 urte arteko gazteek aintzatesten dute sexu-jazarpeneraren existentzia gehienbat, eta 45 eta 54 urte artekoek kontrakoa uste dute batez ere.
- Emakume langile bati buruzko sexu-iruzkinak egitea (bere gorputzari, janzerari edo sexualitatearen inguruan) sexu-jazarpentzat hartzen du % 83,8k, hau da, emakumeek % 88,6k eta gizonen % 78,8k. Kasu honetan, 25 eta 34 urte arteko gazte gehienek aintzatesten dute jazarpenera, % 90,9k, 75 urtetik gorakoek baino hamazazpi puntu gehiago.
- Lan esparruan emakumeei piropo mingarriak esatea sexu-jazarpentzat jotzen du % 80,3k, batez ere emakumeen artean (% 80,9), gizonengandik gertu (% 79,8). Esanguratsua da 18 eta 24 urte artekoen % 87,4 bat datozela, 75 urtetik gorakoek % 67,5etik urrun.
- Intsinuazio edo zehar-esan sexualak egitea sexu-jazarpenerarekin lotzen dute inkestatutakoen % 78,8k, ehuneko 14 puntuko desberdintasun handiarekin emakumeen artean, % 85,6k jazarpentzat hartzen baitu, gizonen artean baino (% 71,6). Adinaren arabera, 18 eta 24 urtekoen % 84,3k sexu-jazarpentzat jotzen dute, 75 urtetik gorakoek baino 20 puntu gehiago.
- Emakumeei bere sexu-bizitzari buruzko gai pribatuez galdetzea sexu-jazarpentzat hartzen du % 72,1ek, emakumeen % 76,3k eta gizonen % 67,6k. Adinaren arabera, 18 eta 24 urtekoen % 76,3k sexu-jazarpentzat jotzen dute, 75 urtetik gorakoek baino 20 puntu gehiago.

- Lantokian emakume bati keinu eta begirada lizunak egitea sexu-jazarpenari lotutako egitatea da %78,4rentzat, emakumeen %82,3 eta gizonen %74,3ren ustez. Adin-taldearen arabera, balioak 45 eta 54 urte artekoen %81,8tik 75 urtetik gorakoen %68ren artean azaltzen dira.
- Sexu-harremanak behin eta berriro eskatzea estutu edo mehatxatu gabe sexu-jazarpenentzat jotzen du %75,9k: horrela adierazten dute, ia ehuneko berdinekoetan, gizonen %76k eta emakumeen %75,9k. Nabarmena da emakumeen eta gizonen bosten batek (%21ek) ez duela sexu-jazarpenentzat hartzen. Adin-taldearen arabera, 25 eta 34 urte artekoen %79,5ek uste du sexu-harremanak behin eta berriro eskatzea estutu edo mehatxatu gabe sexu-jazarpena dela, 75 urtetik gorakoek baino ehuneko 12 puntu gehiago.
- Ukitzeak, imurtxiak eta inguratzeak sexu-jazarpenentzat jotzen dituzte inkestatutako guztien %97,5ek; oso antzekoak dira emakumeen (%97,5) eta gizonen (%97,4) pertzepzioak. Adinaren arabera, balioak egonkor mantentzen dira oro har, 18 eta 24 urte arteko gazteen %99,3tik 75 urtetik gorakoek %93,9ra.
- Nahi gabeko besarkadak edo musuak ematea lan esparruan sexu-jazarpena dela uste du %94,5ek, emakumeen %95ek eta gizonen %93,9k. Aurreko puntuan bezala, adinaren araberako ehuneko tarte laburtzen da, eta 45 eta 54 urtekoen arteko %96,6tik 75 urtetik gorakoek %92,3ra horrela azaltzen da.
- Sexu-mesedeak jasotzeko behartzea lanean hobekuntzak edo kaleratzeko mehatxupear sexu-jazarpena da %98,8rentzat, emakumeen %98,9 eta gizonen %98,9. Adin-tartearen arabera, balioen arteko tarte laburtzen da, 18 eta 24 urte arteko gazteen %100ekotik 65 eta 74 urte artekoen %96,5era.

Emakumeek sexu-erasoen ondorioz jarritako salaketen inguruan dauden sinesmenei buruz, hurrengoa adierazten da:

- Inkestatutakoek %59,6k uste du sexu-erasoa jasan duten emakumeek gutxitan salatzen dute biktimatu dituen egitatea. Proporzioa berdina da emakumeen eta gizonen artean (%59,6). Jarraian, oso balio antzekoekin, %18,3k uste du gehienetan salatzen dutela, eta %15,2k ia inoiz ez.
- %37,5en ustez, emakumeek itxaroten dute, baina ez gehiegi; gizonek bereziki uste dute, %41,4ek, emakumeek baino 7 puntu gehiago, %34k. Pertzepzio honen jarraian, %22,1en ustez, emakumeek itxaroten dute, baina ez gehiegi eraso bat jasan eta gero salatzeko. Adierazgarria da emakumeen ia laurden batek, %23,5ek, uste duela sexu-erasoa jasaten duten emakumeek ez dutela inoiz edo ia inoiz ez salatzen.
- Inkestatutakoek ia erdiaren (%45,1) ustez, ez da salatzen batez ere erasotzailearekiko beldurra dela eta. Pertzepzio hau handiagoa da gizonen artean, %48,6k hala uste badu, emakumeek baino zazpi puntu gehiago, %41,8k. Lotsa, %15,7rekin, bigarren sinesmen ohikoena da, eta ez sinesteko beldurra, %14,5, hirugarrena, azken hau emakumeen artean batez ere (%17,5, gizonen %11,4ren aldean).

Bestetik, laginaren herenak baino gehiagok, % 35,1ek, sexu-eraso baten biktima izan den emakume bat edo gehiago ezagutzen du bere familia- edo lagun-inguruan, eta batez ere emakumeek, % 39,5ek ezagutzen baitu esparru hauetan sexu-eraso baten biktima izan den emakume bat edo gehiago. Gainera, % 27,2k adierazten du bere etxebizitza-inguruan edo auzoan ezagutzen duela, eta % 17,5ek lantokian. Azkenik, emakumeen % 21ek adierazten du gutxienez sexu-eraso bat jasan duela bizitzan zehar.

ii. «No acepto». Aproximación a los matrimonios forzados en España desde la mirada de las profesionales y los profesionales de la Comunidad de Madrid y Cataluña inkesta. (2018): Federación de Mujeres Progresistas

«No acepto». Aproximación a los matrimonios forzados en España desde la mirada de las y los profesionales de la Comunidad de Madrid y Cataluña [«Ez dut onartzen». Hurbilketa Espainiako behartutako ezkontzei Madrilgo Erkidegoko eta Kataluniako profesionalen ikuspegitik] inkestak hartutako laginaren % 91,62rentzat, BE gutxienez ezkongaietako bat bere borondatearen kontra ezkontzera indarkeria fisiko edo emozionalaren bidez behartutako ezkontzak dira.

Bere existentziari dagokionez, ia hiru laurdenen (% 73,74k) ustez, existitzen dira, emakumeen aurkako indarkeria-agerpena da, desberdintasuna eragiten dute eta emakumeek eskubideak benetan baliatzeko gaitasuna urratzen dute. Gainera, % 96,09k adierazten du BEren biktimak emakumeak zein gizonak direla, baina neurri handiagoan emakumeak eta neskatoak behartzen dituztela.

Halaber, % 71,51k uste du Espainian ezkontzeko gutxieneko adina 16 urtekoa dela amaren edota aitaren aurretiko baimenarekin, eta sexurako adostasunerako gutxieneko adina 16 urtekoa dela % 62,01en ustez.

Azkenik, % 61,45ek adierazten du BE delitua direla Espainian; izan ere, 2015ean BEren berariazko delitua lehendabiziko aldiz Zigor Kodean, eta % 97,77k uste du Estatuak esku hartu behar duela praktika hau prebenitzeko eta desagerrarazteko, BE delitutzat jotzeaz gain.

i. FEMINIZIDIO SEXUALA (2022)

i. Feminizidioen arteko konparazioa: feminizidio sexuala (2022)

DGCVGak jasotako datuak bikotekideak edo bikotekide ohiak burututako feminizidioetan eta beste feminizidioetan banatzen dira. Hauek feminizidio soziala, sexuala, bikarioa eta familiartekoa hartzen dituzte. Feminizidio sexualari dagokionez, 2022an jaso zen lehendabiziko aldiz, duela gutxi feminizidio barruan kategoria berri gisa kontzeptualizatu eta

gero, beraz, oraingoz daukagun datu bakarra da. Jarraian, Berdintasun Ministerioak 2022tik aztertzen dituen kategorien definizioa azaltzen da:


- Familiarteko feminizidioa: familia-inguruko gizon batek emakume bat hiltzea.
- Feminizidio sexuala: bikote eta familia kanpoko gizon batek emakume bat hiltzea orduko LOGILS proiektuan jasotako sexu-indarkeriei lotuta. Sexu-esplotazioa, salerosketa edo prostituzioa, EGM eta BErekin lotutako feminizidioak hartzen ditu barne.
- Feminizidio soziala: bikote eta familia kanpoko gizon batek (ezezaguna, lankidea, auzokoa, laguna, nagusia, eta abar) emakume bat hiltzea sexu-izaerarik gabeko eraso baten ondorioz.
- Feminizidio bikarioa: gizon batek emakume bat edo adingabeko seme-alabak hiltzea beste emakume bati kaltea edo mina eragiteko. Emakumeak eta adingabeak (neska-mutilak) hartzen ditu bakarrik.

2022an, 83 feminizidio burutu ziren; haietatik, biktimaren bikotekideak edo bikotekide ohiak 49 gauzatu zituen; bikote kanpoko familia-giroko gizon batek, 21; bikote edo bikote ohi eta familia kanpoko gizon batek, 9 (feminizidio soziala), eta, azkenik, bikote edo bikote ohi eta familia kanpoko gizon batek edo gehiagok, 4 sexu-askatasunaren berme integralari buruzko Lege Organikoaren (LOGILS) proiektuan jasotzen den sexu-indarkeriarekin lotuta (feminizidio sexuala).

T16g. FEMINIZIDIOAK (2022)

	EMAKUMEAK
BIKOTEKIDEAREN / BIKOTEKIDE OHIAREN FEMINIZIDIOA	49
FEMINIZIDIO SOZIALA	9
FEMINIZIDIO SEXUALA	4
FEMINIZIDIO BIKARIOA	0
FAMILIARTEKO FEMINIZIDIOA	21
GUZTIRA	83

Otros feminicidios en España. 2022. urtea. Datos provisionales y Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas. Datos Provisionales. DGCVC. Berdintasun Ministerioa.



*GEUK EGINDA *Otros feminidios* en España*atik abiatuta. 2022. urtea. Datos provisionales y Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas. Datos Provisionales. DGVCV. Berdintasun Ministerioa.

Azpirarratu nahi dugu Feminicidio.net-ek adierazten duela Espainian 2021ean 82 feminizidio burutu zirela, 2022n 100 eta 2023an orain arte, 42⁵⁷.

8. TOKI-ERAKUNDEEN ADMINISTRAZIOA ETA ESKU-HARTZEA SEXU-INDARKERIETAN

Toki-erakundeen sexu-indarkeriei buruzko hurbilketa eta esku-hartzea azaltzeko, hasteko, adieraziko ditugu toki-erakundeen eginbeharrak sexu-indarkeriei dagokienez (a); bigarrenik, helduko diegu sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko toki-zerbitzuei (b); hirugarrenik, ezarriko ditugu sexu-indarkeriei buruzko esku-hartze eta prebentzio ekintzak hobetzeko proposamenak (c) eta, azkenik, ebaluazio-sistamarako proposamenak garatuko ditugu (d).

a. UDALEN BETEBEHARRAK SEXU-INDARKERIEI BURUZ

Nazio Batuen Giza eskubideen Kontseiluko Aholku-batzordeak adierazi zuen giza eskubideen babesa eta sustapena bermatzeko, toki-agintariek giza eskubideetan oinarritutako toki-gobernantzaren ikuspuntua baliatu behar dutela.⁵⁸ Gobernantzarako esparru kontzeptual hau ikuspegi arauemaitetik giza eskubideen nazioarteko arauetan oinarritzen da, eta operazio-ikuspegitik, giza eskubideak sustatzera eta babestera. Bere aldetik, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioak azaldu du agintari nazionalen betebeharrak partekatutako eta osagarriak arautzen dituen nazioarteko arau-esparrua giza eskubideak errespetatu, babestu eta baliarazteko, tokiko eta nazioko administrazioak gidatu beharko lituzketen printzipioak ulertzeko oinarritzakoak direla: unibertsaltasuna eta

⁵⁷ Ikusi: <https://feminicidio.net/>

⁵⁸Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen azken txostena. 2015. *Papel de la administración local en la promoción y protección de los derechos humanos*.

besterezentasuna; zatiezintasuna; interdependentzia eta interrelazioa; berdintasuna eta diskriminazio eza; parte-hartzea eta inklusioa; kontu-ematea eta zuzenbide-estatu⁵⁹.

Zentzu honetan, emakumeen aurkako sexu-indarkeriei buruzko 6. atalean azaldu dugunez (*supra.*), espainola bezalako Estatuak emakumeen aurkako sexu-indarkerien inguruan dituzten betebeharrak modu zabalean garatu dira; betebeharrak hauek giza eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako esparruak eman ditu eta toki-esparruari ere dagozkio. Horrela, behar adinako arretaz jarduteko betebeharrak sexu-indarkeriak prebenitu, babestu, ikertu, zigortu eta sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak osorik ordaintzeko erkidegoetako eta toki-administrazioei ere dagokie. Maria Naredok «La responsabilidad municipal frente a las violencias sexuales. La experiencia local a la luz del marco internacional de derechos humanos» [Udalen ardura sexu-indarkerien aurrean. Toki-esperientzia giza eskubideen nazioarteko markoaren arabera] (2020) artikuluan dioenez, udalen ardura sexu-indarkerien aurrean aztertzen duen artikulua urrietako bat, toki-erakundeek «ardura handia dute emakumeen aurkako indarkeriaren agerpen desberdinak, sexu-indarkeriak barne, prebenitzaile eta artatzaile orduan». Horretarako, nazioarteko eta Europako estandarrak ezarri behar dituzte, ez soilik prebenitu, artatu, babestu eta ordaintzekoak, baizik eta «ikuspegiak eta zeharkakoak» ere bai⁶⁰.

Naredok aipatutako artikuluan egindako analitika abiatuta, jarraian laburtuko ditugu toki-betebeharrak sexu-indarkerien aurkako borroka dagokionez:

- Ikuspegi eta zeharkako betebeharrak:
 - Ikuspegia: genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala. «Sexu-indarkeria errepikatzen duten diskriminazio-faktoreak identifikatu eta aurre egitea ez ezik, biktimen eta bizirauleen ahalduntze- eta autonomia-prozesuak abiatzen ditu»⁶¹.
 - Zeharkakoak:
 - Profesionalen trebakuntza. Edukiek, gutxienez, hartu behar dituzte «genero-berdintasuna, biktimen beharrak eta eskubideak, nola prebenitu bigarren mailako biktimizazioa, indarkeria prebenitu eta detektatzeko estrategiak, eta erakundeen arteko elkarlan koordinaturako mekanismoak», Istanbulgo Hitzarmeneko 15. artikuluari jarraituz⁶².
 - Koordinatzeko mekanismoak. «Administrazio publikoen artean erakundeen arteko foruen bitartez» zein «profesionalen arteko koordinazioa protokoloen bitartez»⁶³.

⁵⁹ *Idem.*

⁶⁰ María Naredo Molero. «La responsabilidad municipal...», *Op. Cit.*, 175. orr.

⁶¹ *Ibidem*, 176. orr.

⁶² *Ibidem*, 176 eta 177. orr.

⁶³ *Ibidem*, 177. orr.

- Ikerketak eta datu-bilketak⁶⁴.
 - Emakumeen eta feministen erakundeen parte-hartzea, «batez ere sexu-indarkerien emakume biktimen eta biziraileen prozesuetan laguntzen dutenak»⁶⁵.
- Berariazko eginbeharrak
 - Prebentzioa, arreta, babesa eta ordaina:
 - Istanbulgo Hitzarmentetik abiatuta, toki-administrazioek gutxienez hurrengo jarduera-ildoak garatu beharko lituzkete:
 - «Autonomia-erkidegoekin elkarlanean aritu tokian sexu-indarkerien erroak eraldatzera zuzendutako hezkuntza-programak sustatzeko (maskulinitate ez oldarkorra, emakumeen autonomiaren sustapena, hezkuntza afektibosexuala) irakaskuntza arautu eta ez arautuaren ziklo osoan zehar»⁶⁶.
 - «Gizarte osoari zuzendutako udal-kanpainak egin, batez ere gizon eta mutikoei, "bortxaketaren kultura"rekin lotutako estereotipoak desagerrarazteko eta sexu-indarkerien prebentzioa sustatzeko»⁶⁷.
 - «Adin guztietako emakumeei zuzendutako informazio-kanpainak garatu, sexu-indarkeriak sufritzekotan bere eskubideei eta erabil ditzaketen baliabideei buruzko informazioa eskaintzen dutenak»⁶⁸.
 - «Neurri eraginkorrak espazio publikoak seguruak, jazarpenik gabeak eta emakume eta neskato guztientzat erabilgarriak izan daitezen, bereziki komunitatean oinarritutako neurriak sustatuz eta babestuz, emakume-taldeen partaidetzarekin»⁶⁹.

⁶⁴*Ibidem*, 178. orr.

⁶⁵ *Idem*.

⁶⁶*Ibidem*, 179. orr.

⁶⁷ *Idem*.

⁶⁸ *Idem*.

⁶⁹ *Idem*.

- «Sexu-indarkerien balizko biktimak detektatu, bereziki laguntza eskatzeko eta indarkeriak salatzekeo tresna eta benetako aukera gutxien dituztenen artean»⁷⁰.
- «Udalek sexu-indarkerien biktimentzako laguntza eta ordaina ziurtatzeko osoko arreta espezializatuko zerbitzuak izan behar dituzte»⁷¹.
- Laguntzarako eta ordainerako, aldi baterako ostatu seguruak edo etxebizitzak izan. Indarkeria ez errepikatzea eta emakumeen segurtasuna bermatzearekin lotuta dago ere⁷².
- Babesari dagokionez, toki-erakundeek parte hartzen dute udaletan segurtasun publikoa mantentzean udaltzainen bitartez; beraz, gomendagarria da udaltzainen elkarlana sexu-indarkeriak artatzean. Horretarako, «emakume udaltzainek dagokien trebakuntza jaso behar dute nazioarteko gomendioetan aipatutako esku-hartze esparruetan jarduteko»⁷³.

Toki-betebehar hauek guztiek kontuan hartu behar dute emakumeek eskubideak dituztela eta instituzioek hauxe bermatu behar dutela; zerbitzuek irisgarriak, erabilgarriak eta kalitatezkoak izan behar dutela, eta diagnostikoan, jarduketan eta ebaluazioan parte hartu behar dutela biktima edo bizirauleek eta erakunde eta mugimendu feministek⁷⁴. Parte-hartzeari dagokionez, LOGILSak ezartzen du printzipio gidari nagusietako bat hurrengo dela: «lege organiko honetan aurreikusitako zerbitzuak eta politika publikoak diseinatu, aplikatu eta ebaluatzekeo, bermatuko da sexu-indarkerien biktimen eta mugimendu feministaren eta gizarte zibileko elkarten eta erakundeen parte-hartzea, sindikatu- eta enpresa-erakundeak barne, arreta berezia jarriz emakumeen partaidetzari ikuspegi intersektzionaletik»⁷⁵.

Gainera, seinalatu nahiko genuke Estatu-ituneko 7. ardatzak (Autonomia-erkidego, toki-erakunde eta beste instituzioentzako gomendioak) toki-administrazioak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitekeo ekintzak sustatzera bideratutako neurriak hartzen dituela, herritarrentzat eta, beraz, indarkeria honen biktimentzat administrazio hurbilena izanik. 2018an onartu zenetik, zegozkion arauak aldatzea agindu zen toki-administrazioak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-indarkeriaren aurkako borroka sustatzeko ekintzak burutu zitzaizkion, herritarrentzat eta, beraz, indarkeria honen biktimentzat administrazio hurbilena izanik⁷⁶. Horrela, 9/2018 Errege Lege Dekretuak, abuztuaren 3koa, Genero-

⁷⁰*Ibidem*, 180. orr.

⁷¹ *Idem*.

⁷²*Ibidem*, 181. orr.

⁷³ *Ibidem*, 181 eta 182. orr.

⁷⁴ *Ibidem*, 193 eta 194. orr.

⁷⁵«10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa...», *Op. Cit.*, 2. artikulua.

⁷⁶9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena.

indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, aldatu zuen 25.2. artikuluari o) hizkia gehituz, eta hurrengo adieraziz: «Udalak, dena den, eskumen propio gisa burutuko ditu, Estatuko eta autonomia erkidegoetako arauak betez: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-indarkeriaren aurkako borroka sustatzeko ekintzak»⁷⁷.

b. SEXU-INDARKERIEI EMAKUME BIKTIMAK EDO BIZIRAULEAK ARTATU, ESKU HARTU ETA BABESTEKO BERARIAZKO ZERBITZUAK

Identifikatu ditugun sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatzen dituzten berariazko zerbitzuak hiru taldetan sailka daitezke:

(1) Bikote edo bikote ohi barruko sexu-indarkeria artatzen dutenak, hau da, LOMPIVGaren genero-indarkeriaren kontzeptua baliatzen duten zerbitzuak.

(2) Indarkeria matxisten barruan sexu-indarkeriei heltzen dieten zerbitzuak, bikotetik edo bikote ohitik kanpoko indarkeria-motak edo agerpenak barne.

(3) Bikotetik edo bikote ohitik kanpoko sexu-indarkeriei buruzko berariazko zerbitzuak; batzuk sexu-erasoetara (LOGILSaren aurretik, sexu-abusua barne) edo sexu-esplotaziora bideratutako salerosketara bideratuagoak EGM, BE edo sexu-indarkeria digitaletara baino. Honek ez du esan nahi, dena den, ez dituztela edo ezin dituztela sexu-indarkeriaren agerpen hauek artatu⁷⁸.

3. taldekoei dagokienez, nabarmena da , Madrilgo Udaleko (ASPACIA Fundazioa) Pilar Estebáñez Sexu-indarkeriaren aurkako krisi zentroa, bere ezaugarrietako lehena Espainian, 7/24/365 zerbitzu espezializatua emanez.

EGM eta BEari dagokienez, sexu-indarkeria mota hauei aurre egiteko zenbait protokolo aurkitu arren, behatu dugu baliabide gehienek normalean ez dutela indarkeria hauei buruzko berariazko espezializazioa. Are gehiago, galdetegian jasotako erantzunetatik eta elkarrizketatik identifikatu dugu oso EGM eta BE kasu gutxi heltzen direla baliabideetara, eta honek ez duela esan nahi gertatzen ez direnik (sexu-indarkeria mota hauei buruzko datu-falta estatistika ofizialetan ere beha daiteke). EGM eta BEaren kasuan, aurretik seinalatutakoa salbuetsirik, azpimarratu behar dira Bilboko Udalak egiten duen prebentzio- eta trebakuntzalanak; EGMari dagokionez, Munduko Medikuek Madrilen eta Bilbon egiten duen lana, eta BEaren inguruan nabarmena da Girona/Salteko Valentek iAcompanyades elkartearen lana⁷⁹.

⁷⁷7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.

⁷⁸Sexu-jazarpenari dagokionez, estatu-mailan, CCOO-ren generoagatiko jazarpenaren eta sexu-jazarpenaren behatokia identifikatu dugu: <https://observatorioacoso.ccoo.es/>

⁷⁹BEaren kasuan, oso erabilgarria egin zitzaigun behartutako ezkontzak artatzen dituzten erakundeen UAB-WASSU Fundazioaren 2021eko mapa: <https://matrimoniosforzados.fundacionwassu.com/>

Bestalde, sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatzen dituzten berariazko zerbitzuek sexu-indarkeria digital kasuak ere artatzen dituzte. Zentzu honetan, sexu-indarkeria kasuen kopuru handi batek osagai digitala dute, eta bakarrik sexu-ziberindarkeriazko kasuak ere badaude. Sexu-indarkeria mota honi buruzko berariazko baliabideei dagokienez, Fembloc-ek egiten duen lan garrantzitsua azpimarratu behar dugu, indarkeria digitalen aurrean elkarrekin eta adituek burutzen duten arreta-lerroa eta laguntza⁸⁰. Sevillako Diputazioan ere nabarmena da 20.000 biztanletik beherako udalerrietan indarkeria matxistaren emakume eta adingabe biktimantzako arreta psikologiko indibidualizatu eta zuzen zerbitzua, Sevillako probintziako 20.000 biztanletik beherako udalerrietan genero-indarkeriaren, sexu-indarkeriaren eta genero-ziberindarkeriaren emakume eta adingabe biktimei arreta psikologiko indibidualizatua eta zuzena emanez. Eta Kanaria Handiko Kabildoan Opciónate, Ziberindarkeria Matxisten Prebentzio eta Arreta Uharteetako Zerbitzua (SIPACM) aurki daiteke. Lurrean osoan paregabea dela iruditzen zaigu ziberindarkeria matxistara bakarrik bideratzen delako. Aipatu dugun bezala, 2023ko irailean irekiko da, baina prebentzio- eta aholkularitza-lana egiten du jada⁸¹.

Dena den, sexu-indarkerien emakume biktimak artatu, esku hartu eta babesteko berariazko zerbitzuak dituzten toki-erakundeei zein tokian lan egiten duten erakundeei egindako galdetegitik eta elkarrizketa sakonetatik, hurrengo informazioa eskuratu genuen (kontuan hartuz zerbitzuen, programen eta erakundeen aniztasuna eta bakoitzaren xedea):

- Galdetegiaren erantzunen arabera:
 - % 89k erantzun zuen bere erakundearen gunea irisgarria dela dibertsitate funtzionala duten emakumeentzat.
 - % 50k baieztatu zuen itzultzaile eta interpreteak dituztela.
 - % 46k adierazi zuen kulturarteko bitartekariak dituztela.
 - Guztiek, batek izan ezik, erantzun zuten genero-ikuspegia lantzen zutela.
 - Ikuspegi interseksionala lantzen duten galderari, bik izan ezik, gainerakoek baietz erantzun zuten.
 - Zerbitzuan edo programan kontratatuta dauden emakume profesionalei dagokienez, gutxienez bi daude. Batzuetan boluntarioak daude, beste batzuetan ez.
 - Taldeko profilararen inguruan, hurrengoak daude: psikologoak, juristak, abokatuak, gizarte-langileak, gizarte-hezitzaileak, gizarteratze-teknikariak, proiektu-

⁸⁰Ikusi: <https://fembloc.cat/index.html>

⁸¹Zerbitzu honek Kanaria Handiko uhartean bere ardurapean dauden emakume nerabe eta helduei eta hurrei eragiten dizkieten eta online espazioan burutzen diren indarkeria matxistak artatzea du helburu.

teknikariak, pedagogoak, kudeatzaile administratiboak eta gizarte-zerbitzuetako laguntzaileak. Neurri apalagoan, bitartekari bizirauleak, kulturarteko bitartekari espezializatuak, sexologoak, antropologoa, nazioarteko harremanak eta dekolonialitate eta antiarrazakeria, gizarte-komunikazioa, zibersegurtasun-adituak, soziologoa migrazioetan eta berdintasunean espezializatua, medikua sexu- eta ugalketa-osasunean espezializatua, irakasleak, kazetaria eta berdintasun-sustatzaileak. Haurrak ere artatzen dituzten kasuetan, batzuk erantzun zuten haurtzaroan espezializatutako profesionalak zituztela.

- Erakundeak ATENPROrekin duen harremanari dagokionez, batzuk erantzun zuten bazutela harremana (sexu-indarkeria kasuak genero-indarkeriaren baitan kokatzen zirenean) eta beste batzuk ezetz.
- Espainian sexu-indarkeriari buruzko datuak behar bezala biltzen diren galdetuz gero, gehienek ezetz erantzun zuten, eta hurrengoak zehaztu zuten:
 - Sexu-ziberindarkeriari buruzko datuak ez dira biltzen.
 - Judizializatzen ez diren sexu-indarkeria kasu gehienak isilean geratzen dira, batez ere zaurgarritasun handiena duten pertsonen sufritzen dituztenak, hala nola ezgaitasuna duten pertsonen edo etorkinek.
 - Oso indarkeria ikusezindua da, datuak ez dira maiz eguneratzen eta ez dira biltzen arazoa ezagutzeko datu esanguratsu guztiak.
 - Desberdintasun handia dago datu ofizialen eta erakunde espezializatuek ematen dituztenen artean.
 - Estatistika ofizialek ez dute jasotzen sexu-indarkeriaren errealitatea, biktima askok ez dute jotzen erakunde publikoetara, ez dira aintzat hartzen sexu-indarkeriaren agerpen guztiak eta aldagaiak behar dira genero-ikuspegia duten profesionalek egiten dituzten ikerketetan.
 - Sexu-indarkeriak oso zabalak dira eta salaketak besterik ez dira zenbatzen.
 - Ereku juridikoan ezagutzen direnak besterik ez dira biltzen.
 - Erregistro bateratua falta da.
- Batzuk erantzun zuten duela urte batzuk baino hobeto jasotzen direla, baina indarkeria batzuk ez direla nahikoa biltzen (adibidez, EGM) eta beste batek

Espainiako leku batzuetan baietz, terminologia parekatua eta koordinatzeko lekuak egoteari esker.

- Urtean zenbat emakume artatzen dituzten galdetuz, erantzunetako batzuk hurrengoak izan ziren: 300 inguru; 161; 150 emakume eta 65 haur inguru; 250etik gora; 296 emakume eta haur; 100 eta 150 artean; 30 eta 40 artean; 1381; 1291 telefonoz eta 595 aurrez aurre; 100; 900; 2000 emakumetik gora; 300 inguru; eta 400 eta 420 artean lehen sarreran eta 500 eta 600 jarraipenean.
- Artatzen dituzten emakume espainiarren eta atzerritarren kopuruari buruz galdetuz, erantzunetako batzuk hurrengoak izan ziren: 2022an, 123 emakume espainiar eta 38 atzerritar; 2022an, 137 espainiar eta 25 atzerritar; % 93 inguru atzerritarrak dira; 154 emakume espainiar; % 80 espainiarrak; % 100 atzerritarrak dira; 88 espainiar eta 1293 atzerrikoak; 2022an % 59,83 espainiarrak; % 75 espainiarrak eta % 25 atzerritarrak; % 65 espainiarrak eta gainerakoak atzerritarrak; guztiak etorkinak, eta % 80 espainiarrak.
- laz (2022) artatu zituzten administrazio-egoera irregularrean dauden emakume etorkinen kopuruaz galdetuz, erantzunetako batzuk hurrengoak izan ziren: ez dute egoera irregularra edo erregularra erregistratzen, ez baitaie esanguratsua iruditzen zerbitzua emateko; ez dute datu hori biltzen; 2; gehienak; 6; 15; 10; 537; % 30; datua ez da jaso; 2; 15 eta 30 emakume artean, askok erregulatzea lortu dute esku hartzean edo bitartean; 1; 42; 14; 10; 4 seme-alaba dituzten 64 emakume; % 5 eta ez dute datua jasotzen artatzen dutelako administrazio-egoera edozein dela ere.
- laz (2022) artatu zituzten dibertsitate funtzionala duten emakumeen kopuruaz galdetuz, erantzunetako batzuk hurrengoak izan ziren: bat ere ez, ez dute datua biltzen, 10, 7, 12 eta 20.
- Batzuk haurrak eta nerabeak artatzen dituzte eta beste batzuk emakume adindunak besterik ez.
- laz (2022) artatu zituzten trans emakumeen kopuruaz galdetuz, erantzunek barne hartu zuten bakar batetik ere ez 1era gutxienekoek eta 66 gehienekoak (prostituzio testuinguruetan).
- Artatzen dituzten emakumeen adinari dagokionez, erantzunetako batzuk hurrengoak izan ziren: adindunak eta prebentzioan adingabeak 12 urtetik aurrera; tarte komunena 26 eta 35 urte artekoa da, eta hurrengoa, 36 eta 45 urte artekoa; artatutako emakume gehienek 26 eta 55 urte artean dituzte; maila juridikoan, 18 eta 60 urte arte, batzuetan zaharragoak; edozein adinekoak, 2 eta 64 urte artean, gehienak 21 eta 30 artean; 15 eta 45 urte artean; artatuenak 21 eta 30 urte artean; 4 eta 82 urte artean; 17 eta 30 artean; 35 eta 45 arteko tarteak; 18 eta 65 urte

artean; 18 eta 24 urte artean; gutxiago 64 urtetik gora; 40 eta 49 urte artean; batez beste 37 urte, eta 16 urtetik gora, adin guztietakoak.

- Artatzen dituzten emakumeek salatzen duten galderari, erantzunak anitzak izan ziren: % 50 inguruk; 106k; 75ek; 180tik 106k salatu zuten; % 65ek; oso gutxi, zaila da gurasoak salatzea (BE); 2022an 3 emakumek salatu zuten salerosketa eta 2023an orain arte, 6k; emakumeek normalean ez dute salatu nahi; 10etik 1ek; datua ez da bildu; ez dute datua ezagutzen; % 50 inguruk; orain inork ez; 2022an 7 emakume egon dira sexu-esplotazioa bideratutako salerosketa: salatzeko prozesuan; artatutako 133 emakumetik, 33k salatu dute; % 80k; 118 emakumetik, % 21ek; ez dauka datua, eta % 30ek.
- Salatzen duten emakumeetatik, prozedura zigor-epaiarekin amaitzen den galderari, jarraian adierazten dira erantzunetako batzuk: ez daukagu datua; ez; ez da ohikoa, esanguratsua da artxibatzen den prozesu-kopurua; % 85etik gora, ahozko epaiketara heltzen direnak aintzat hartuz, % 95 inguru; prozesu luzeak izanik, kasu gehienetan ez dugu ebazpena ezagutzen ez dutelako esku-hartzea gurekin jarraitzen; salaketarik ez EGMan ez BEan; % 10; ez daukagu datu biribilik; askotan, eta laguntzen ditugun salerosketa kasu askotan zigor-epai kopuru altua ezagutzen dugu.
- Artatzen dituzten emakumeak ordainduta sentitzen diren galdetuz, erantzunetako batzuk hurrengoak dira: ez; judizialki edo sozialki, ez; ezin da jakin; erantzunak ñabardura asko ditu ordaina zer den ulertzen denaren arabera; bai; ordain-prozesuak salerosketa eta sexu-esplotazioen biktimetzat ez dira beti egokiak; ezin diogu galdera horri erantzun; zaila da balioestean artatzen ditugun emakumeak orokorrean ordainduta sentitzen diren; ez guztiak; batzuk, asko prozesuan daude; ez dira ordainduta sentitzen zigorrak urriak direlako, eta ordain ekonomikoa, hutsala; gutxi; zerbitzua hasi berri da; ematen den osoko esku-hartzearen muga; ia inoiz ez; esku-hartzea positiboki balioesten dute, eta inflexio-puntua sentitzen dute, baina bide luzea dute aurretik; babestuta sentitzen dira, ez ordainduta; ordain-prozesua hasten da, baina ezinezkoa da helburua osorik betetzea zentroaren tarteengatik; ez; oraindik ezin dugu hori ondorioztatu; askotan; ez, askotan prozesuak birbiktimitatu ditu eta ez dira ordainduta sentitzen; ez daukagu horri buruzko daturik; bai; esparru judizialean ez, esparru psikologikoan behar dute ordaina; ez daukagu neurtzeko adierazlerik, eta bai, gehienak.
- Urtean artatzen dituzten biktima edo bizirauleen senide edo pertsona hurbil kopuruaz galdetuz, erantzunetako batzuk hurrengoak izan ziren: 20; unean-unean besterik ez da orientatzen, ez dute zerbitzurik jasotzen; ez da datu hori jasotzen; 0; 32; zoritxarrez ezin da behar hori bete arreta-eskaera handia eta teknikari gutxiegi izateagatik; orokorrean ez dituzte artatzen kaltegileak direlako; ez dute seniderik artatzen; 90 inguru; 5 pertsona zeharka; oso gutxi; 3 edo 4 emakume

bakoitzeko; 15; soilik bere seme-alabak edo bere mendekoak, 2022an 18 haur izan ziren; 8; 60; 50; ez dauka datua; gutxi, eta 100 eta 120 artean.

- Erabiltzen duten sexu-indarkeriaren definizioari dagokionez, erantzun batzuk adierazi zituzten LOGILSarena; NBE eta Istanbulgo Hitzarmenarena; erkidegoetako legeak; Zigor Kodea, Palermo eta Istanbul; ez da ezarri, eta erantzun askok azpimarratu zuten adostasun falta jasotzen duen definizioa.
- Erantzundako galdetegietaik, %93k artatzen dituzte bikote edo bikote ohi kanpoko sexu-indarkeriak eta % 7k ez.
- Artatzen dituzten sexu-indarkeria moten artean (kontuan hartuta erakunde batzuk sexu-indarkeria mota ugari artatzen dituztela eta beste batzuk bat edo batzuk bereziki), hurrengoak adierazten dira: esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak; guztiak; guztiak sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa izan ezik; Estatuko eta erkidegoko araudian jasotzen direnak; sexu-erasoa, sexu-jazarpena eta esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak; sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa eta batzuetan BE; Zigor Kodean jasotzen diren guztiak; BE; guztiak esparru digitalekoak izan ezik; salerosketa, sexu-esplotazioa, EGM, BE, birjintasun-probak, ohore-krimenak, eta abar; sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa eta prostituzio-testuinguruan gertatzen den beste edozein; sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa prostituzioan, neskametz/sexu-esklabotasunera bideratutako salerosketa tratulariaren mesedetan, pornografian esplotaziora bideratutako salerosketa eta BEra bideratutako salerosketa, eta sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen salerosketa, sexu-esplotazioa, EGM eta BE.
- Talde-bortxaketa kasuak artatu ote dituzten eta, baiezkoa izatekotan, zenbat urtean galdetuz gero, erantzunek hurrengoak hartu dituzte: ez; ezin da datu hori eman; 1 edo 2 kasu urtean; bai, iaz 5 emakume eta 2 emakume adingabe; 6; bai, prostituzio-testuinguruan, zenbatu gabe, eta kasuen %20 edo 30 inguru.
- Etxeko lanean sexu-indarkeria kasuak artatzen dituzten eta, baiezkoa izatekotan, zenbat urtean galdetuz gero, erantzunak hurrengoak izan ziren: ez; ziberindarkeria bai, baina ez daukagu daturik oraindik; ez dugu datu hori jasotzen; bai, baina ez dago daturik; 1; 2; 4; 20; ez dugu izan; laguntzen ditugun emakumeekin aurkitzen dugu, erakartzeko modua da, eta etxeko lanean lan-esplotaziora bideratutako salerosketa kasu batzuk artatu ditugu, sexu-indarkeria delituekin gainjarri direnak.
- Artatzen dituzten sexu-indarkeria mota ohikoenak hurrengoak dira (artatzen duten sexu-indarkeria motaren arabera): sexu-ziberjazarpena, pornomendekua, bodyshaming, buztanfotok, deepfaking, slutshaming; sexu-erasoak; bikote barruko sexu-indarkeria, ezezagunen partetik eta prostituzioa jarduten; ukipenak

edo sexu-erasoak sarketarekin biktimaren inguruaren partetik; sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa eta sexu-esplotazioa; sexu-abusuak, hein handi batean haurtzaroan; sexu-erasoak ezagunen edo ezagun berrien partetik, 40 urtetik beherako emakumeen aurka; BE; erasoak eta bortxaketak prostituzio-testuinguruan; EGM; BE; erasoak, bortxaketa; 2022an sexu-abusuak haurtzaroan bikotetik kanpoko sexu-indarkeria ugariena dira; sexu-jazarpena lanean, eta sexu-erasoak ezagunen edo ezezagunen partetik, haurtzaroan edo gertatu berriak ezezagunen partetik. Artatzen dituzten sexu-indarkeria mota ezohikoenak hurrengoak dira (artatzen duten sexu-indarkeria motaren arabera): jazarpena; indarkeria digitala; talde-bortxaketak; EGM; BE eta sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa.

- Emakumeek ze sexu-indarkeria mota identifikatzen duten gehien galdetuz, informazioa eman zezaketen artetik, batez ere sexu-erasoak eta sexu-erasoak indarkeria fisikoarekin. Eta gutxien, ziberindarkeria, indarkeria psikologikoa, familia barruko sexu-indarkeria, adingabeen aurkako sexu-indarkeria, kale-jazarpena, sexu-esplotazioa, bikote barrukoa, BE, sexu-izaera duten feminizidioak, sexu-jazarpena lanean, bikote barruko bortxaketa, prostituzio-testuinguruan gertatzen dena, EGM, hitzezkoa, indarkeria instituzionala eta nerabeen arteko harremanetan ematen den indarkeria, hala nola harremanak izateko presioa.
- Galdetegiari erantzun zion %100ek baieztatu zuen Istanbulgo Hitzarmena ezagutu eta erabiltzea, baita CEDAW eta CEDAW batzordearen esparrua egiten duten lanean.
- 10/2022 legea ezartzen duten galderari, %85ek baietz erantzun zion.
- Behar adinako arreta betetzen duten galderari, %75ek baietz erantzun zion.
- Elkarrizketatik eskuratu genuen informaziotik:
 - Espainian egon den genero-indarkeria ulertzeko modua dela eta, batez ere LOMPIVGa eta gero, baliabide eta zerbitzu ugari ikuspegi hau baliatuz diseinatu dira. Zentzu honetan, oso garrantzitsua da emakumeen aurkako sexu-indarkeria genero arrazoiengatik haien aurkako indarkeriaren seinalea dela eta, hori dela eta, giza diskriminazio-mota bat dela eta giza eskubideak urratzen dituela ulertzea heldzea.
 - Sexu-indarkeriaren mota desberdinei (sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE eta sexu-indarkeria digitalak) buruzko datuak modu bateratuan jasotzen. Gainera, informazioa ez da jasotzen genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala baliatuz. Hori dela eta, ezin da behatu, adibidez, atzerriko, dibertsitate funtzionala duten edo adin jakinetako

emakumei gehiago eragiten dieten sexu-indarkeria motak dauden, sexu-indarkeriak artatu eta esku-hartzeko neurriak eta ekintzak diseinatu eta inplementatzeko diagnostikoa egiteko.

- Emakumeen aurkako sexu-indarkeriekin lan egiteak dakarren espezializazioa dela eta, bikote edo bikote ohi barruko generoagatiko indarkeriaren baitan sexu-indarkeriari heltzen dioten baliabideek ere trebakuntza espezializatua izan behar dute.
- Sexu-indarkeriek espezializazioa exijitzen dute, generoagatiko indarkeria eta diskriminazio mota bat izanez eta giza eskubideak urratzen dituzenez gero. Gainera, sexu-indarkeria mota bakoitzak (erasoa, jazarpena, sexu-esplotazioa bideratutako salerosketa, EGM, BE eta indarkeria digitalak) bere espezializazio propioa exijitzen du.
- Oraindik erantsi behar dira hein handi batean sexu-indarkeriei buruzko toki-eginbeharra. Izan ere, hauek ez dira jasotzen soilik estatuko eta autonomia-erkidegoetako arau-esparruetan, baizik eta giza eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako esparruan ere.
- Toki-zerbitzuak ez daude isolatuta; aitzitik, eragile eta instituzio desberdinek parte hartzen duten testuinguru batean egiten dute lan. Sexu-indarkerien biktimen edo biziraileen eskubideak errespetatu, bermatu eta babesteko, emakume guztien birbiktimizazioa saihesteko eta sexu-indarkeriak desagerraraztearen eta berdintasunerako eta ez diskriminaziorako eskubidearen, interseksionala barne, arteko loturaren ulermena indartzeko egin behar da lan. Zentzu honetan, sexu-indarkeriaren biktimak edo bizirauleek eskubideak dituztela eta instituzioek hauxe bermatu behar duten ulerpena lantzen jarraitu behar da. Izan ere, biktimak edo bizirauleak, bere eskubideak eta beharrak erdigunean kokatu behar dira beti.
- Sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko tokiko esparru-protokoloa behar da.
- Zerbitzu gehienek barne-protokoloak dituzte sexu-indarkeria kasuak artatzeko, baina batzuk ez, eta garrantzitsua da guztiek izatea (arretarako, premiazko arretarako edo krisian esku hartzeko barne-protokoloak) biktima edo bizirauleetara egokitzeko kasuetan behar del malgutasuna galdu gabe.
- Ez dago sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko dauden tokiko baliabide eta zerbitzuen mapa instituzionalik.

- Sexu-indarkeria kasuetan udaletan jarduketa- eta informazio-prozedurak berrikusi eta eguneratu behar dira Istanbulgo Hitzarmenera eta LOGILSera egokitzeko.
- Sexu-indarkeriak artatu eta desagerrarazteko tokiko edozein ekintza edo neurrirako, kontuan hartu behar dira litzateke emakumeen eta feministen erakundeen parte-hartze eraginkorra, batez ere sexu-indarkerien biktime edo bizirauleei laguntzen dietenak.
- Baliabide edo zerbitzu gehienek genero-ikuspegiarekin eta ikuspegi interseksionalarekin lan egiten dutela adierazi arren, oraindik lan asko dago egiteke emakumeen aurkako sexu-indarkerietan ikuspegi interseksionala eransteko. Izan ere, emakume guztiek ez dituzte arrisku, eragin eta behar berak sexu-indarkerien aurrean.
- Salbuespen batzuk izan ezik, haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten zerbitzuek haurtzaro-ikuspegia sendotu behar dute.
- Baliabideetan oraindik ez da erantsi ijitofobiari aurka egiten dion ikuspegia, emakume eta neskatu ijitoek jasaten duten bereizkeria interseksionalari buruzko berriazko trebakuntzarekin.
- Baliabide edo zerbitzu guztiek ez dituzte kulturarteko bitartekariak edo sustatzaile komunitarioak, eta neurri apalagoan sexu-indarkerien bizirauleak dituzte.
- Oraindik ez dira baliabide edo zerbitzu guztiak egokitu instalazioak eta sarrerak dibertsitate funtzionala duten emakumeentzat irisgarriak izan daitezkeen.
- EGM eta BF genero-, kulturarteko ikuspegiak eta ikuspegi interseksionalak artatzeko berriazko baliabideak falta dira. BEaren biktimen ezkontza saihesteko bere ingurutik ihes egiterakoan ez dute nora joan. Halaber, EGM eta BEn espezializazioa falta da, hau da, komunitatearen arabera egon daitezkeen kausak eta ezaugarriak ezagutzea. EGMaren kasuan oraindik ez da ulertzen sexu-indarkeria mota honek osoko eragina duela emakumeen bizitzarengan.
- EGMaren kasuan, detektatutako praktika ona da komunitatearekin eta kulturarteko bitartekariarekin egiten den oinarritzeko lana.
- Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa kasuetan espezializazioa behar da jatorrizko herrialdearen eta sareek baliatzen dituzten bide aldakorren arabera dinamika erantsiz.

- Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketan identifikatutako praktika ona da lantaldeetan eta erakundeetan bizirauleak zeharka erantztea.
- Sexu-ziberindarkeriaren kasuan, kontuan hartu behar da sexu-indarkeria kasu askok osagai digitala izan dezaketela, eta bakarrik sexu-ziberindarkeriazko kasuak ere badaudela.
- Segurtasun digitalean eta autodefentsa feministan trebatu behar da sexu-indarkerien emakume biktimei edo bizirauleei jarraibideak eman ahal izateko.
- Kasu batzuk ez dira helden baliabide edo zerbitzuetara, edo neurri txikiagoan helden dira, hizkuntza-trabengatik, interpretazio espezializatu ezagatik, adinagatik (adibidez, adineko emakumeen kasuak), sexu-indarkeriaren agerpen mota edo ezaugarriagatik edo emakume guztientzako informazio irisgarri faltagatik edo baliabideen erabilgarritasunagatik (adibidez, landa-esparruan).
- Zerbitzu batzuk itxarote-zerrenda dute biktimak edo bizirauleak artatu ahal izateko.
- Trebakuntza espezializatuak sexu-indarkerietan hurrengoan trebatzea dakar: genero-ikuspegia, interseksionalitatea, kulturartekotasuna, antiarrazakeria, berdintasuna eta diskriminazio eza, bortxaketari buruzko mitoak, genero-aurreiritziak eta -estereotipoak, nazioarteko eta Europako estandarrak, trauma, larrialdia eta krisia, birbiktimizatzea saihestea eta haurren eskubideak. Oso garrantzitsua da baita ere kasu hauek artatuko dituzten profesionalen profila eta eskarmentua. Trebakuntzak kontuan hartu beharko luke ere lana sexu-indarkeria mota desberdinen kasu praktikoekin.
- Trebakuntzak kontuan hartu behar du sexu-indarkeriak osasun mentalean duten eragina eta hauen indarkeria psikologiko osagaia. Adibidez, sexu-ziberindarkeria kasuetan kontaktu fisikorik ez egon arren, indarkeria psikologikoa badago, eta askotan ez da aintzatesten. Horrela, sexu-indarkeria digitalek osagai psikologikoa dute, kontuan hartuz fisikoarekin lotura duela eta buruari eragiten dionak gorputzari ere eragiten diola.
- Indarkeria matxisten eta sexu-indarkerien arteko lotura dago, beraz, sexu-indarkeria mota bati aurre egiten edo egin bazaio, ziurrenik beste indarkeria matxista edo sexu-indarkeria mota bati ere egiten edo egin dio aurre. Adibidez, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktima asko BEaren biktimak izan dira, eta BE kasuetan sexu-erasoak daude.
- Lehen esku-hartzea oso garrantzitsua da, biktima edo bizirauleekin lehen kontaktua da, eta ez dute sentitu behar ez epaitzen dituztela ez ardura leporatzen

dietela. Emakumea zerbitzuarekin berriz harremanetan jartzea edo jarraitzea lehen esku-hartze honen baitan egon daiteke.

- Lehen deian arriskua balioesten da, kontuan hartuz sexu-indarkerietan ez da gauza bera erasotzailea ezaguna edo ezezaguna izatea. Arriskuaren balorazioa sexu-indarkeria motaren eta erasotzailea nor den mende egongo da, kontuan hartuz berariazko arriskuak sexu-indarkeriak familia-giroan ematen diren kasuetan.
- Hautzaroan jasandako sexu-indarkeriagatik zerbitzuetara jotzen duten emakumeen kopuru adierazgarria detektatu dugu.
- Sexu-indarkeria mota edo agerpen bakoitzak azal ditzakeen egoera desberdinak artatzeko telefono-arreta-protokoloa behar da.
- Sexu-indarkerietan espezializatutako laguntza psikologikoa genero-ikuspegiarekin ezinbestekoa da biktima edo bizirauleak artatzeko eta hauek suspertzeko.
- Kontuan hartu behar dira sexu-indarkeria kasu batzuk exijitzen dituzten premia eta berehalako erantzuna.
- Sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko kalitatezko zerbitzuak nahikoa baliabide tekniko, ekonomiko eta giza baliabide behar ditu, biktima edo biziraule bakoitza modu egokienean artatzeko denbora barne.
- Kalitatezko zerbitzua emateko, oso garrantzitsua da profesionalak eta taldeak zaintzeak, eta arreta berezia ipini behar zaie sexu-indarkeria kasuekin lan egiteak eta giza eskubideen urraketa honen biktima edo bizirauleekin harreman zuzenean egoteak dakartzan ondorio gehigarriei.
- Baliabide bakoitzak argitu behar du zer eskaini diezaiekeen emakumeei eta zer ez itxaropen faltsurik ez sortzeko.
- Zerbitzu batzuk, hala nola Asturiasko Krisi-zentroak, bere espezializazioa eta bakartasuna direla eta, zerbitzu autonomikoa izan arren, tokian ematen ditu zerbitzuak behar diren Asturiasko lekuetara mugituz han biktimak edo bizirauleak egoteagatik.
- Zerbitzu guztiek ez dute ebaluazio-sistema edo ez dute artatzen dituzten emakumeen balorazioa biltzen.
- Zerbitzuak izan ez ezik, ebaluatzea ere ezinbestekoa da, eta ebaluazio horretan parte hartu behar dute artatutako biktima edo bizirauleek eta emakumeen eta

feministen erakundeek, arreta berezia jarritz aniztasunean, kontuan hartuz bereziki sexu-indarkeriak desagerrarazteko lan egiten dutenak.

- Identifikatu dugun ebaluazio-sistamarako praktika on bat da urtean behin ebaluazio bat burutzea, non zerbitzuak artatutako emakumeek galdetegi bati erantzun diezaioketen modu anonimoan, eta profesional espezializatuek urtean behin kanpo-ebaluazioa egitea zerbitzuak biktima edo bizirauleen bizitzan duen eragina baieztatu eta jasotako arreta eta zerbitzuak burututako lana baloratzeko.
- Detektatu dugu tokitik sexu-indarkeria kasuetan laguntzen duten erakundeen eta feministen eta emakumeen erakundeen sare-lana sustatzeko beharra.
- ATENPRO zabaltzeak, sexu-indarkeriak erantsiz, erraztu dezake indarkeria hauen biktima edo bizirauleak seguruago sentiaraztea gailua izanda. Elkarrizketatutako balia bideek jakinarazi dizkigutenaren arabera, ATENPROk sexu-indarkerien emakume biktima edo bizirauleak babestu eta laguntzeko egokiak izan daitezkeen kasuistikek emakumearen partetik arrisku-pertzepzioa dagoen egoerei erantzuten diete, batzuetan objektiboa eta bestetan subjektiboa izanik. Besteak beste, hurrengoak adierazgarriak dira:
 - Emakume biktimak edo bizirauleak erasotzailea topatu du bere udalerrian. Emakumea beste pertsona batzuekin zegoen, baina noizbait bakarrik egotean zerbait egin diezaiokeen beldur da.
 - Erasotzailea zigortu dute, baina oraindik ez da espetxean sartu helegitea aurkeztu duelako. Emakume biktima edo biziraulea gauez (erasoa gertatu zen unean) kalera bakarrik ateratzearen beldur da.
 - Erasotzaileak prebentziozko espetxeratzea amaitu du eta emakumearen udalerriri berean bizi da.
 - Erasotzailearen familiak eta lagunek emakume biktima edo biziraulari jarraitzen eta iraintzen diote.
 - Erasotzaileak senideak ditu bere etxebizitza-blokeak eta topatzearen beldur da. Saihesten du atarira bakarrik sartzea, gauez ateratzea, soinekoak janztea, eta abar.
 - Erasotzailea udalerriri berean edo gertu bizi da eta edozein momentutan topatu dezake, emakumea beldur da eta bakartzen da edo bakarrik joatea saihesten du arrazoi honengatik.
 - Emakumea etxera bakarrik bueltatzearen beldur da.

- Erasotzaileak ezagutzen du bere bizilekua, non erasoa burutu zen, eta egunen batean bueltatu ahal izateak ikaratzen du.
 - Deklaratu eta gero auzitegitik ateratzean urruntze-agindurik ez duten emakume biktima edo bizirauleak.
 - Saretik atera den sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktima.
 - Ez ezkontzeko bere familiarengandik ihes egin duen BEaren biktima.
 - Babes-sisteman sexu-esplotazioa jasan duen nerabea.
 - Salaketa kentzeko erasotzailearen eta bere inguruaren presioak jasotzen dituen emakume biktima.
 - Halaber, senideen partetik sexu-indarkeriaren biktima diren eta ATENPROko erabiltzaileak izan nahi zuten haur eta nerabeen kasuak entzun ditugu, baina zerbitzuaren funtzionatzeko modua dela eta, ez zen posible izan.
- 016 zerbitzuaren esperientzia interesgarria da; psikologoak eta gizarte-langileak sartu zituzten eta trebakuntza- eta kalitate-arduradunaren kargua ere erantsi zuten.

c. SEXU-INDARKERIEI BURUZKO ESKU-HARTZE ETA PREBENTZIO EKINTZAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Giza eskubideak babesteari buruzko nazioarteko eta Europako esparrutik abiatuz, bereziki toki-eginbeharrak sexu-indarkeriei dagokienez; Espainian sexu-indarkerien egoeraren diagnostikotik; galdetegietan eta elkarrizketetan emandako erantzunetatik, sexu-indarkeriei buruzko esku-hartze eta prebentzio ekintzak hobetzeko proposamenak aurkeztuko ditugu jarraian:

- Toki-erakundeekin lanean jarraitzea paradigma aldatzeko lau zentzutan:
 - (1) Giza eskubideak babesteari buruzko nazioarteko eta Europako esparruak sexu-indarkerien inguruan toki-erakundeei emandako eginbeharrak ulertzea eta barneratzea.
 - (2) Sexu-indarkeriak genero arrazoiengatik emakumeen aurkako indarkeria-mota edo agerpena direla ulertzea. Hori dela eta, giza diskriminazio-mota bat da eta emakumeen giza eskubideak urratzen ditu.

(3) Sexu-indarkeriaren biktimak edo bizirauleek eskubideak dituztela eta instituzioek haxe bermatu behar duten ulerpena lantzen biktimak edo bizirauleak, bere eskubideak eta beharrak erdigunean kokatu behar dira beti.

(4) Sexu-indarkeriak artatzen dituzten eta esku hartzen dutenentzako trebakuntza nahitaezkoa da, eta hurrengoak hartu behar ditu kontuan: genero-ikuspegia, interseksionalitatea, kulturartekotasuna, berdintasuna eta diskriminazio eza, sexu-indarkeria bakoitzaren ezaugarriak, antiarrazakeria, birbiktimizazio eza, genero-aurreiritziak eta -estereotipoak, bortxaketari buruzko mitoak, haurtzaro-ikuspegia, trauma eta giza eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako esparrua, bereziki CEDAW, bere 35. Gomendio Orokorra eta Istanbulgo Hitzarmena, Gizakien salerosketaren aurkako ekintzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Varsoviako Hitzarmena); Ziberdelinkuentziari buruzko Hitzarmena (Budapesteko Hitzarmena). Trebakuntzak kontuan hartu behar du sexu-indarkeriak osasun mentalean duten eragina eta sexu-indarkeria digitalen indarkeria psikologikoko osagaia.

- Kasu bakoitzean dagozkion sexu-indarkeria motak detektatzen laguntzeko trebakuntza eskaintzea; izan ere, ohikoa da sexu-indarkeria moten eta indarkeria matxisten arteko lotura egotea.
- Sexu-indarkeria mota desberdinei (sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE eta sexu-indarkeria digitalak) buruzko datuak bateratzeko mekanismoa sortzea. Mekanismo honek kontuan hartu beharko luke LOGILSaren sexu-indarkeriei buruzko definizioa eta genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala izan. Hau sortzeko, sexu-indarkeria kasuetan laguntzen duten emakumeen eta feministen erakundeen iritzia eta iradokizunak aintzat hartu beharko liriteke. Halaber, mekanismoak hausnartu beharko luke sexu-indarkeria kasuak artatu, esku hartu eta babesteko berariazko zerbitzuak dituzten toki-erakundeek datuak hartzeko modua eta horretarako tresna sortu. Datuak ezinbestekoak dira politika publikoak ebaluatu eta hobetu ahal izateko.
- Tokian sexu-indarkeria kasuak prebenitzeko, kontuan hartu behar dira indarkeria honen mota, agerpen edo esparru bakoitzaren ezaugarriak, eta lan egin behar da autonomia-erkidegoekin batera, gizarte osoari zuzendutako udal-kanpainak eginez, batez ere gizon eta mutikoei, «bortxaketaren kultura»rekin lotutako estereotipoak desagerrarazteko, baita adin guztietako emakumei zuzendutako informazio-kanpainak ere, hizkuntza desberdinetan, bere eskubideei eta baliatu ditzaketen baliabideei buruzko informazioarekin.
- Sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko tokiko esparru-protokoloa diseinatu eta garatu. Honen ardatz nagusiak izango dira behar adinako arreta, genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala eta administrazioen eta profesionalen arteko koordinazioari arreta berezia jartzea. Protokoloak ebaluazio-sistema izan eta sexu-indarkeria mota bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartu beharko lituzke.

- Sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko dauden tokiko baliabide eta zerbitzuen mapa instituzionala sortu, maiz eguneratu eta irisgarria izan behar du euskarri eta hizkuntza desberdinetan eta dibertsitate funtzionala duten emakumeentzat.
- Sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko dauden toki-zerbitzuek sexu-indarkerien aurrean jarduketa-protokoloa dutela ziurtatu, Istanbulgo Hitzarmenean eta giza eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako esparruan jasotzen diren toki-eginbeharrak jasotzen dituen, administrazioen eta profesionalen arteko koordinazioari arreta berezia jarritz. Protokoloak ebaluazio-sistema izan eta sexu-indarkeria mota bakoitzari heldu beharko lioke, bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz. Aintzat hartu behar da, protokoloak izatea beharrezkoa izan arren, garrantzitsua dela biktima edo bizirauleetara egokitzeko kasuetan behar den malgutasuna ez galtzea.
- Toki-zerbitzuek arretarako, premiazko arretarako edo krisian esku hartzeko barne-protokoloak dituztela ziurtatu.
- Sexu-indarkeria kasuetan udaletan jarduketa- eta informazio-prozedurak berrikusi eta eguneratu Istanbulgo Hitzarmenera eta LOGILSera egokitzeko.
- EGM, BE eta sexu-indarkeria digitalen biktima edo bizirauleentzako baliabide espezializatuak indartu.
- Toki-zerbitzuetako profesionalak trebatu, sexu-indarkerien inguruan oro har, eta, zehazki, bere mota, agerpen eta esparruen inguruan eta bakoitzaren ezaugarrien inguruan. Kontuan har daiteke bizirauleen, adituen eta kasu hauetan laguntzen dituzten erakundeen eskarmentua trebakuntzarako.
- Itzultzaile eta interpreteek libre egon behar dute, aurrez aurre ahal bada, eta espezializatuta egon, eta biktima edo bizirauleei aukera eman behar zaie interpretea emakumea izatea nahiago ote duten erabakitzeko. Izan ere, gerta daiteke erosoago sentitzea jasan duen sexu-indarkeriaz hitz egiteko.
- Toki-zerbitzuek kulturarteko bitartekariak izan beharko lituzkete, ezinbestekoak baliabideetara emakume gehiago heltzeko, birbiktimizazioa saihestu eta prozesuan lagunduta sentiarazteko, eta ordain-prozesu hasieran ere lagunduz.
- Sexu-indarkeriak artatzen dituzten toki-zerbitzuek sexu-indarkerien emakume bizirauleak sartu beharko lituzkete bere taldeetan, baita emakume anitzak ere, emakume gehiagok jo dezaten zerbitzuetara eta identifikatuago sentitu daitezen, adibidez, emakume arrazializatuak, jatorri desberdinetakoak edo dibertsitate funtzionala duten emakumeak. Zerbitzu hauek beste emakumeentzako erreferenteak izan behar dituzte eta oinarritzko

eta komunitateko lana egin behar dute zerbitzuak zabaltzeko eta sexu-indarkeriak desagerrarazten laguntzeko.

- Sexu-indarkerien biktima edo biziraule batzuk zerbitzuak baliatzea ekiditen duten trabak kendu. Zentzu honetan, emakumeek zerbitzuak edo baliabideak baliatu ahal izan behar dituzte salatu nahi izan edo ez, eta bere migrazio-egoera alde batera. Toki-zerbitzuak egokitu beharko lirateke sexu-indarkeria mota guztien biktimetara edo bizirauleetara, eta ez haiek zerbitzura.
- Hurrekin eta nerabeekin lan egiten duten toki-zerbitzuek haurtzaro-ikuspegia aplikatu behar dute.
- Zerbitzuek ikuspegi interseksionala indartu behar dute. Hau anizkoitzaren desberdina da; izan ere, emakume guztiek ez diete aurre egingo arrisku, eragin eta behar berei sexu-indarkerien aurrean.
- Sexu-indarkeria kasuak artatzen dituzten toki-zerbitzu guztiek zeharkakotu behar dute ziberindarkerien gaia; izan ere, sexu-indarkeria kasuetan ager daitekeen osagaia da. Halaber, segurtasun digitalean eta autodefentsa feministan trebatu behar dira sexu-indarkerien biktimei edo bizirauleei beharrezko jarraibideak eman ahal izateko.
- Kontuan hartu nahi duten bizirauleak eta emakumeen eta feministen erakundeak, batez ere sexu-indarkerien biktima edo bizirauleei laguntzen dietenak, sexu-indarkeriak artatu, esku hartu eta desagerrarazteko neurriak eta ekintzak diseinatu, gauzatu eta baloratzerakoan benetan parte har dezaten.
- Adineko emakumeen aurkako sexu-indarkeriak artatzeko berariazko neurriak hartu, bereziki 65 urtetik gorakoak.
- Zerbitzuak indartu baliabide tekniko, ekonomiko eta giza baliabideen bidez kalitatezko zerbitzua emateko. Honek itxarote-zerrendak desagerrarazten lagunduko luke. Itxarote-zerrendek adierazten dute zerbitzu hauen beharra eta eskaera handia; beraz, zerbitzu espezializatuak eta erabilgarriak behar dira.
- Oso garrantzitsua litzateke sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatzen dituzten toki-zerbitzu guztiek sexu-indarkerietan adituak diren psikologoak izatea laguntza psikologikoa emateko. Modu berean, oso baikorra litzateke sexu-indarkeriak jasan dituzten emakume-taldeekin lana eranstea talde hauetan parte hartu nahi duten emakumeekin.
- Ikerlanaren xedea lantzen duten toki-zerbitzuetako eta taldeak osatzen dituzten profesionalak zaindu, arreta berezia ipiniz sexu-indarkeria kasuekin lan egiteak eta biktima edo bizirauleekin harreman zuzenean egoteak dakartzan ondorioei.
- Tokitik sare-lana sustatu.

d. EBALUAZIO-SISTEMARAKO PROPOSAMENAK

Giza eskubideak babesteari buruzko nazioarteko eta Europako esparrutik abiatuz, bereziki toki-eginbeharrak sexu-indarkeriei dagokienez; Espainian sexu-indarkerien egoeraren diagnostikotik; galdetegietan eta elkarrizketetan emandako erantzunetatik, eta antzeman dugunez sexu-indarkerien emakume biktima edo bizirauleak artatzen dituzten toki-zerbitzuak izatea ez ezik, ebaluatzea ere garrantzitsua dela, ebaluazio-sistemarako hurrengo proposamenak egiten ditugu sexu-indarkeriak artatu, esku hartu eta babesteko zerbitzuen kalitatea bermatzeko, esparru-dokumentu bat egitean eta protokolo propioak garatzean oinarritzen dena:

- **Esparru-dokumentu** bat gauzatu toki-erakundeetako sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko zerbitzuen ebaluazio-irizpideak bateratzeko. Honek, gutxienez, hurrengoak jaso beharko luke:
 - Toki-erakundeen, adituen, sexu-indarkerien biktima eta bizirauleen eta emakumeen eta feministen erakundeen parte-hartzea aintzatestea, batez ere sexu-indarkerien emakume biktimen eta bizirauleen prozesuetan laguntzen dutenak.
 - Sexu-indarkerien emakume biktimak edo bizirauleak artatu, esku hartu eta babesteko zerbitzuari buruzko balorazioa jasotzeko mekanismoa sortu, kontuan hartuz hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten emakumeak, dibertsitate funtzionala duten emakumeak eta hurrei egokituz hala badagokio.
 - Bi urtean behin kanpo-ebaluazioa hausnartzea genero-ikuspegia, haurtzaro-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala duten eta sexu-indarkeriak lantzen eskarmentua duten profesionalen partetik.
 - Ebaluazioari buruzko adierazle bateratuak sortu Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko politika eta zerbitzuen katalogoan giza eskubideen nazioarteko estandarraren arabera dokumentutik abiatuta.
 - LOGILSari egokitu, batez ere «Bosgarren xedapen gehigarria. Erakundeen ekintzaren ebaluazioa eta monitoretza emakumeen aurkako indarkeriari buruz» atalean, zeinak hurrengo adierazten duen: «Gobernuak, autonomia-erkidegoek, toki-administrazioa osatzen duten erakundeek, eta Ministerio Fiskalak eta Botere Judizialak, bere eskumenen baitan, lau urteko txostenak egingo dituzte emakumeen aurkako indarkeriari buruzko neurriak betetzearren, eta Gorte Nagusietara bidaliko dituzte emakumeen aurkako indarkeriari buruzko arauen eta politika publikoen inplementazio-zerbitzuak eta bere eraginak ebaluatzeko eta kontuak emateko, arreta berezia jarritz administrazio publiko guztiek kontuak eman behar dituztela Genero-indarkeriaren aurkako Estatu-ituneko neurrien eta Genero-indarkeriaren aurkako Estatu-itunean aurreikusitako funtsen inguruan. Xede horietarako, dagozkion administrazio publikoek datu estatistikoak, homogeneoak eta etengabeak bilduko dituzte prebentzio, detekzio, osoko arreta,

babes, justizia eta ordainei buruzko jarduketa instituzionalari buruz. Jasoko dituzte administrazio publiko guztietatik zein biktimentzako laguntzan espezializatutako erakundeetatik datozen informazioa zein emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prozesu penalei dagozkiena»⁸².

- Toki-erakundeen mendekoak diren sexu-indarkeriak artatu, esku hartu eta babesteko zerbitzu bakoitzak bere **protokolo propioa** izatea, gutxienez hurrengoak jaso beharko lukeena:
 - Aurretik iradokitako ebaluazio-irizpideak bateratzen dituen esparru-dokumentua.
 - Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala, sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak erdigunean jarriz diseinatu eta inplementatzeko orduan.
 - Protokoloan proposatutako zirkuituak monitorizatu eta hobetzeko berariazko adierazleak deskribatu.
 - Erabilgarria izan hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten emakumeentzat, dibertsitate funtzionala duten emakumeentzat eta haurrei egokituz hala badagokio.
 - Kontuan hartu toki-zerbitzuak artatutako sexu-indarkerien emakume biktimen edo bizirauleen iritzia. Horretarako, sistema bat sor daiteke biktima edo bizirauleek galdetegi bati erantzun diezaioten modu anonimoan, linean egin litekeena, segurtasuna eta informazioa babestuta dagoela bermatuz. Modu berean, profesionalak emakumeei galdetu diezaiekete zerbitzua zertan hobetu eta kasu bakoitzaren fitxa, txosten edo erregistroan puntu hau erantsi. Urtean behin informazioa biltzeko eta taldearekin partekatzeke arduraduna izendatu liteke, eta gainbegiraleak hobekuntzak ezartzeko dagozkion neurriak har ditzala.
 - Kanpo-ebaluazioa hausnartu genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala duen emakume profesional aditu baten partetik; zerbitzua ebaluatzeaz gain, artatutako biktima edo bizirauleen eta bertan lan egiten duten profesionalen iritzia jasoz. Kanpo-ebaluazio hau bi urtean behin egin beharko litzateke.
 - Sexu-indarkeria kasuetan laguntzen duten emakumeen eta feministen erakundeen parte-hartzea gehitu.
 - Ebaluazioaren parte gisa, profesionalen eta taldearen gainbegiratzea erantsi, hurrengoak baloratzeko: higadura emozionala edota lan gehiegi egiten duen, deskonektatzeko lekuak dauden, astean behin saio bat egin behar den kasuei buruz hitz egiteko eta detektatutako balizko beharrei erantzuteko modua ezartzeko.

⁸²«10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa...», *Op. Cit.*, bosgarren xedapen gehigarria.

- Ebaluazioaren parte gisa, profesionalen gainbegiratzea dagoen hausnartu, eta kontuan hartu profesionalentzako etengabeko trebakuntza dagoen eta trebakuntzon eragina ebaluatzen den eta nola.
- Ebaluazioei buruzko txostenak zabaldu eta zerbitzuetako lan-memoria publikoetan sartu, zerbitzuan hobekuntzak nola erantsi ziren ezarriz.

9. ATENPRO ZERBITZUAN SEXU-INDARKERIAK ERANSTEA

ATENPROn sexu-indarkerien eransketa garatzeko, hasteko, ezarriko dugu eransketa hau ematen den testuingurua (a); jarraian, seinalatuko ditugu ATENPRO sexu-indarkeriak eransteko iradokizun orokorrak (b) eta berariazko iradokizunak (c), azken hauek sexu-indarkeriei erantzuteko protokoloetan (i) eta ikerlanaren xedearen biktimek diren eta ATENPRO erabiltzen duten emakumeei laguntzen dien talde profesionalaren gainbegiratze teknikoa, trebakuntza etengabeko trebakuntza eta espezializazioa sustatzeko neurri zehatzen proposamenetan zentratuta (ii), arreta berezia jarritz trebakuntza-ibildideari (1) eta ebaluazio-sistemari (2).

a. TESTUINGURUA

ATENPRO zerbitzuari buruzko puntuan azaldu dugunez (*supra.*), zerbitzu hau emateko baldintzak eta jarduketako-protokoloa 2012koak dira eta harrezkero ez dira eguneratu. Era berean, ATENPROk orain LOMPIVGek hartzen duen genero-indarkeriaren biktimei bakarrik ematen die zerbitzua, hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak burututako indarkeriaren biktimei. Hori dela eta, zerbitzua Istanbulgo Hitzarmenean jasotako emakumeen aurkako sexu-indarkeria motetara egokitzeko, hau da, bikotekideak edo bikotekide ohiak burututakoaz haratago, emakumeen aurkako sexu-indarkeriak barne, ATENPROren hedapen eta osoko hobekuntza prozesua egiten ari da.

Hedapen eda osoko hobekuntza hau Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresistentzia Planaren 4. inbertsioko 22. osagaiaren inbertsio-lerroen baitan jasotzen da (C22.14). Berreskuratze Planak, hogeita hamar osagaien bidez, administrazio desberdinen arau-aldaketak indartzeko eta prozedura administratiboak edo jarduera desberdinak aldatu eta berrikusteko erreforma eraldatzaileak eta inbertsioak jasotzen ditu. 22. osagaien (Zainketaren ekonomiarako eta gizarteratzeko politikak indartzeko txoke-plana) ardatzen dira —beste erronka eta xede batzuen artean— indarkeria matxistaren aurkako borrokaren errefortzua arreta osoko zerbitzuak hedatzeko eta irisgarriak egiteko Espainiak indarkeria matxistaren aurka babesten zaitu Planaren bidez⁸³. Osagai honen xedea da arreta osoko zerbitzuak emakumeen aurkako indarkeria mota guztietara zabaltzea, hobetzea, hedatzea eta irisgarriak egitea. Planak 153.361.560 euroko aurrekontua du guztira, Berdintasun Ministerioaren kudeaketapean, eta hiru jarduera-ildo hartzen ditu: (1) 016 zerbitzua hobetu,

⁸³ Ikusi: <https://planderecuperacion.gob.es/politicas-y-componentes/componente-22-plan-de-choque-para-economia-de-cuidados-y-refuerzo-de-politicas-de-inclusion>

digitalizatu eta zabaldu; (2) ATENPRO eta gailu telematikoak modernizatu eta zabaldu, eta (3) 24 orduko arreta osoko zentroak sortu, 66 milioi euroekin.

ATENPROri dagokionez, 2021eko azaroaren 23an, BOEk argitaratu zuen 1042/2021 Errege Dekretua, FEMPari diru-laguntza zuzena ematea arautzen duena, indarkeria matxistaren emakume biktimentzako arreta- eta babes-zentroak modernizatzeko eta hedatzeko baldintzak ezartzen dituena. ATENPRO modernizatu eta hedatzeko xedea burutzeko, hurrengo jarduerak egitea aurreikusten da: arretarako zerbitzuaren osoko hobekuntza; kudeaketa-taldeen hobekuntza teknologikoa eta erabiltzaile-kopuruaren hedakuntza, emakumeen aurkako indarkeria-mota guztietara zabalduz —inplementazio hau FEMParentzako diru-laguntza izendun baten bitartez egingo da—, eta emakume biktimentzako babes-neurrien kontrolerako gailuen zerbitzuaren osoko hobekuntza, emakumeentzako indarkeria-mota guztietara zabaltzeko asmoz, babes handiagoa, teknologia hobea eta bigarren mailako biktimizazio gutxiago emanez.

b. ATENPRO ZERBITZUAN SEXU-INDARKERIAK ERANSTeko IRADOKIZUN OROKORRAK

ATENPROren ezaugarriei eta bere egungo egoerari buruz ezarri dugunetik abiatuta, kontuan hartuz zabalkuntza eta hobekuntza testuingurua; giza eskubideak babesteari buruzko nazioarteko eta Europako arauak sexu-indarkeriari buruzko eginbeharrak, eta arreta berezia jarriz toki-eginbeharretan, eta toki-erakunde hurbilketa eta esku-hartzea sexu-indarkerietan, egin ditugun galdetegiei eta elkarrizketei emandako galderetatik aurrera, hurrengo iradokizun orokorrek egiten ditugu ATENPROn sexu-indarkeriak eransteko:

- ATENPROko erabiltzaileak izan litezkeen sexu-indarkerien biktima edo biziraule kopurua: Espainian gaur egun sexu-indarkeriei buruzko datuak jasotzeko modua dela eta, ikerketa honetan zenbait aldiz aipatu dugun bezala, eta sexu-indarkeriak orokorrean eta indarkeria honen mota eta agerpen bakoitzak dituen ezaugarriak direla eta, ezin dugu zehazki zenbatu zenbat emakume artatu litzakeen ATENPROk. Gure ustez, gainera, zenbait faktoreren arabera izango da, hala nola, ATENPROn sexu-indarkeriak eranstearen hedapena, zerbitzuan alta eskatzen has daitezen; toki-erakunde berriek zerbitzuarekin bat ematea eransketa honen bitartez, eta LOGILSan hitzartutako sexu-indarkerien ziurtapena inplementatzeko modua.
- Agiri eta protokolo berriak: 2012tik 10 urte baino gehiago igaro direnez, agiri berriak eta protokolo bat egin behar da harrezkero eman diren estatuko, erkidegoetako, nazioarteko eta Europako arau-aldaketa guztietara egokitzeko⁸⁴. Arreta berezia jarri beharko litzateke CEDAWn; CEDAW batzordearen 19., 28. eta 35. gomendio orokorretan, besteak beste; Istanbulgo Hitzarmenean eta GREVIOn gomendioetan Espainiaren Lehen Ebaluazio Txostenean (2020); Vartsoviako Hitzarmenean eta GRETAren Espainiarako gomendioetan; 2022-2025 Indarkeria matxistari aurre egiteko Estatu-estrategian;

⁸⁴Ikerketa honen bitartez, jakin genuen protokolo berri bat lantzen ari dela.

Genero-indarkeriaren aurkako Estatu-itunean; Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko politika eta zerbitzuen katalogoan giza eskubideen nazioarteko estandarren arabera; LOGILSan; LOPIVlan; 2012tik aurrera LOMPIVGan egindako aldaketetan; eta 2/2010 Lege Organikoan, martxoaren 3koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa. Agiriek hurrengoak hartu behar dituzte: ebaluazioa (aurrerago helduko diogu); derrigorrezko eta etengabeko berariazko trebakuntza sexu-indarkerietan eta sexu-indarkeria mota bakoitzean: sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE eta esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak (aurrerago helduko diegu ere); ATENPRO osatzen duen taldearen gainbegiratzea eta zainketa; emakumezko psikologoak eta gizarte-langileak sartzeko aukera aztertzea, baita trebakuntza- eta kalitate-arduradunaren kargua izatea; sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak une orotan zerbitzuaren erdigunean jartzea eskubideen titular gisa, eta sexu-indarkeriekin lotutako berrikuntzak edo legezko aurrerapenak egon orduko, jarduketa-protokoloa eguneratu behar izatea hauek sartzeko. Protokoloak koordinazioari buruzko atala izan beharko luke, kontuan hartuz irekitzen ari diren eta irekiko diren «krisi-zentroak» direlakoak, sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak artatzeko berariazko 24/7/365 osoko arreta espezializatua emateko zentroak.

- Baldintzak birpentsatu, aldatu eta egokitu: Gure ustez, sexu-indarkerien biktimei erasotzen dien gizonarekin elkarbizitza-harremana ez izatea exijitzeak ez du sexu-indarkeria mota desberdinen (ezagunek, ezezagunek, senideek, eta abar burututakoak) errealitatearekin eta konplexutasunarekin bat egiten. Hori dela eta, ezabatu behar da eta zerbitzu hau eman behar da emakumeak elkarbizitza-harremana duen edo ez aparte utzita. Halaber, sexu-indarkerian espezializatutako programetan parte hartzeko baldintza ere ezabatu beharko litzateke, sexu-indarkeriaren mota edo agerpen desberdinen errealitatearekin bat ez duelako egiten. Gainera, aintzat hartu behar da gaur egun ez dagoela nahikoa baliabide espezializatu sexu-indarkeria mota desberdinei dagokienez, eta beharrezkoak lirateke honetarako.
- Sexu-indarkeriaren biktimen ziurtapena: LOGILSak sexu-indarkerien biktimen ziurtapena onartzen duen esparru judizialek kanpo (37. artikulua) hurrengoan txosten baten bitartez: gizarte-zerbitzuak, berdintasunean eta genero-indarkeriaren aurka espezializatutako zerbitzuak, sexu-indarkerien biktimei bideratutako dagokion administrazio publikoaren harrera-zerbitzuak, edo laneko eta gizarte-segurantzako ikuskatzailatza, dagozkien kasuetan; gizarte-arloko jurisdikzioari dagokion epaiaren bitartez; edo beste edozein tituluren bitartez, baldin eta eskubide eta baliabide bakoitza erabiltzea arautzen duten sektore-izaerako xedapen arauemaileetan aurreikusten bada; eta biktima adingabeen kasuan, eta, halaber, Fiskaltzarentzako edo epai-organoarentzako komunikaziozko osasun-agiri ofizialen bidez ere ziurtatu ahalko da. Kasu hauetan, ATENPROk ziurtapen hauek onartu beharko ditu ziurtatzen duten sexu-indarkerien biktima edo bizirauleak artatzeko.

- Arreta psikologiko espezializatua eranstea hausnartu: Sexu-indarkerien biktima edo bizirauleentzat laguntza psikologikoak duen garrantzia kontutan hartuta, ATENPROk balioetsi beharko luke taldean sexu-indarkerietan espezializatutako emakume psikologoak sartzeari, genero-ikuspegia ekarriz, eta laguntza eskaintzeko emakumeek eskatzen dutenean. ATENPROk eskaintzen duen laguntzak berariazko baliabide espezializatuetatik eman behar den esku-hartze terapeutikoaren desberdina izan behar du. Zentzu honetan, elkarrizketatutako adituek eta zerbitzuetatik bat etorri zuten moduan, laguntzak alde psikosoziala du, eta emakume biktima edo biziraulari laguntzean, gauzei izena ematean, bakarrik ez uztean, bere sentimendua egiaztatu eta hartu edo hartzen dituen erabakiak sendotzean datza. Bestalde, lan terapeutikoaren xedea egitate traumatikoari eta honek eragin dituen ondorio psikologikoei heltzea da.
- Emakumeen eta feministen erakundeen parte-hartzea, batez ere sexu-indarkerien emakume biktimen eta biziraileen prozesuetan laguntzen dutenak: ATENPRO hobetzeko eta zabaltzeko, parte hartzeko prozesua egin beharko litzateke emakumeen eta feministen erakundeen esperientziak eta iritziak aintzat hartzeko, bereziki sexu-indarkerien emakume biktimen eta biziraileen prozesuetan laguntzen dutenak, arreta berezia ipiniz aniztasunean.
- Sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak zerbitzuaren erdigunean jarri: Giza eskubideen ikuspegia aplikatzearekin lotuta dago. Sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak zerbitzuaren erdigunean jartzeak izan behar du ATENPROren abiapuntua eta zeharkako ikuspegia. Horretarako, biktimei edo bizirauleei entzun behar zaie eta kontuan hartu bere ahotsak, esperientziak, nahiak, beharrak, itxaropenak, proposamenak eta lehentasunak zerbitzuan dauden bitartean. Zentzu honetan, ATENPRO egokitu behar da biktimetara edo bizirauleetara, eta ez haiek zerbitzura. Bere ahotsa eta esperientzia da protagonismoa duena bere beharrak, itxaropenak, proposamenak eta lehentasunak ezagutzeko orduan laguntza-, susperraldi- eta ordain-prozesuan. Emakume biktimen edo biziraileen paperak biktimizaziozko leku estanko batetik susperraldizko eta ahalduzko aktiboago batera pasatu behar du⁸⁵.
- Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala: ATENPROn sexu-indarkeriak eranstea genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala uneoro aplikatuz burutu behar da, kontuan hartuz sexu-indarkeriak emakumeen aurkako generoagatiko indarkeria-mota edo agerpen bat direla. Hori dela eta, giza diskriminazio-mota bat da eta emakumeen giza eskubideak urratzen ditu. Ikuspegi hauek kontuan hartzen dute emakume guztiak sexu-indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea dutela eta ez dituztela esperientzia, arrisku eta eragin berak sexu-indarkerien aurrean. Izan ere, zapalkuntza-sistema edo desberdinkeria-ardatzen interseksioa dela eta, emakume batzuk aurre egin behar diete

⁸⁵Ikusi LOGILSaren 2. artikulua: *Lege organiko honen helburuetarako, hurrengoak izango dira botere publikoen jarduketaren printzipio gidariak: g) Ahalduzkoa. Lege organiko hau betetze aldera hartzen diren politika guztiak biktimen eskubideak jarriko dituzte neurri guztien erdigunean, ikuspegi biktimozentrikoa hartuz eta bereziki biktimen autonomia errespetatzera eta sustatzera eta bere egoera zehatzean ahalduzko tresnak ematera eta birbiktimizazioa eta bigarren mailako biktimizazioa saihestera zuzenduz.

sexu-indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea erabiltzeko trabei, haiei buruzko genero-estereotipo zehatzei eta diskriminazio interseksionalari. Halaber, emakumeen aurka burutzen dituzten sexu-indarkeriaren erantzule edo errudun egiten dituzten bortxaketari buruzko mitoak, genero-aurreiritziak eta -estereotipoak desagerraraztea dakar. Honen arabera, gainera, sexu-indarkerien biktimen edo bizirauleen profila ez da ez homogenea ez bakarra, eta, honen barruan, emakumeen baldintza pertsonalak eta sozialak aintzat hartu behar dira esplizituki ATENPROn sartu eta artatzeko baldintzak definitzerako orduan, diskriminazio interseksional egoerak sufritzeko arriskua izanik. Adibidez, dibertsitate funtzionala duten emakume biktimak edo bizirauleak; emakume etorkinak (batez ere administrazio-egoera irregularrean daudenak); LGTBIOA+ kolektiboko emakumeak; emakume arrazializatuak; Espainiako gizartean nagusiak direnen sinesmen erlijiosu edota kultural desberdinak dituztenak; muturreko pobrezia egoeran daudenak, hala nola etxegabetasun egoeran dauden emakumeak, zentroetan daudenak osasun, gizarte-babes edo neurri polizial edo judizialak betetzeko arazoengatik, besteak beste. Ikuspegi interseksionala, zentzu honetan, funtsezkoa da ATENPRO zerbitzu irisgarria, inklusiboa eta unibertsala izan dadin.

- Hartzaro-ikuspegia: Haurrak eta nerabeak artatzen diren kasuetan, ezinbestekoa da LOPIVlan jasotzen diren haurren eta nerabeen eskubideak eta errekerimenduak ezagutzen dituen hartzaro-ikuspegia izatea, baita sexu-indarkeria hauetako berariazko dinamikak eta helduenekin alderatuz dituen bereizgarriak ezagutzea. Horretarako, haurren eta nerabeen beren ikuspegia eta iritziak jaso behar dira, adin-taldea bereiziz eta bere interes gorenaren ezinbestekoa izatea bermatuz⁸⁶. Zentzu honetan, ATENPROn kasu hauek artatzen dituzten profesionalak langile espezializatuak izan behar dute, haurren eta nerabeen eskubideetan eta haien aurkako sexu-indarkerietan trebatuta. Gainera, beharrezko koordinazio-neurri guztiak hartu beharko dira dagozkion eragile guztien artean haurren eta nerabeen bigarren mailako biktimizazioa saihesteko.
- Espezializazioa: Sexu-indarkeriak artatzea espezializazioa exijitzen du indarkeria hauen ezaugarriak direla eta. Gainera, sexu-indarkeria mota bakoitzak (sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE eta esparru digitalean burututako sexu-indarkeriak) berariazko espezializazioa exijitzen du.

⁸⁶LOGILSaren 11. artikulua hurrengo hitzartzen du: 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa, biktimek esateko dutena entzunarazteko daukaten eskubideari buruz:

21. Haurrei eta nerabeei berme guztiakin eta adin-mugarik gabe entzungo dietela bermatuko dute botere publikoek, eta, kasu orotan, ziurtatuko dute prozesu hori unibertsalki irisgarria izango dela indarkeria egiaztatzearekin eta biktimen erreparazioarekin zerikusia duten prozedura administratibo, judizial edo bestelako guztietan. Haien interes gorenaren aurkakoa denean soilik murriztu ahal izango da, eta arrazoituta betiere, haurrei eta nerabeei entzunarazteko daukaten eskubidea.

2. Profesionalak, metodologiak eta espazioak behar bezala prestatuta eta espezializatuta daudela ziurtatuko da, biktima adingabeen lekukotza zorrotasunez, kontuz eta errespetuz jasoko dela bermatzeko. Adin goiztiarrean dauden biktimei entzuteari begira, arreta berezia jarriko zaie profesionalen trebakuntzari, metodologiei eta ingurua egokitzeari.

3. Botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte helduen interferentzia edo manipulazioa eragiten duten planteamendu teorikoak edo berme zientifikorik gabeko irizpideak (hala nola gurasoen alienazio-sindromea delakoa) kontuan har ez daitezela.

- Sexu-indarkerien bizirauleak sartu: Oso garrantzitsua litzateke ATENPROko taldean sexu-indarkeria mota edo agerpen desberdinen bizirauleak sartzea. Biktima edo biziraule batzuentzako lan-alternatiba izateaz gain, emakume gehiago zerbitzuan sartzen eta esperientzia hobea izaten lagun dezake.
- Kulturarteko bitartekariak sartu: Sexu-indarkeria mota edo agerpen batzuen ezaugarriak direla eta, oso garrantzitsua da taldean kulturarteko bitartekariak sartzea.
- Sexu-indarkerien emakume biktimen edo bizirauleen segurtasun-pertzepzioa: sexu-indarkerien emakume biktimen edo bizirauleen kasuan, beldur, antsietate, erruduntasun sentimenduak eta segurtasun-gabezia eta arrisku pertzepzioa oso faktore errepikakorrek dira sexu-indarkeria jasan eta gero, adibidez, sexu-eraso bat eta gero. Beraz, kasu hauetan, arriskuaren balioespenaz gain, emakume biktima edo bizirauleen zaugarritasun handiaren balioespena gehitu behar zaio. ATENPROren xede nagusia ez da soilik emakume biktimen aurkako edozein indarkeria-motatako eraso et egoera berriak prebenitzea, hauek gertatzean, ondorioak minimizatzeko; aitzitik, bereziki sexu-indarkerien emakume biktima edo bizirauleak seguru eta lagunduta sentiaraztea eraso eta gero, jasotako indarkeria gainditu eta osorik suspertzeko prozesuak iraun bitartean bere bizitza berriz zuzentzeko. ATENPROk arreta eta laguntza prozesu hori eman behar du eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan, hortik emakumearekin eta honek bere elkartasun-ingurunearekin harremana ematearen garrantzia. Esku hartzeko aukera, berehala zein jarraian, eta kasu bakoitzari dagozkion beharrezko arreta-baliabidea mobilizatzean emakume biktima osorik suspertzeko lagungarriak dira. Aditu batzuk elkarrizketetan adierazi digutenez, emakumeen segurtasun-gabezia sentsazioak, askotan, sexu-indarkeriak burutzeko moduarekin du lotura, eta ez horrenbeste erasotzaileak berriz eraso egingo dion sentsazioarekin. Hau da, giza-harremanen eta inguru seguruaren funtzionamendu arruntean sinesteari utzi dio. ATENPROko arretak, kasu hauetan, lagun diezaioke segurtasuna eta lasaitasuna ematen, ez soilik berarentzako arriskuak minimizatzeko segurtasun objektiboa eskuratuz (eraso berria egon daitekeen kasuetan), baizik eta aurre egiteko eta suspertzeko bere prozesuarekin lotutako segurtasun subjektiboaren pertzepzioari lagunduz. Horretarako, ezinbestekoa da —bere sexu-indarkeria egoerarekin lotutako edozein beharren aurrean— informazioa, aholkularitza eta laguntza modu indibidualizatuan eta profesional espezializatuekin egitea. Biktimaren edo biziraulearen segurtasun-pertzepzioan kontuan hartu beharreko beste alde bat da bere inguruak jokatzen duen papera eta emakumeak zer behar duen honekiko. Ezin da alde batera utzi familiako, bikoteko, laneko, adiskidetasun-harremanak daudela indarkeriak estaltzen dituztenak. Ondorioz, ATENPROk bere ohiko ingurunean babes-sarea sortzera laguntzeko helburuan, balioetsi behar da hau segurua ote den eta laguntzen edo min handiagoa egiten dion. Dena den, sare hau sortzeak saihestu behar du emakume biktima edo bizirauleek bere ingurua eta bizitza nahi gabe utzi behar izatea, baizik eta benetako segurtasuna eskuratzeko. Beraz, biktimentzako edo bizirauleentzako babes-neurriak erasotzaileetan zentratzen direnekin osatu behar dira.

- Langileen zainketara eta autozainketara zuzendutako gainbegiratze profesionalak: Sexu-indarkerien emakume biktima edo bizirauleekin lan egiten duten profesionalak bere osasun fisikoa, psikologikoa eta emozionala arriskuan jar ditzakete. Elkarrizketatutako profesional gehienak bat datoz ez direla soilik kasuak gainbegiratu behar, baizik eta profesionalak ere, gainbegiratze, laguntza eta zainketaren bidez. Izan ere, kontaktu zuzena dute egunero emakumeek bizi dituzten sexu-indarkeria egoerekin, eta higadura eta neke profesionala jasan ditzakete (*burnout* izenaz ezagunagoa, gai-kutsadura eta traumatizazio bikarioa). Halaber, taldeek «taldeen traumatizazioa» deritzona sufritu dezakete, hau da, lantaldean indarkeria-giroaren dinamikak errepikatzearen efektua⁸⁷. Horrela, sexu-indarkeriaren biktima edo bizirauleekin lan egiteak dakartzan ondorioak eta lan honek zerbitzua ematen duten profesionalengan izan dezakeen eragina direla eta, eta lanaren kalitatea bermatzeko, funtsezkoa iruditzen zaigu langileak gainbegiratu, zaindu eta autozaintzeko neurri desberdinak hartzea. Hauek, genero-ikuspegiarekin, derrigorrezkoak izateaz gain, zerbitzua ematen duen erakundeak eskaini beharko lituzke eta, beraz, ATENPROko kontratazio-agirietan eta aurrekontuetan sartu beharko lirатеke. Taldeak zaintzea ATENPRO kudeatzen duten instituzioen eta erakundeen ardura da eta, beraz, agirietan eta protokolo berrian ezinbestekoak dira autozaintzeko guneak, eta honen garrantziari buruzko lidergo- eta trebakuntza-estiloak jasotzea, ez soilik zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, baizik eta langileek mota honetako zerbitzu batean jasaten dituzten neke eta higadura profesionala artatzeko, laneko arriskuen prebentzioaren ikuspuntutik.
- Kanpo-talde aholkulari espezializatua: Sexu-indarkeria kasu konplexuak egongo direnez, proposatzen dugu kanpo-talde aholkulari bat sortzea sexu-indarkeria mota bakoitzean adituez osatuta, kasu konplexuenetan lagundu eta aholkatzeko.
- Segurtasun digitala indartu: Sexu-indarkeriek osagai digitala izan dezakete eta izan ohi dute. Beraz, ATENPRO hobetzeko eta sexu-indarkeriak eransteko, zibersegurtasun barne-ikuspegi sendoa izan behar eta biktimei edo bizirauleei jarraibideak edo tresnak eman ahal izateko eta arriskua balioetsi ahal izateko. Kasu batzuetan gerta liteke faktore desberdinak aintzat hartzea arriskua ebaluatzeko, baina, kontua ez hartzea, adibidez, erasotzaileak biktima edo biziraulearen kokapena eskuratu dezakeela. Beraz, segurtasun digitalari buruzko jarraibideak ezinbestekoak dira taldearentzat eta zerbitzuak artatzen dituen emakumeentzat.
- Erakundeen eta profesionalen arteko koordinazioa: Koordinazioa nahitaezkoa da sexu-indarkeria kasuak artatzeko; beraz, protokolo oso bat sortu beharko litzateke puntu honen inguruan edo arreta-protokolo berrian sartu. Gai honetan aintzat hartu beharko lirатеke sexu-erasoan, sexu-jazarpenean, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketan, EGMan, BEan edo sexu-indarkeria digitaletan espezializatutako erakunde guztiak, hala

⁸⁷ Ikusi: Aron A.M. eta Llanos M.T. 2004. «Cuidar a lo que cuidan. Desgaste profesional y cuidado de los equipos que trabajan con violencia». *Sistemas familiares*, 20. urtea, 1-2 alea, 5-15 orr.

nola sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak artatzeko berariazko 24/7/365 osoko arreta espezializatua emateko baliabideak sortzen ari direla, eta ezinbestekoa izango da ATENPROrekin koordinatzea.

- Protokolo operatiboak: ATENPROtik egiten den esku-hartze bakoitzak berariazko protokolei erantzun behar die dei-motaren arabera⁸⁸, batez ere krisi- edo larrialdi-egoerari erantzuten diotenean. Sexu-indarkerien kasuan, protokolo hauek kontuan hartu behar dute sexu-indarkeria mota bakoitzaren ezaugarriak. Dena den, protokolo hauek beharrezkoak izan arren, ezin da baztertu sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleekin lan egiteak dakarren malgutasuna, beti erdigunean jartzeko.
- Hedapena: ATENPRO oraingoz LOMPIVGak jasotzen zuen genero-indarkeriaren biktima edo bizirauleentzat bakarrik dela uste denez, sexu-indarkeriak zerbitzu honetan eransteari buruzko hedapen-lana egin beharko da.
- Erakundeen baliabideekin indartu: ATENPROk lan egiteko duen moduagatik, sexu-indarkeriak zerbitzuan eranstea onuragarria izan dadin, sexu-indarkeriak lantzen dituzten erakundeak giza-baliabideekin eta baliabide ekonomikoekin indartu behar dira.
- Finantzazio egonkorra: Gaur egun, zerbitzu hau finantzatzen da genero-indarkeriaren emakume biktimentzako telelaguntza mugikorrerako Estatuko Aurrekontu Orokorretan FEMParen alde aurreikusten den diru-laguntza zuzen baten bidez. Aldizkakotasun honek ez du zerbitzua ematea bermatzen, beraz, finantzazio egonkorra izan beharko luke, are gehiago sexu-indarkeria eransten badu.

c. BERARIAZKO IRADOKIZUNAK

i. Sexu-indarkeriak artatzeko protokolo proposamena

ATENPROk sexu-indarkeriak eransteko, ezinbestekotzat jotzen dugu sexu-indarkeriei erantzuteko protokoloa egitea. Honek hurrengo jaso beharko luke gutxienez:

- Bizirauleen eta emakumeen eta feministen erakundeek parte hartzea lanketan, batez ere sexu-indarkerien emakume biktimen eta bizirauleen prozesuetan laguntzen dutenak.
- Genero-ikuspegia, ikuspegi interseksionala eta haurtzaro-ikuspegia izatea, baita giza eskubideen ikuspegia izatea, sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak erdigunean jarriz eskubideen titular gisa.

⁸⁸(1) Erabiltzaileen deiak arreta-zentrori; (2) arreta-zentroaren jarraipen-deiak erabiltzaileei; (3) larrialdi-deiak, eta (4) zerbitzuaren kontrol teknikoaren komunikazioak.

- Kontuan hartzea nazioartean eta Europaren baitan giza eskubideak babesteko eginbeharrak sexu-indarkeriei dagokienez, arreta berezia jarriz Istanbulgo Hitzarmenean eta estatuko arauen aldaketei, batez ere, LOGILSari.
- Sexu-indarkeria mota edo agerpenetan dauden bortxaketari buruzko mitoak, genero-aurreiritziak eta -estereotipoak sartu, eta detektatzeko eta desagerrarazteko garrantzia azaltzea, biktimei edo bizirauleei ardura edo errua ez leporatzeko.
- Sexu-indarkeria mota desberdinek exijitzen dituzten espezializazioa ezartzea eta berariazko atala izatea sexu-mota bakoitzari heltzeko: sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE edo sexu-indarkeria digitalak.
- Sexu-indarkeriaren biktimentzako premiazko arretari buruzko atal bat eta krisi-arretari buruzko beste bat izatea.
- Detektatzen diren beharren eta egiten diren ebaluazioen arabera eguneratzea.
- Koordinazio instituzionala ezartzea eta sexu-indarkeria mota desberdinen biktima edo bizirauleentzako baliabideen mapa eranstea.

ii. Ikerlanaren xedearen biktimak diren eta ATENPRO erabiltzen duten emakumeei laguntzen dien talde profesionalaren gainbegiratze tekniko, etengabeko prestakuntza eta espezializazioa sustatzeko neurri zehatzen proposamenak

Neurri zehatz gisa, derrigorizat jo ditugu trebakuntza eta ebaluazioa, jarraian garatuko dugunez.

1. Trebakuntza-ibilbidea

ATENPROko egungo jarduketa-protokoloak (2012) «zehazki trebatutako langileak» edo «langile espezializatuak» aipatu arren, ez du trebakuntza azaltzen, ezta derrigorrezkoa edo etengabea izan behar duen. 2022ko Estatuaren Aurrekontu Orokorretan jasotzen diren «Genero-indarkeriaren osoko prebentziorako jarduketak» atalean adierazten dira zeintzuk diren «erantzun instituzionalaren hobekuntza, koordinazioa eta sareko lana emakumeei bere eskubideak benetan baliatzea bermatzeko asmoz» lortzeko jarduketa baten xedek⁸⁹. Hauen artean, ATENPRO zerbitzua hobetzea aipatzen da, emakumeen aurkako indarkeria-mota guztien biktima guztietara zabalduz, sexu-indarkeriak barne, toki-erakundeen eta langileen trebakuntza indartuz. «Langileen trebakuntza eta sentsibilizazioa»ri dagokion jarduera-ildoan

⁸⁹ *Presupuesto por programas y memoria de objetivos*. 2022. XX. liburukia (30. atala. berdintasun Ministerioa). 232B programa. Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

argiago adierazten da ATENPROko giza baliabideen osoko trebakuntza etengabearen eta trebakuntza eguneratzearen beharraren helburua.

Bere aldetik, gogoratu dezagun Istanbulgo Hitzarmenak 15. artikuluan ezartzen duela profesionalen trebakuntzari buruzkoa, eta adierazten duela edozein indarkeria-mota, sexualak barne, jasaten duten biktimak artatzen dituzten profesionalen oinarrizko etengabeko trebakuntzaren izaera sistematikoa. Horretarako, seinalatzen du Estatuek emango edo indartuko dutela dagozkien profesionalen trebakuntza egokia, eta honek hartu behar dituela indarkeria prebenitzea eta detektatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, biktimen beharrak eta eskubideak eta bigarren mailako biktimizatzea prebenitzea. Gainera, erakundeen arteko elkarlan koordinatuari buruzko trebakuntza erantsi behar dute Hitzarmenean jasotzen diren indarkeriari buruzko gaietako ildoen kudeaketa orokorra eta egokia errazteko, sexu-indarkerietakoak barne.

Dena den, LOGILSaren III. tituluak, trebakuntzari buruzkoa, sexu-indarkeriak prebenitu, detektatu, ordaindu eta artatzeko zuzenean edo zeharka esku hartzen duten profesionalen espezializazioa bermatzeko beharrezko trebakuntza-neurriak ezartzen ditu, erasotzaileekin harreman zuzena duten biktimak artatzeko, bereziki adingabeekin ohiko harreman zuzena duten langileen trebakuntzari dagokionez. Espezializazio hau hasierako derrigorrezko trebakuntzaren eta etengabeko trebakuntzaren bitartez egingo da. Modu berean, LOPIVIak sustatu eta bermatzen du trebakuntza espezializatua, hasierakoa zein etengabea, adingabeekin ohiko harremana duten administrazio publikoetako profesionalentzat, alde juridikoan eta sozialean sakonduz, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa.

Trebakuntzak eta, beraz, espezializazioak duen garrantzia kontutan hartuta sexu-indarkerien biktimak edo bizirauleak artatuko dituen zerbitzu batean, gainera, ikerlanean zehar eginbeharra dela defendatu dugun moduan, ezinbestekoa iruditzen zaigu ATENPROk sexu-indarkeriak eransteko, trebakuntza-ibilbideak hurrengoak bete beharko lukeela gutxienez:

- Agirian xehetasunez ezartzea.
- Derrigorrezkoa eta etengabea izatea, profesionaleri trebatzeko denbora emanaz.
- Hasierako trebakuntza eta trebakuntza etengabea hartzea; azken hau egokitu ahal izango da profesionalak detektatzen dituzten beharren arabera.
- Genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionaletik diseinatzea, haurtzaro-ikuspegia ere kontuan hartuz. Ikuspegi interseksionalak zapalkuntza-sistema edo desberdinkeria-ardatz desberdinen arteko interseksioa eta elkarrekintzari heldu beharko dio eta sexu-indarkeriei aurre egiten dieten emakumeen bizitzan duen eraginari, arrazismoa barne, eta anizkoitza eta interseksionala bereiziz, baita diskriminazio interseksionala eta anizkoitza ere.

- Sexu-indarkeriak emakumeen aurkako genero arrazoiengatiko indarkeria-mota edo agerpena direla kontuan hartzea. Hori dela eta, giza diskriminazio-mota bat da eta giza eskubideak urratzen ditu.
- Emakumeen berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea abiapuntutzat izatea, diskriminazio interseksionala barne.
- Sexu-indarkerien ezaugarriak, trauma, krisia, indarkeria hauen eragina osasun mentalean, sexu- eta ugalketa-eskubideak, ez birbiktimizatzea, genero-aurreiritziak eta -estereotipoak detektatzea eta ikuspegi interseksionaletik desagerraraztea, bortxaketari buruzko mitoak eta biktima edo bizirauleen osoko ordaina hartzea.
- Estatuko, autonomia erkidegoetako eta tokiko arau-esparruari buruzko modulua izatea, baita giza eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako esparruari buruzkoa, emakume guztiak sexu-indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidean zentratuz, indarkeria hauen biktimak edo bizirauleak erdigunean jarri; eskubideen titular gisa. Proposatzen da modulu hau sexu-indarkeriak lantzen eskarmentuduna den jurista feminista batek diseinatzea eta irakastea. Moduluak hurrengoa hartuko du gutxienez:
 - CEDAW eta CEDAW Batzordearen Gomendioak, Espainiarentzako txostenak eta azken behaketak, eta sexu-indarkeriei buruzko giza eskubideak babesteko sistema unibertsalaren baitako beste konbentzio eta batzorde batzuen informazioa.
 - Europako Kontseiluaren esparrua, arreta berezia jarritz Istanbulgo Hitzarmenari eta GREVIOko gomendioei, baita gaiari buruzko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia esanguratsuenak. Halaber, Varsoviako Hitzarmenari eta GRETAri buruzkoa eta Budapesteko Hitzarmenari eta Lanzarotekoari buruzkoa.
 - Europar Batasunaren esparrua.
 - LOGILS, LOPIVI, 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa, autonomia erkidegoetan sexu-indarkeriei heltzen dieten legeak, 2022-2025 Indarkeria matxistari aurre egiteko Estatu-estrategia, Genero-Indarkeriaren aurkako Estatu-ituna eta Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko politika eta zerbitzuen katalogoan giza eskubideen nazioarteko estandarren arabera.
- Hurrengoak hartzen dituen modulu bat izatea: sexu-indarkeriek osasun mentalean duen eragina, trauma, krisia, indarkeria psikologikoa eta laguntza sexu-indarkeria kasuetan, kontuan hartuz sexu-indarkeria mota desberdinak (sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE eta sexu-indarkeria digitalak).

Proposatzen da modulu hau sexu-indarkeriak lantzen eskarmentuduna den psikologo feminista batek diseinatzea eta irakastea.

- Sexu-indarkeria mota bakoitzeko modulu bat egotea: sexu-erasoa, sexu-jazarpena, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa, EGM, BE eta sexu-indarkeria digitalak, indarkeria-mota bakoitzean laguntzen duten adituek eta erakundeek egindakoa.
- Sexu-indarkeria mota desberdinen kasuistika desberdinak hartzea.
- Haur eta nerabeen eskubideak hartzea eta haurren interes gorena funtsezko iritzi gisa aintzatestea ahalbidetzea.
- Segurtasun digitalean eta autodefentsa feministan trebatzea ezartzea.
- Dagozkion materialak hartzea.
- Jasotako trebakuntzak ebaluatzeko mekanismoa egotea.

Trebakuntza-ibilbideak kontuan har dezake galdetegiari erantzun zioten eta elkarrizketa sakonak egin genituen zerbitzu batzuen hasierako esperientzia, eta hartu behar ditu, arauak ezagutzeaz edo ikasteaz ez ezik, emakumeak eguneroko bizitzan jasaten dituzten diskriminazioa eta diskriminazio interseksionala igartzeko gaitasunak garatzea. Horrez gain, sexu-indarkeriek emakumeen bizitzetan dituzten kasuak, ondorioak eta eraginak identifikatzeko tresnak eman behar dituzte, beste batzuk emakumeen aurka burutzen dituzten sexu-indarkerien biktimei edo bizirauleei ardura edo errua leporatzen dieten bortxaketari buruzko mitoak, genero-aurreiritziak eta genero-estereotipoak erabiltzearen ondorioak errekonozitzea lagunduz.

2. Ebaluazio-sistema

